##### Artículo 5. Diseños susceptibles de registro

Podrán registrarse los diseños que sean nuevos y posean carácter singular.

##### Artículo 6. Novedad

1. Se considerará que un diseño es nuevo cuando ningún otro diseño idéntico haya sido hecho accesible al público antes de la fecha de presentación de la solicitud de registro o, si se reivindica prioridad, antes de la fecha de prioridad.

2. Se considerarán idénticos los diseños cuyas características difieran sólo en detalles irrelevantes.

ral zein juridikoei, baldin eta Espainiako lurraldean ohiko bizilekua edo industria- zein merkataritza-establezimendu egiazko eta serio bat badute edo Jabetza Industrialak Babesteko 1883ko martxoaren 20ko Parisko Batasunaren Hitzarmenak —aurrerantzean «Parisko Hitzarmena» deituak— babesten baditu, Espainian indarrean den Hitzarmen horren Aktan ezarritakoaren arabera; eta baita Merkataritzaren Mundu Erakundeko kide diren estatuetako nazionalitatea dutenek ere.

2. Aurreko apartatuan sartzen ez diren atzerriko pertsona natural zein juridikoei ere lortu ahal izango dute, lege honetan xedatutakoaren arabera, diseinuak erregistratzea, baldin eta haiek nazionalitatea duten estatuan onartzen bazaie espainiar nazionalitateko pertsona natural zein juridikoei beren diseinuak erregistratzea herrialdeko legeriaren arabera.

3. Artikulu honen 1. apartatuan aipaturiko pertsonak alegatu ahal izango dute beren mesedetan aplikatu daitezela Parisko Hitzarmenaren eta Espainiak berretsitako beste zeinahi nazioarteko tratatuen xedapenak, zuzenean aplikagarriak zaizkienean, lege honetan xedaturikoari buruz mesedegarriago zaien gutzian.

## II. TITULUA

### ERREGISTRA DAITEZKEEN DISEINUAK ETA ERREGISTROA UKATZEKO ARRAZOIAK

#### I. KAPITULUA

##### **Babes-betekizunak**

#### **5. artikulua. Erregistra daitezkeen diseinuak**

Berriak diren eta izaera berezia duten diseinuak erregistratzen ahalko dira.

#### **6. artikulua. Berritasuna**

1. Diseinu berri bat dela ulertuko da baldin eta antzeko diseinurik ez bada jendearentzat eskuragarri jarri erregistro-eskaera aurkeztu baino lehen edo, lehentasuna errebendikatzen bada, lehentasun-data baino lehen.

2. Ezaugarri-diferentziak xehetasun hutsaletan bakarrik dituzten diseinuak berdintzat hartuko dira.

## **Artículo 7. Carácter singular**

1. Se considerará que un diseño posee carácter singular cuando la impresión general que produzca en el usuario informado difiera de la impresión general producida en dicho usuario por cualquier otro diseño que haya sido hecho accesible al público antes de la fecha de presentación de la solicitud de registro o, si se reivindica prioridad, antes de la fecha de prioridad.

2. Para determinar si el diseño posee carácter singular se tendrá en cuenta el grado de libertad del autor para desarrollar el diseño.

## **Artículo 8. Diseños de componentes de productos complejos**

1. El diseño aplicado o incorporado a un producto que constituya un componente de un producto complejo sólo se considerará que es nuevo y posee carácter singular:

- a) Si el componente, una vez incorporado al producto complejo, sigue siendo visible durante la utilización normal de éste; y
- b) En la medida en que estas características visibles del componente presenten en sí mismas novedad y carácter singular.

2. Se entenderá por utilización normal, a efectos de lo previsto en el párrafo a) del apartado anterior, la utilización por el usuario final, sin incluir el mantenimiento, la conservación o la reparación.

## **Artículo 9. Accesibilidad al público**

1. A efectos de la aplicación de los artículos 6 y 7, se considerará que un diseño ha sido hecho accesible al público cuando haya sido publicado, expuesto, comercializado o divulgado de algún otro modo antes de la fecha de presentación de la solicitud de registro o, si se reivindica prioridad, antes de la fecha de prioridad, salvo que estos hechos, razonablemente, no hayan podido llegar a ser conocidos en el curso normal de los negocios por los círculos especializados del sector de que se trate que operen en la Unión Europea.

2. No se considerará que el diseño ha sido hecho accesible al público por el simple hecho de haber sido comunicado a un tercero bajo condiciones tácitas o expresas de confidencialidad.

## **Artículo 10. Divulgaciones inocuas**

1. Para la aplicación de los artículos 6 y 7 no se tendrá en cuenta la divulgación del diseño realizada:

## **7. artikulua. Izaera berezia**

1. Diseinu batek izaera berezia duela ulertuko da baldin eta erabiltzaile informatuari eragiten dion inpresio orokorra desberdina bada erabiltzaile horren gain beste edozein diseinuk eragindako inpresio orokorraren aldean, erregistro-eskaera aurkeztu baino lehen jendearentzat eskuragarri jarritakoak harturik aintzat, edo, lehentasuna errebindikatzeko bada, lehentasun-data baino lehenagokoak.

2. Diseinuak izaera berezia duen zehazteko, kontuan hartuko da egileak diseinua garatzeko duen askatasun-maila.

## **8. artikulua. Produktu konplexuen osagaien diseinuak**

1. Produktu konplexu baten osagai den produktu bati aplikatu edo gehituko diren diseinua berria dela ta izaera berezia duela joko da baldin eta:

- a) Osagaiak, behin produktu konplexura sartutakoan, ikusgai izaten jarraitzen badu produktua normal erabiltzen denean; eta
- b) Osagaiaren ezaugarri ikusgarri horiek berez berriak eta izaera berezi-koak diren neurrian.

2. Erabilera normaltzat hartuko da, aurreko apartatuko a) letran ezarritakoaren ondorioetarako, azken erabiltzailearen erabilera, alde batera utzita mantentze-lanak, kontserbazioa eta konponketa.

## **9. artikulua. Jendearentzako eskuragarritasuna**

1. Aurreko 6. eta 7. artikulua aplikatzeari dagokionez, diseinu bat jendearentzat eskuragarri egin dela ulertuko da baldin eta argitaratu, erakutsi, merkaturatu edo beste moduren batean zabaldu bada erregistro-eskaera aurkeztu baino lehen edo, lehentasuna errebindikatzeko den kasuan, lehentasun-data baino lehen, salbu eta gertaera horien berri ezin izan badute jakin, arrazoizko modu batean, dena delako sektorean Europar Batasunean diharduten zirkulu espezializatuen negozio-jardun normalean.

2. Ez da diseinua jendearentzat eskuragarri jarri dela joko hirugarren bati konfidentzialtasun-baldintza isil edo espresuen pean jakinarazte hutsa-gatik.

## **10. artikulua. Dibulgazio ez-kaltegarriak**

1. Ez da kontuan hartuko, 6. eta 7. artikulua aplikatzeari begira, diseinuari zabalkundea eman izana honela:

- a) Por el autor, su causahabiente, o un tercero como consecuencia de la información facilitada o de los actos realizados por el autor o su causahabiente; y
- b) Durante el período de doce meses que preceda a la fecha de presentación de la solicitud o, si se reivindica prioridad, a la fecha de prioridad.

2. Lo dispuesto en el apartado anterior será también de aplicación cuando la divulgación del diseño sea consecuencia de un abuso frente al autor o su causahabiente.

### **Artículo 11. Diseños impuestos por su función técnica y diseños de interconexiones**

1. El registro del diseño no conferirá derecho alguno sobre las características de apariencia del producto que estén dictadas exclusivamente por su función técnica.

2. El registro del diseño no conferirá derecho alguno sobre las características de apariencia del producto que hayan de ser necesariamente reproducidas en su forma y dimensiones exactas para permitir que el producto al que se aplique o incorpore el diseño pueda ser conectado mecánicamente a otro producto, adosado, o puesto en su interior o en torno al mismo, al objeto de que cada uno de ellos pueda cumplir su función.

3. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior los derechos derivados del registro se reconocerán sobre los diseños que permitan el ensamble o la conexión múltiple de productos intercambiables dentro de un sistema modular y cumplan las condiciones establecidas en los artículos 6 y 7.

### **Artículo 12. Prohibiciones de registro**

No se registrarán los diseños contrarios al orden público o a las buenas costumbres.

## **CAPÍTULO II**

### **Motivos de denegación de registro**

#### **Artículo 13. Causas de denegación**

De oficio, cuando así lo disponga esta ley, o mediando oposición, en los casos y bajo las condiciones establecidas en su título IV, el registro del diseño será denegado, o si hubiere sido concedido será cancelado cuando:



- a) Egileak, kausadunak edo hirugarren batek, egileak edo haren kausadunak emandako informazioaren edo egindako egintzen ondorioz; eta
- b) eskabidea aurkeztu aurreko hamabi hilabeteetan edo, lehentasuna errebindikatzen bada, lehentasun-data baino lehen.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatuko da, halaber, diseinuaren zabalikunde egilearen edo haren kausadunaren aurkako abusu baten ondorio deanean.

## **11. artikulua. Funtzio teknikoak behartutako diseinuak eta interkonexioen diseinuak**

1. Diseinuaren erregistroak ez du inolako eskubiderik emango produktua-  
ren itxurazko ezaugarriei buruz produktua-  
ren funtzio tekniko hutsak eskatzen  
baditu ezaugarriok.

2. Diseinuaren erregistroak ez du inolako eskubiderik emango produktua-  
ren itxurazko ezaugarriei buruz ezaugarriok produktua-  
ren forma eta neurri  
zehatzetan erreproduzitu behar badira, nahitaez, diseinua aplikatu edo gehitzen  
zaion produktua mekanikoki beste produktu bati lotu ahal izateko, produktu  
horri atxikita edo barruan edo inguruan jarrita, produktu bakoitzak bere fun-  
tzioa bete dezan.

3. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, erregistrotik eratorritako  
eskubideak sistema modular baten barruan produktu trukagarrien muntaia edo  
konexio anizkoitza ahalbidetzen duten diseinuen gainean aitortuko dira, 6. eta  
7. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

## **12. artikulua. Erregistratzeko debekuak**

Ez dira erregistratzeko ordena publikoaren edo ohitura onen kontrakoak  
diren diseinuak.

# II. KAPITULUA

## **Erregistroa ukatzeko arrazoiak**

### **13. artikulua. Ukatzeko arrazoiak**

Ofizioz, lege honek hala xedatzen duenean, edo aurkakotza bidez, IV. titulu-  
an ezarritako kasuetan eta baldintzetan, diseinua erregistratzea ukatu egingo  
da, edo erregistratu bada ezereztu egingo da, kasu hauetan:

a) Lo solicitado como diseño no se ajuste a lo definido como tal en esta ley.

b) El diseño no cumpla alguno de los requisitos de protección establecidos en los artículos 5 a 12 de esta ley.

c) El solicitante no tenga derecho a obtenerlo conforme a los artículos 14 y 15 de esta ley y así se haya declarado mediante resolución judicial firme.

d) El diseño solicitado sea incompatible con un diseño protegido en España en virtud de una solicitud o de un registro que tenga una fecha de presentación o de prioridad anterior, pero que haya sido hecho accesible al público después de la fecha de presentación o de prioridad del diseño posterior.

e) El diseño suponga un uso indebido de algunos de los elementos que figuran en el artículo 6 ter del Convenio de París, o de distintivos, emblemas y blasones distintos de los contemplados en el artículo 6 ter, que sean de interés público como el escudo, la bandera y otros emblemas de España, sus comunidades autónomas, sus municipios, provincias u otras entidades locales, a menos que medie la debida autorización.

f) El diseño incorpore una marca u otro signo distintivo anteriormente protegido en España cuyo titular tenga derecho, en virtud de dicha protección, a prohibir el uso del signo en el diseño registrado.

g) El diseño suponga un uso no autorizado de una obra protegida en España por un derecho de propiedad intelectual.

### TÍTULO III

#### TITULARIDAD DEL DISEÑO

##### **Artículo 14. Derecho al registro**

1. El derecho a registrar el diseño pertenece al autor o a su causahabiente.

2. Cuando el diseño haya sido realizado por varias personas conjuntamente, el derecho a registrar el diseño pertenecerá en común a todas ellas en la proporción que determinen.

En defecto de pacto contractual al respecto, y sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 58 de esta ley, se aplicarán las normas establecidas en el Código Civil para la comunidad de bienes.

a) Diseinu gisa eskatutakoa ez badator bat lege honetan halakotzat definitutakoarekin.

b) Diseinuak ez baditu betetzen lege honen 5. artikulutik 12.era bitarte-koetan ezarritako babes-betekizunak.

c) Eskatzaileak ez badu erregistroa lortzeko eskubiderik lege honen 14. eta 15. artikuluen arabera, eta hala deklaratu bada ebazpen judizial irmo baten bidez.

d) Eskatutako diseinua bateraezina bada Espainian babestutako diseinu batekin, lehenagoko aurkezpen- edo lehentasun-data duen eskaera edo erregistro baten arabera, baina diseinuaren aurkezpen- edo lehentasun-data geroagoko batean jarri bada jendearentzat eskuragarri.

e) Diseinuak behar ez bezala erabiltzea Parisko Hitzarmenaren 6 ter artikuluan agertzen diren elementuetako batzuk, edo 6 ter artikuluan aipatzen direnez bestelako bereizgarriak, ikurrak eta blasoiak, interes publikokoak direnak, hala nola Espainiaren, autonomia-erkidegoen, udalerrien, probintzien edo bestelako toki-erakundeen armarrria, bandera eta beste ikur batzuk, behar den baimena izan ezean.

f) Diseinuak Espainian lehendik babestuta dagoen marka edo ikur bereizgarriren bat izatea, eta haren titularrak, babes horren arabera, erregistratutako diseinuan zeinua erabiltzea debekatzeko eskubidea izatea.

g) Diseinuak baimenik gabe erabiltzea jabetza intelektualeko eskubide baten bidez Espainian babestutako lan bat.

### III. TITULUA

#### DISEINUAREN TITULARTASUNA

##### 14. artikulua. Erregistratzeko eskubidea

1. Diseinua erregistratzeko eskubidea egilearena edo haren kausadunarena da.

2. Pertsona batek baino gehiagok egina denean, diseinua erregistratzeko eskubidea denen artean banatuko da, erabakitzen duten proportzioan.

Horri buruzko kontraturik egin ezean, eta lege honen 58. artikuluan xedatutakoa galarazi gabe, Kode Zibilean ondasun-erkidegoetarako ezarritako arauak aplikatuko dira.

3. Si un mismo diseño ha sido creado por distintas personas de forma independiente, el derecho a registrar el diseño pertenecerá a aquél cuya solicitud de registro tenga una fecha anterior de presentación en España, siempre que dicho registro llegue a ser concedido.

4. En los procedimientos ante la Oficina Española de Patentes y Marcas se presumirá que el solicitante tiene derecho a registrar el diseño.

#### **Artículo 15. Diseños creados en el marco de una relación de empleo o de servicios**

Cuando el diseño haya sido desarrollado por un empleado en ejecución de sus funciones o siguiendo las instrucciones del empresario o empleador, o por encargo en el marco de una relación de servicios, el derecho a registrar el diseño corresponderá al empresario o a la parte contractual que haya encargado la realización del diseño, salvo que en el contrato se disponga otra cosa.

#### **Artículo 16. Reivindicación de la titularidad del diseño solicitado o registrado**

1. Si el diseño hubiere sido solicitado o registrado por quien no tenía derecho a su registro según los artículos 14 o 15, la persona legitimada conforme a dichos artículos podrá reivindicar que le sea reconocida y transferida la titularidad registral, sin perjuicio de cualesquiera otros derechos o acciones que pudieran corresponderle.

También podrá quien tuviere derecho a la cotitularidad del diseño reivindicar su reconocimiento e inscripción como cotitular en el Registro de Diseños.

2. Las acciones encaminadas al reconocimiento de los derechos mencionados en el apartado anterior deberán ejercitarse antes de que transcurran tres años contados desde la fecha de publicación del registro del diseño en el «Boletín Oficial de la Propiedad Industrial». Este plazo no será aplicable cuando la persona no legitimada haya actuado de mala fe al solicitar el registro o al adquirir los derechos reivindicados.

#### **Artículo 17. Efectos de la presentación de la demanda**

1. Presentada la demanda ejercitando la acción a que se refiere el artículo anterior, no podrá ser retirada la solicitud de registro del diseño sin el consentimiento del demandante.

3. Diseinu bera pertsona desberdinek modu independentean sortu bada, diseinua erregistratzeko eskubidea Espainian lehenik aurkeztutako erregistro-eskaera duen pertsonarena izango da, betiere erregistro hori onartzen bada.

4. Patente eta Marken Espainiako Bulegoaren aurreko prozeduretan, pre-suntzio egingo da eskatzaileak diseinua erregistratzeko eskubidea duela.

### **15. artikulua. Enplegu- edo zerbitzu-harreman baten esparruan sortutako diseinuak**

Diseinua langile batek egin badu bere eginkizunak betetzeko edo enpresari edo enplegatailearen jarraibideei jarraituz, edo zerbitzu-harreman baten esparruan enkarguz, diseinua erregistratzeko eskubidea diseinua egitea eskatu duen enpresariari edo kontratu-alderdiari dagokio, kontratuan besterik xedatzen ez bada.

### **16. artikulua. Eskatutako edo erregistratutako diseinuaren titulartasuna errebindikatzea**

1. Diseinua 14. edo 15. artikuluen arabera erregistratzeko eskubiderik ez duen norbaitek eskatu edo erregistratu badu, artikuluko horien arabera legitimatutako pertsonak eska dezake erregistroko titulartasuna aitortu eta eskualdatzea, hargatik eragotzi gabe legokiokeen beste edozein eskubide edo akzio.

Halaber, diseinuaren titularkidetasuna izateko eskubidea duenak eskatzen ahalko du Diseinuen Erregistroan titularkide gisa aitortzea eta inskribatzea.

2. Aurreko apartatuan aipatutako eskubideak aitortzeko akzioak hiru urte igaro baino lehen baliatu beharko dira, diseinuaren erregistroa Jabetza Industrialaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik. Epe hori ez da aplikatzekoa izango legitimatu gabeko pertsonak fede txarrez jokatu badu erregistroa eskatzean edo errebindikatzeko diren eskubideak eskuratzean.

### **17. artikulua. Demanda aurkeztearen ondorioak**

1. Aurreko artikuluan aipatzen den akzioa baliatuz demanda aurkeztuz gero, ezin izango da diseinua erregistratzeko eskaera kendu demandatzailearen onespenez gabe.

2. En el Registro de Diseños se anotará a instancia de parte interesada la presentación de la demanda, así como la sentencia firme o cualquier otra forma de terminación del procedimiento iniciado en virtud de dicha demanda.

### **Artículo 18. Efectos de la sentencia sobre el registro**

1. Cuando se produzca un cambio total en la titularidad del derecho sobre el diseño registrado en ejecución de una resolución recaída en el procedimiento al que se refiere el artículo anterior, las licencias y demás derechos de terceros sobre el diseño registrado se extinguirán con la inscripción en el Registro de Diseños del legítimo titular.

2. Tanto el titular anterior del registro, como el titular de una licencia obtenida antes de la inscripción de la presentación de la demanda judicial, que con anterioridad a esa misma inscripción hayan explotado el diseño en España, o hayan hecho preparativos efectivos y reales con esa finalidad, podrán continuar o comenzar la explotación siempre que dentro del plazo de dos meses desde la inscripción si se trata del titular anterior, o desde que el titular de la licencia hubiere recibido notificación de la Oficina Española de Patentes y Marcas comunicándole la inscripción, soliciten una licencia no exclusiva al nuevo titular inscrito. La licencia deberá ser concedida para un período adecuado y en unas condiciones razonables.

3. Lo dispuesto en el apartado anterior no será de aplicación si el titular anterior del derecho o el titular de la licencia actuaron de mala fe en el momento en que comenzaron la explotación del diseño o los preparativos para hacerlo.

### **Artículo 19. Mención del autor**

El autor tiene derecho a ser mencionado como tal en la solicitud, en el Registro y en la publicación del diseño registrado. Si el diseño ha sido creado en equipo la mención del equipo podrá sustituir a la de los autores.

2. Diseinuen Erregistroan, alderdi interesdunak eskaturik, jasoko da demanda aurkeztu dela, eta halaber epai irmoa edo demanda horren ondorioz hasitako prozedura amaitzeko beste edozein modu ere.

## **18. artikulua. Epaiak erregistroaren gainean dituen ondorioak**

1. Aurreko artikuluan aipatutako prozeduran emandako ebazpen baten ondorioz erabat aldatzen bada erregistratutako diseinuaren gaineko eskubidearen titulartasuna, erregistratutako diseinuaren gaineko hirugarrenen lizentziak eta gainerako eskubideak iraungi egingo dira titular legitimoa Diseinuen Erregistroan inskribatzean.

2. Bai erregistroaren aurreko titularrak, bai demanda judizialaren aurkezpenera inskribatu aurretik lortutako lizentziaren titularrak, baldin eta inskripzio hori baino lehen diseinua Espainian ustiatu badute, edo xede horretarako benetako prestakizunak egin badituzte, ustiatzen jarraitu ahal izango dute edo ustiatzen hasi ahal izango dira, betiere inskribatutako titular berriari lizentzia ez-esklusibo bat eskatzen badiote bi hilabeteko epean, inskripzioa egiten denetik hasita, aurreko titularra bada, edo lizentziaren titularrak Patente eta Marken Espainiako Bulegoak inskripzioaren berri ematen duen jakinarazpena jasotzen duenetik. Lizentzia aldi egoki baterako eta arrazoizko baldintza batzuetan eman beharko da.

3. Aurreko apartatuan xedatutakoa ez da aplikatzekoa izango baldin eta eskubidearen aurreko titularrak edo lizentziaren titularrak fede txarrez jokatu bazuten diseinuaren ustiapena edo hartarako prestakizunak hasi zituztenean.

## **19. artikulua. Egilearen aipamena**

Egileak eskubidea du halakotzat aipatua izateko eskabidean, erregistroan eta erregistratutako diseinuaren argitalpenean. Diseinua taldean sortu bada, taldearen aipamenak ordeztu ahal izango du egileena.

TÍTULO IV  
SOLICITUD Y PROCEDIMIENTOS  
DE REGISTRO Y OPOSICIÓN

CAPÍTULO I

Solicitud de registro y fecha de presentación

**Artículo 20. Presentación de la solicitud**

1. La solicitud de registro de diseño se presentará en el órgano competente de la comunidad autónoma donde el solicitante tenga su domicilio o un establecimiento industrial o comercial serio y efectivo.

2. Los solicitantes domiciliados en las ciudades de Ceuta y Melilla presentarán su solicitud en la Oficina Española de Patentes y Marcas.

3. Los solicitantes no domiciliados en España presentarán la solicitud en la Oficina Española de Patentes y Marcas.

4. También podrá presentarse la solicitud en el órgano competente de la comunidad autónoma donde el representante del solicitante tuviera su domicilio legal o una sucursal seria y efectiva.

5. Podrán también presentarse las solicitudes ante la Oficina Española de Patentes y Marcas si el solicitante o su representante lo solicitaran a través de un establecimiento comercial o industrial serio y efectivo que no tuviera carácter territorial.

6. El órgano competente para recibir la solicitud hará constar, en el momento de su recepción, el número de la solicitud y el día, la hora y el minuto de su presentación, en la forma que reglamentariamente se determine.

7. El órgano competente de la comunidad autónoma que reciba la solicitud remitirá a la Oficina Española de Patentes y Marcas, dentro de los cinco días siguientes al de su recepción, los datos de la solicitud en la forma y con el contenido que reglamentariamente se determinen.

8. La solicitud de registro del diseño también podrá presentarse en los lugares previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, dirigida al órgano que, conforme a lo establecido en los apartados anteriores, resulte competente para recibir la solicitud.



IV. TITULUA  
ERREGISTRATZEKO ETA AURKA EGITEKO  
ESKAERA ETA PROZEDURAK

I. KAPITULUA

**Erregistratzeko eskaera eta aurkezpen-data**

**20. artikulua. Eskaera aurkeztea**

1. Diseinua erregistratzeko eskaera eskatzaileak helbidea edo industria- zein merkataritza-establezimendu serio eta egiazkoa duen autonomia-erkidegoko organo eskuduneari aurkeztuko da.

2. Helbidea Ceuta eta Melillako hirietan duten eskatzaileek Patente eta Marken Espainiako Bulegoan aurkeztuko dute eskaera.

3. Helbidea Espainian ez duten eskatzaileek Patente eta Marken Espainiako Bulegoan aurkeztuko dute eskaera.

4. Eskatzailearen ordezkariak legezko helbidea edo sukurtsal serio eta egiazkoa duen autonomia-erkidegoko organo eskuduneari ere aurkeztu ahal izango da eskaera.

5. Patente eta Marken Espainiako Bulegoan ere aurkeztu ahal izango dira eskaerak, eskatzaileak edo haren ordezkariak lurralde-izaera ez duen merkataritza- edo industria-establezimendu serio eta egiazko baten bitartez egiten badute eskaera.

6. Eskaera jasotzeko eskudun den organoak, eskaera jasotzen duen unean, eskaeraren zenbakia eta aurkeztu den eguna, ordua eta minutua jasoko ditu, erregelamenduz zehazturiko moduan.

7. Eskaera jasotzen duen autonomia-erkidegoko organo eskudunak Patente eta Marken Espainiako Bulegoari igorriko dizkio, eskaera jaso eta hurrengo bost egunen barruan, haren datuak, erregelamenduak zehazten duen moduan eta edukiarekin.

8. Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako tokietan ere aurkeztu ahal izango da marka erregistratzeko eskaera, aurreko zenbakietan ezarritakoaren arabera hura jasotzeko eskudun den organoari zuzendua.

9. Tanto la solicitud como los demás documentos que hayan de presentarse en la Oficina Española de Patentes y Marcas deberán estar redactados en castellano. En las comunidades autónomas donde exista también otra lengua oficial, dichos documentos, además de en castellano, podrán redactarse en dicha lengua.

## **Artículo 21. Requisitos de la solicitud**

1. La solicitud de registro del diseño deberá contener:

- a) Una instancia en la que se solicite el registro del diseño.
- b) La identificación del solicitante.
- c) Una representación gráfica del diseño apta para ser reproducida.
- d) La indicación de los productos a los que se vaya a aplicar el diseño.
- e) La identificación del agente o representante, en su caso.

2. La solicitud podrá contener además:

- a) Una descripción explicativa de la representación del diseño.
- b) La petición de que se aplaze la publicación del diseño de acuerdo con lo previsto en el artículo 32 de esta ley.
- c) La clasificación de los productos a los que vaya a aplicarse el diseño conforme a la última versión de la clasificación de dibujos y modelos prevista en el anexo al Acuerdo por el que se establece una clasificación internacional de dibujos y modelos industriales, firmado en Locarno el 8 de octubre de 1968, denominado en lo sucesivo Arreglo de Locarno.
- d) La reivindicación de prioridad, con las indicaciones que se determinarán reglamentariamente.
- e) La mención del autor o del equipo de autores o la declaración, hecha por el solicitante y bajo su responsabilidad, de que el autor o el equipo de autores ha renunciado a su derecho a ser mencionado.

3. La solicitud de registro dará lugar al pago de la tasa establecida en el anexo de esta ley. Con la solicitud se acompañará el justificante de haber satisfecho dicha tasa.

4. La solicitud de registro deberá cumplir los demás requisitos que se establezcan reglamentariamente.

5. La información a la que se refieren los apartados 1, párrafo d), y 2, párrafos a) y c), no condicionará el alcance de la protección reconocida al diseño como tal.

9. Hala eskaerak nola Patente eta Marken Espainiako Bulegoan aurkeztu beharreko gainerako agiriak gaztelaniaz idatzita egon beharko dute. Beste hizkuntza ofizial bat ere baden autonomia-erkidegoetan, hizkuntza hartan idatzi ahal izango dira agiriok, gaztelaniaz gainera.

## 21. artikulua. Eskaeraren betekizunak

1. Diseinua erregistratzeko eskaeran, hauek adierazi beharko dira:

- a) Diseinua erregistratzea eskatzeko eskari-orria.
- b) Eskatzailearen identifikazioa.
- c) Diseinuaren irudikapen grafikoa, erreproduzitzeko egokia.
- d) Zein produkturi aplikatuko zaien diseinua.
- e) Nor den agentea edo, hala badagokio, ordezkaria.

2. Eskaeran, aurrekoen gain, honako hauek adieraz daitezke:

- a) Diseinuaren irudikapena azaltzen duen deskribapen bat.
- b) Lege honen 32. artikuluan aurreikusitakoaren arabera diseinuaren argitalpena atzeratzeko eskaera.
- c) Diseinua aplikatuko zaien produktuen sailkapena, marrazki eta eredu sailkapenaren azken bertsioaren arabera. Sailkapen hori Locarnon 1968ko urriaren 8an sinatu zen marrazki eta eredu industrialen nazioarteko sailkapena ezarri zuen Akordioaren eranskinean ezarri zen (aurrerantzean, Locarnoko Konponketa deituko zaio).
- d) Lehentasuna errebendikatzea, erregelamenduz zehaztuko diren jarraibideekin.
- e) Egilea edo egile-taldea aipatzea, edo eskatzaileak adierazpen bat egitea, bere erantzukizunpean, autoreak edo egile-taldeak uko egin diola aipatua izateko eskubideari.

3. Erregistratzeko eskaerak lege honen eranskinean ezarritako tasa ordaindu beharra ekarriko du. Eskabidearekin batera, tasa ordaindu izanaren frogagiria aurkeztuko da.

4. Erregistro-eskaerak erregelamenduz ezartzen diren gainerako betekizunak bete beharko ditu.

5. 1. apartatuaren d) paragrafoan eta 2. apartatuaren a) eta c) paragrafoetan aipatzen den informazioak ez du baldintzatuko diseinuari berari aitortua zaien babesaren irismena.

## **Artículo 22. Solicitudes múltiples**

1. La solicitud de registro podrá comprender varios diseños, hasta un máximo de 50, siempre que se refieran a productos pertenecientes a la misma clase de la Clasificación Internacional de Dibujos y Modelos Industriales establecida por el Arreglo de Locarno. Esta última limitación no regirá en el caso de ornamentaciones bidimensionales.

2. Además de la tasa de solicitud de registro, mencionada en el apartado 3 del artículo precedente, la solicitud múltiple dará lugar al pago de las tasas suplementarias por los diseños adicionales incluidos en ella, establecidas en el anexo de esta ley.

3. La solicitud múltiple deberá cumplir los requisitos que se establezcan reglamentariamente. En particular, deberá incluirse una representación de cada uno de los diseños, con indicación de los productos a los que se apliquen, conforme a lo dispuesto en los párrafos c) y d) del apartado 1 del artículo 21.

4. Los derechos derivados de los diseños comprendidos en una solicitud o en un registro múltiple serán independientes unos de otros y podrán ser ejercitados, transferidos, gravados, renovados o cancelados separadamente. También podrán ser objeto de licencias, opciones de compra, embargos u otras medidas que resulten del procedimiento de ejecución. Cuando por transferencia u otro título se produzca un cambio total en la titularidad de alguno o algunos de los diseños solicitados o registrados, cualquiera de las partes podrá solicitar la división de la solicitud o del registro múltiple, desglosándose del mismo los diseños o variantes afectadas en una solicitud o registro independiente a nombre del nuevo titular.

## **Artículo 23. Fecha de presentación de la solicitud**

1. La fecha de presentación de la solicitud será la del momento en que el órgano competente para recibir la solicitud, conforme a lo previsto en los apartados 1, 2, 3 y 4 del artículo 20, reciba la documentación que contenga los elementos mencionados en los párrafos a), b) y c) del apartado 1 del artículo 21.

2. La fecha de presentación de las solicitudes depositadas en una oficina de correos será la del momento en que dicha oficina reciba la documentación que contenga los elementos mencionados en los párrafos a), b) y c) del apartado 1 del artículo 21, siempre que sean presentadas en sobre abierto, por correo certificado y con acuse de recibo, dirigido al órgano competente para recibir la solicitud. La oficina de correos hará constar el día, hora y minuto de su presentación.

## 22. artikulua. Eskaera anizkunak

1. Erregistratzeko eskaeraren barruan sar daitezke hainbat diseinu, 50e-raino, betiere mota bereko produktuenak badira, Locarnoko Adostasunak ezarritako Marrazki eta Eredu Industrialen Nazioarteko Sailkapenaren barruan. Muga hori ez da aplikatuko bi dimentsioko apainduretan.

2. Aurreko artikuluko 3. apartatuan aipatutako erregistro-eskaeraren tasaz gain, eskaera anizkoitzak hartan sartutako diseinu gehigarriei dagozkien tasa osagarriak ordainduko ditu, lege honen eranskinen ezarriak.

3. Eskaera anizkoitzak erregelamenduz ezartzen diren gainerako betekizunak bete beharko ditu. Bereziki, diseinu bakoitzaren irudikapen bat sartu beharko da, eta zein produkturi aplikatzen zaizkion adierazi, 21. artikuluen 1. apartatuko c) eta d) paragrafoetan xedatutakoaren arabera.

4. Eskaera edo erregistro anizkoitz bateko diseinuen ondoriozko eskubiak bata bestearengandik independenteak izango dira, eta berezita baliatu, eskualdatu, kargatu, berritu edo ezereztu ahal izango dira. Orobat, haien gaineko lizentziak eman ahal izango dira, erosteko aukerak, enbargoak, edo exekuzio-prozeduraren ondoriozko bestelako neurriak. Transferentzia edo beste titulu baten bidez erabat aldatzen bada eskatutako edo erregistratutako diseinuren baten edo batzuen titulartasuna, alderdietako edozeinek eskatu ahal izango du eskaera edo erregistro anizkoitza zatitzeko, hartatik bereiziz dira titular berriaren izeneko eskaera edo erregistro independente batean sartutako diseinu edo aldaerak.

## 23. artikulua. Eskaeraren aurkezpen-data

1. Eskaeraren aurkezpen-data hau izango da: eskaera jasotzeko eskudun den organoak, 20. artikuluen 1., 2., 3. eta 4. apartatuetan aurreikusitakoaren arabera, 21. artikuluen 1. apartatuko a), b) eta c) apartatuetan aipatutako elementuak dituen dokumentazioa jasotzen den unekoa.

2. Posta-bulego baten bitartez bidalitako eskaeren aurkezpen-data bulego horrek 21. artikuluen 1. apartatuko a), b) eta c) letretan aurreikusitako elementuak dituen dokumentazioa jasotzen duen unekoa izango da, betiere agiriak gutunazal irekian aurkezten badira, posta ziurtatuaren bidez eta jasotze-agiriarekin, eskaera jasotzeko eskudun den organoari zuzendurik. Posta-bulegoak eskaera aurkeztu den eguna, ordua eta minutua jasoko ditu.

3. Si alguno de los órganos o unidades administrativas a que se refieren los apartados anteriores no hubieran hecho constar, en el momento de la recepción de la solicitud, la hora de su presentación se le asignará la última hora del día. Si no se hubiese hecho constar el minuto se le asignará el último minuto de la hora.

#### **Artículo 24. Derecho de Prioridad Unionista**

1. Quienes hayan presentado regularmente una primera solicitud de registro del diseño en o para alguno de los Estados miembros del Convenio de París o del Acuerdo por el que se crea la Organización Mundial del Comercio, o sus causahabientes, gozarán, para la presentación en España de una solicitud de registro del mismo diseño, de un derecho de prioridad de seis meses en las condiciones establecidas en el artículo 4 del Convenio de París. El mismo plazo regirá cuando se invoque un derecho de prioridad basado en una solicitud de modelo de utilidad anterior.

2. Tendrán el mismo derecho de prioridad quienes hubieren presentado una primera solicitud de protección del mismo diseño en un Estado u organización internacional no mencionado en el apartado 1, que reconozca a las solicitudes de registro de diseños presentadas en España un derecho de prioridad en condiciones y con efectos equivalentes a los previstos en el Convenio de París.

3. El solicitante que reivindique la prioridad de una solicitud anterior deberá presentar, en la forma y plazos que reglamentariamente se establezcan, una declaración de prioridad y una copia, certificada por la oficina de origen, de la solicitud anterior, acompañada de su traducción al castellano, cuando esa solicitud esté redactada en otro idioma. La reivindicación de prioridad implicará el pago de la tasa correspondiente.

4. No será sin embargo necesaria la presentación de la copia de la solicitud anterior ni de la traducción cuando la reivindicación de prioridad no se considere relevante para determinar la validez del diseño registrado o la solicitud anterior o su traducción obren ya en poder de la Oficina Española de Patentes y Marcas o estén disponibles en una biblioteca o base de datos digital.

#### **Artículo 25. Prioridad de exposición**

1. El solicitante del registro de un diseño que hubiera exhibido productos que incorporen el diseño en una exposición oficial o reconocida oficialmente podrá reivindicar la prioridad de la fecha de la primera presentación de dichos productos en la exposición, siempre que la solicitud de registro del diseño se presente en el plazo de seis meses a partir de aquella fecha.

3. Aurreko apartatueta aipatzen diren organo edo administrazio-unitateetako bategi aurkezpen-ordua jaso ez bada eskaera hartu duen unean, egunaren azken ordua esleituko zaio eskaerari. Minutua jaso ez bada, orduaren azken minutua esleituko zaio.

#### **24. artikulua. Batasuneko lehentasun-eskubidea**

1. Diseinu bat erregistratzeko lehen eskaera bat Parisko Hitzarmeneko edo Merkataritzaren Mundu Erakundea eratzten duen Akordioko kide den estatu batean edo baterako aurkeztu dutenek, edo haien kausadunek, sei hilabeteko lehentasun-eskubidea izango dute Espainian diseinu bera erregistratzeko eskaera aurkezteko, Parisko Hitzarmenaren 4. artikuluan ezarritako baldintzetan. Epe hori bera izango da lehenagoko baliagarritasun-ereduko eskaeran oinarritutako lehentasun-eskubide bat alegatzen denean.

2. Diseinu bera babesteko lehenengo eskaera 1. apartatuan aipatzen ez diren estatu edo nazioarteko erakunde batean aurkeztu dutenek ere lehentasun-eskubide bera izango dute, baldin eta estatu zein erakunde horiek lehentasun-eskubide bat aitortzen badiete Espainian aurkezturiko diseinua erregistratzeko eskaerei, Parisko Hitzarmenean aurreikusitako bereko baldintzetan eta efektuekin.

3. Aurretiazko eskaera baten lehentasuna errebindikatzeko eskatzaileak lehentasun-deklarazio bat eta aurretiazko eskaera egindako bulegoak ziurtaturiko kopia bat aurkeztu beharko ditu erregelamenduz ezarritako modu eta epeetan, bai eta haren gaztelaniazko itzulpena ere, eskaera beste hizkuntza batean idatzita dagoenean. Lehentasuna errebindikatzeko berekin dakar dagokion tasa ordaintzea.

4. Hala ere, ez da beharrezkoa izango aurreko eskaeraren kopia aurkeztea, ez eta itzulpenarena ere, baldin eta lehentasun-errebindikazioa ez bada garrantzitsutzat jotzen erregistratutako diseinuaren baliozkotasuna erabakitzeke, edo aurreko eskaera edo haren itzulpena Patente eta Marken Espainiako Bulegoaren esku edo liburutegi edo datu-base digital batean badaude.

#### **25. artikulua. Erakusketa-lehentasuna**

1. Diseinu baten erregistroaren eskatzaileak, diseinu hori beren barruan daramaten produktuak erakutsi baditu erakusketa ofizial edo ofizialki onartu batean, produktu horiek lehen aldiz erakusketan aurkeztu zireneko dataren lehentasuna aldarrikatu ahal izango du, betiere data hartatik sei hilabeteko epean aurkezten bada diseinua erregistratzeko eskaera.

2. El solicitante que desee reivindicar la prioridad prevista en el apartado 1 deberá justificar, en el plazo reglamentariamente establecido, que los productos que incorporen el diseño se presentaron en la exposición en la fecha invocada. La reivindicación de prioridad implica el pago de la tasa correspondiente.

3. En ningún caso la prioridad de exposición prolongará el plazo de prioridad previsto en el artículo 4.C.1) del Convenio de París.

## **Artículo 26. Efectos del derecho de prioridad**

En virtud del derecho de prioridad se considerará como fecha de presentación en España de la solicitud de registro, a los efectos de lo dispuesto en los artículos 6, 7, 9 ; párrafo d) del artículo 13, apartado 3 del artículo 14 y del apartado 1 del artículo 50, la fecha de presentación de la solicitud anterior cuya prioridad haya sido válidamente reivindicada.

## **CAPÍTULO II**

### **Procedimiento de registro**

#### **Artículo 27. Examen de admisibilidad y de forma**

1. El órgano competente para recibir la solicitud, conforme a lo previsto en el artículo 20 examinará:

- a) Si la solicitud de registro de diseño cumple los requisitos para que se le otorgue una fecha de presentación.
- b) Si se han satisfecho las tasas de solicitud que correspondan.
- c) Si el solicitante está legitimado para solicitar el registro de diseño, conforme al artículo 4 de esta ley.
- d) Si la solicitud de registro reúne los demás requisitos formales previstos en el artículo 21.

2. Si del examen resulta que la solicitud presenta alguna irregularidad, se suspenderá la tramitación del expediente y se requerirá al interesado para que en el plazo reglamentariamente establecido subsane la falta o formule, en su caso, las alegaciones pertinentes, advirtiéndole de los efectos de la falta de subsanación.

3. Si la irregularidad consistiera en la falta de alguno de los requisitos o datos necesarios para obtener una fecha de presentación, se otorgará la del día en



2. Artikulu honen 1. apartatuan aurreikusitako lehentasuna aldarrikatu nahi duen eskatzaileak justifikatu beharko du, erregelamenduz ezartzen diren epean, diseinua barnean daramaten produktuak alegaturiko datan aurkeztu zirela erakusketan. Lehentasuna errebindikatzek berekin dakar dagokion tasa ordaintzea.

3. Erakusketa-lehentasunak ez du ezein kasutan luzatuko Parisko Hitzarremenaren 4.C.1) artikuluan aurreikusitako lehentasun epea.

## **26. artikulua. Lehentasun-eskubidearen efektuak**

Lehentasun-eskubidearen arabera, erregistro-eskaera Espainian aurkezten den datatzat hartuko da, 6., 7. eta 9. artikuluetan, 13. artikuluko d) paragrafoan, 14. artikulua 3. apartatuaren eta 50. artikulua 1. paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, beraren lehentasuna balioz aldarrikatu den lehenagoko eskaera aurkezten den eguna.

## II. KAPITULUA

### **Erregistratzeko prozedura**

## **27. artikulua. Onargarritasunaren eta formaren azterketa**

1. Lege honen 20. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eskaera jasotzeko eskudun den organoak hauek aztertuko ditu:

- a) Ea diseinua erregistratzeko eskaerak betetzen dituen aurkezpen-data bat emateko betekizunak.
- b) Ea dagozkion eskaera-tasak ordaindu diren.
- c) Ea eskatzailea legitimaturik dagoen diseinu bat erregistratzea eskatzeko, lege honen 4. artikulua arabera.
- d) Ea erregistro-eskaerak betetzen dituen 21. artikuluan aurreikusitako gainerako betekizun formalak.

2. Azterketan ikusten bada eskaerak irregularitasunen bat duela, espedientearen izapidetzea bertan behera utziko da, eta interesdunari errekerimendua egingo zaio erregelamenduzko epean akatsa zuzentzeko edo, hala badagokio, dagozkion alegazioak egiteko; errekerimenduan, ohartaraziko zaio zer ondorio izango dituen akatsak ez zuzentzeak.

3. Aurkezpen-data lortzeko behar diren betekizunetakoren bat ez betetzea bada irregularitasuna, irregularitasun hori zuzentzen den eguna emango da aur-

que se subsane la irregularidad. Si la irregularidad no se subsana en plazo, la solicitud no será admitida a trámite.

4. Si la irregularidad consistiera en la falta de pago de las tasas de solicitud, y transcurrido el plazo para subsanarla no se hubieran abonado dichas tasas en su totalidad, se continuará la tramitación respecto de los diseños cuyas tasas hayan sido totalmente pagadas, siguiendo el orden de la solicitud.

5. Transcurrido el plazo mencionado en el apartado 2 sin que el interesado haya contestado, el órgano competente resolverá motivadamente, teniendo por desistida la solicitud. Se procederá del mismo modo cuando, a juicio del órgano competente, las irregularidades no hubieran sido debidamente subsanadas.

6. No se producirá el efecto previsto en el apartado 5 cuando se haya pedido el aplazamiento de la publicación y las irregularidades no subsanadas afecten exclusivamente a los requisitos formales exigidos para la publicación del diseño. En este caso la irregularidad no afectará a la continuación del procedimiento, aplicándose lo previsto en el artículo 32.

7. Cuando las irregularidades mencionadas en los apartados anteriores afecten sólo a una parte de los dibujos o modelos incluidos en una solicitud de registro múltiple, los efectos de la falta de subsanación se producirán únicamente respecto de los diseños a los que afecte.

## **Artículo 28. Remisión de la solicitud**

1. El órgano competente de la comunidad autónoma remitirá a la Oficina Española de Patentes y Marcas, con todo lo actuado, las solicitudes que hubieran superado el examen de forma con indicación, en su caso, de la fecha de presentación otorgada. La remisión del expediente a la Oficina Española de Patentes y Marcas se notificará a los solicitantes por el órgano obligado a realizarla.

2. Las solicitudes que hubieran sido tenidas por desistidas, serán notificadas a la Oficina Española de Patentes y Marcas una vez que la resolución sea firme, con indicación de su fecha de adopción. Si la resolución hubiera sido impugnada, también se notificará esta circunstancia.

## **Artículo 29. Examen de oficio**

1. Superado el examen de forma y, en su caso, recibida la solicitud remitida por el órgano competente de la comunidad autónoma, la Oficina Española de Patentes y Marcas examinará de oficio:

kezpen-datatzat. Irregularitasuna epean zuzentzen ez bada, eskaera ez da izapidetzeko onartuko.

4. Irregularitasuna eskaera-tasak ordaindu ez izana bada eta zuzentzeko epea igarotakoan tasak osorik ordaindu ez badira, osorik ordainduak dituzten diseinuen izapideak egiten jarraituko da, eskaerako ordenari jarraituz.

5. Artikulu honen 2. apartatuan aipaturiko epea igarotakoan interesdu-nak erantzun ez badu, eskaeran atzera egin dela ebatziko du organo eskudunak, arrazoiturik. Modu berean jokatu da organo eskudunak irizten badio irregularitasunak ez direla behar bezala zuzendu.

6. Ez da 5. apartatuan aurreikusitako efektua gertatuko argitalpenaren gerorapena eskatu bada eta zuzendu ez diren irregularitasunek diseinua argitaratzeko eskatzen diren betekizun formalei soilik eragiten badiete. Kasu horretan, irregularitasunak ez du eraginik izango prozedurak jarraitzeko orduan, eta 32. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

7. Aurreko apartatuetan aipatutako irregularitasunek erregistro-eskaera anizkoitz batean sartutako marrazki edo ereduaren parte bati bakarrik eragiten badiote, ez zuzentzearen ondorioak diseinu horietan bakarrik izango dira.

## **28. artikulua. Eskaera igortzea**

1. Autonomia-erkidegoko organo eskudunak Patente eta Marken Espainiako Bulegoari igorriko dizkio, egindako egintzabide guztiekin, formaren azterketa gainditu duten eskaerak, eman zaien aurkezpen-data adieraziz, hala badagokio. Espedientea Patente eta Marken Espainiako Bulegora bidali dela jakinaraziko die, eskatzaileei, hura bidaltzeko betebeharra duen organoak.

2. Atzera egindakotzat jo diren eskaerak Patente eta Marken Espainiako Bulegoari jakinaraziko zaizkio ebazpena irmoa denean, erabakia hartu den data adieraziz. Ebazpena aurkaratu bada, hori ere jakinaraziko da.

## **29. artikulua. Ofiziozko azterketa**

1. Forma-azterketa gaindituta eta, hala badagokio, autonomia-erkidegoko organo eskudunak igorritako eskaera jasota, Patente eta Marken Espainiako Bulegoak ofizioz aztertuko du:

- a) Si el objeto de la solicitud constituye un diseño conforme a lo dispuesto en el apartado 2.a) del artículo 1 de esta Ley.
- b) Si el diseño cuyo registro se solicita es contrario al orden público o a las buenas costumbres.
- c) Si el diseño cuyo registro se solicita supone un uso indebido de alguno de los elementos mencionados en el párrafo e) del artículo 13 de esta Ley.

2. La Oficina Española de Patentes y Marcas comprobará también si la solicitud presenta algún defecto no percibido en trámites anteriores que imposibilitara la publicación del diseño, clasificará los productos a los que vaya a aplicarse, o revisará en su caso la clasificación realizada por el solicitante, y verificará si las solicitudes múltiples se ajustan a lo dispuesto en esta ley.

### **Artículo 30. Suspensión de la tramitación: desistimiento o denegación de la solicitud**

1. Si como resultado del examen de oficio resultara que la solicitud presenta irregularidades, o el objeto de la solicitud incurre en alguno de los motivos de denegación de registro mencionados en el artículo anterior, se suspenderá la tramitación, comunicándose al interesado los defectos observados para que, en el plazo reglamentariamente establecido, formule sus alegaciones o proceda, en su caso, a su subsanación.

2. Cuando el motivo de la suspensión se funde en la causa de denegación mencionada en el apartado 1, párrafo a), del artículo anterior, el solicitante podrá pedir que se transforme su solicitud de registro en una solicitud para la protección del objeto de aquélla bajo otra modalidad de la propiedad industrial, solicitándolo expresamente. En el caso de que el solicitante pida el cambio de modalidad, la Oficina Española de Patentes y Marcas acordará el cambio, y notificará al interesado los documentos que haya de presentar para la nueva tramitación a que haya de someterse la solicitud. La falta de presentación oportuna de la nueva documentación producirá la anulación del expediente.

3. Cuando el motivo de la suspensión se funde en la causa de denegación mencionada en el apartado 1, párrafo b), del artículo anterior, el solicitante podrá, para subsanar el defecto, modificar el diseño, siempre que se preserve su identidad sustancial. La modificación, que deberá consistir en la renuncia al elemento causante del reparo, deberá ir acompañada de la representación del diseño modificado en las condiciones que se determinen reglamentariamente.

- a) Eskabidearen xedea lege honen 1. artikuluko 2.a) apartatuan xedatutakoaren arabera diseinu bat den.
- b) Erregistratzea eskatzen den diseinua ordena publikoaren edo ohitura onen kontrakoa den.
- c) Erregistratzea eskatzen den diseinuak lege honen 13. artikulua e) paragrafoan aipatutako elementuren bat behar ez bezala erabiltzea dakarren.

En el caso de que se oferten artículos a precio normal y a precio reducido, unos y otros deberán estar suficientemente separados, de forma que no pueda, razonablemente, existir error entre los que son objeto de una u otra oferta, distinguiendo, en su caso, la existencia de rebajas, saldos, liquidaciones, promociones u obsequios.

## **Artículo 22. Venta multinivel**

1. La venta multinivel constituye una forma especial de comercio en la que un fabricante o un comerciante mayorista vende sus bienes o servicios a través de una red de comerciantes y/o agentes distribuidores independientes, pero coordinados dentro de una misma red comercial y cuyos beneficios económicos se obtienen mediante un único margen sobre el precio de venta al público, que se distribuye mediante la percepción de porcentajes variables sobre el total de la facturación generada por el conjunto de los vendedores integrados en la red comercial, y proporcionalmente al volumen de negocio que cada componente haya creado. A efectos de lo dispuesto en este artículo, los comerciantes y los agentes distribuidores independientes se considerarán en todo caso empresarios a los efectos previstos en el texto refundido de la Ley General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios y otras leyes complementarias.

2. Queda prohibido organizar la comercialización de bienes y servicios cuando:

- a) Constituya un acto desleal con los consumidores conforme a lo previsto en el artículo 26 de la Ley 3/1991, de 10 de enero, de Competencia Desleal.



## **20. artikulua. Prezio-murrizketaren konstantzia**

1. Prezio murriztuko artikulua eskaintzen diren bakoitzean, argi eta garbi adierazi behar dira, haietako bakoitzean, aurreko prezioa eta prezio murriztua, salbu eta lehen aldiz salgai jarritako artikuluen kasuan.

Aurreko prezioztat hartuko da aurreko hogeita hamar egunetan produktu berdinetan aplikatu den txikiena.

2. Ezein kasutan, salmentak sustatzeko jarduerak erabiltzea ez da baldintzatu ahal izango gutxieneko edo gehieneko portzentajezko murrizketa izatearekin.

## **21. artikulua. Eskainitako artikulua zehaztea**

Salgaiak prezio normalean eta prezio murriztuan eskaintzen badira, batzuek eta besteek behar bezala berezita egon behar dute, eskaintza batean edo bestean sartzen diren artean errakuntzarik izan ez dadin, eta, hala bada-gokio, berezi egon behar dira merkealdiak, saldoak, likidazioak, sustapenak edo opariak.

## **22. artikulua. Maila anitzeko salmenta**

1. Maila anitzeko salmenta merkataritza-modu berezi bat da zeinean fabrikatzaile batek edo handizkako merkataritza batek bere ondasunak edo zerbitzuak saltzen baititu merkatarien eta/edo agente banatzaile independente baina merkataritza-sare berean koordinatu batzuen bidez eta onura ekonomikoak publikoarentzako salmenta-prezioko marjina bakar baten bidez lortzen baitira, eta marjina hori banatzen baita merkataritza-sarean bildutako merkatariek batera sortutako fakturazioaren gaineko ehuneko aldakor batzuk jasoz, kide bakoitzak sortu duen negozio-bolumenarekiko proportzioan. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, merkataritza eta agente banatzaile independenteak enpresarizat hartuko dira beti, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bateginean aurreikusitako ondorioetarako.

2. Debekatuta dago ondasun eta zerbitzuen merkaturatzea antolatzea kasu hauetan:

- a) Kontsumitzaileekiko ekintza desleiala denean, Lehia Desleialari buruzko urtarrilaren 10eko 3/1991 Legearen 26. artikuluan ezarritakoan araberan.

- b) No se garantice adecuadamente que los distribuidores cuenten con la oportuna contratación laboral o cumplan con los requisitos que vienen exigidos legalmente para el desarrollo de una actividad comercial.
- c) Exista la obligación de realizar una compra mínima de los productos distribuidos por parte de los nuevos vendedores, sin pacto de recompra en las mismas condiciones.

4. En ningún caso el fabricante o mayorista titular de la red podrá condicionar el acceso a la misma al abono de una cuota o canon de entrada que no sea equivalente a los productos y material promocional, informativo o formativo entregados a un precio similar al de otros homólogos existentes en el mercado y que no podrán superar la cantidad que se determine reglamentariamente.

En los supuestos en que exista un pacto de recompra, los productos se tendrán que admitir a devolución siempre que su estado no impida claramente su posterior comercialización.

### **Artículo 23. Prohibición de ventas en pirámide**

Son prácticas de venta piramidal las previstas en el artículo 24 de la Ley 3/1991, de 10 de enero, de Competencia Desleal, siendo nulas de pleno derecho las condiciones contractuales contrarias a lo dispuesto en dicho precepto.

## **CAPÍTULO II**

### **Venta en rebajas**

#### **Artículo 24. Concepto**

1. Se entiende que existe venta en rebajas cuando los artículos objeto de la misma se ofertan, en el mismo establecimiento en el que se ejerce habitualmente la actividad comercial, a un precio inferior al fijado antes de dicha venta.

2. No cabe calificar como venta en rebajas la de aquellos productos no puestos a la venta en condiciones de precio ordinario con anterioridad, así como la de los productos deteriorados o adquiridos con objeto de ser vendidos a precio inferior al ordinario.

#### **Artículo 25. Temporada de rebajas**

1. Las ventas en rebajas podrán tener lugar en los periodos estacionales de mayor interés comercial según el criterio de cada comerciante.

- b) Ez denean behar bezala bermatzen banatzaileek dagokien lan-kontratazioa izatea edo merkataritza-jarduera bat garatzeko legez eskatzen diren baldintzak betetzea.
- c) Saltzaile berriek banatzen dituzten produktuen gutxienerako erosketa bat egiteko betebeharra dagoenean, baldintza berdinetan berrerosteko itunik gabe.

4. Sarearen titular den fabrikatzaile edo handizkariak ezin izango du, inola ere, sarera sartzeko baldintza gisa jarri sarrera-kuota edo -kanon bat ordaintzea baliokide ez dena merkatuan dauden beste homologoen antzeko prezioan entregatutako sustapen-, informazio- edo prestakuntza-produktu eta materialarekin, zeina ezin baita izan erregelamenduz ezarritako zenbatekoa baino handiagoa.

Berrerosteta-ituna baldin badago, produktuak itzultzeko onartu beharko dira, baldin eta haien egoerak argi eta garbi galarazten ez badu gero merkaturatzea.

### **23. artikulua. Piramidean saltzeko debekua**

Piramide-salmentako praktikak dira Lehia Desleialari buruzko urtarrilaren 10eko 3/1991 Legearen 24. artikuluan aurreikusitakoak, eta erabat deusezak izango dira artikulua horretan xedatutakoaren aurkako kontratuzko baldintzak.

## **II. KAPITULUA**

### **Merkealdiko salmenta**

#### **24. artikulua. Kontzeptua**

1. Merkealdiko salmenta egin dela jotzen da merkealdian sartzen diren artikulua salmenta horren aurretik finkatutako prezioa baino merkeago eskaintzen badira, ohiko merkataritza-jarduera egiten den establezimendu berean.

2. Ez da merkealdiko salmentatzat hartuko lehenago prezio arruntean salgai jarri ez diren produktuena, ez eta produktu hondatuena eta ohiko prezioetik behera saltzeko asmoz erosi diren produktuena ere.

#### **25. artikulua. Merkealdia**

1. Merkealdiko salmentak interes komertzial handieneko sasoiaren egiten ahalko dira, merkataria bakoitzaren irizpidearen arabera.

2. La duración de cada periodo de rebajas será decidida libremente por cada comerciante.

## **Artículo 26. Calidad de los productos rebajados**

### 1. (Anulado)

Téngase en cuenta que se declara la inconstitucionalidad y nulidad del apartado 1, en la redacción dada por el art. 28.4 del Real Decreto-ley 20/2012, de 13 de julio, por Sentencia TC 18/2016, de 4 de febrero. Ref. BOE-A-2016-2335.

Redacción anterior:

«Los artículos objeto de la venta en rebajas deberán haber estado incluidos con anterioridad y, durante el plazo mínimo de un mes, en la oferta habitual de ventas y no podrán haber sido objeto de práctica de promoción alguna en el curso del mes que preceda a la fecha de inicio de la venta en rebajas.»

2. Especialmente, queda prohibido ofertar, como rebajados, artículos deteriorados.

## **CAPÍTULO III**

### **Ventas de promoción**

## **Artículo 27. Concepto**

1. Se consideran ventas en promoción o en oferta aquellas no contempladas específicamente en otro de los capítulos del presente Título, que se realicen por precio inferior o en condiciones más favorables que las habituales, con el fin de potenciar la venta de ciertos productos o el desarrollo de uno o varios comercios o establecimientos.

### 2. (Anulado)

Téngase en cuenta que se declara la inconstitucionalidad y nulidad del apartado 2, en la redacción dada por el art. 28.5 del Real Decreto-ley 20/2012, de 13 de julio, por Sentencia TC 18/2016, de 4 de febrero. Ref. BOE-A-2016-2335.

Redacción anterior:

«Los productos en promoción no podrán estar deteriorados o ser de peor calidad que los mismos productos que vayan a ser objeto de futura oferta ordinaria a precio normal.»

2. Merkealdi bakoitzaren iraupena merkatari bakoitzak erabakiko du, libreki.

## **26. artikulua. Merkealdiko produktuen kalitatea**

### 1. (Deuseztua)

Kontuan izan 1. apartatua konstituzio-kontrako eta deusez deklaratu zuela, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 28.4 artikulua emandako idazketan, Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 4ko 18/2016 Epaiak. Erref.: BOE-A-2016-2335.

Aurreko idazketa:

«Merkealdiko salmentaren xede diren artikuluek salmenten ohiko eskaintzan sartuak beharko dute lehenago, gutxienez hilabeteko epean, eta ezin izango dira inolako sustapen-ekintzatan sartuak izan egin merkealdiko salmenta hasi aurreko hilabetean.»

2. Bereziki, galarazita dago merkealdiko gisa eskaintzea artikulua hondatuak.

## III. KAPITULUA

### Sustapeneko salmentak

## **27. artikulua. Kontzeptua**

1. Sustapeneko edo merkealdiko salmentatzat hartuko dira titulu hone-tako beste kapituluetan espresuki aipatzen ez direnak, ohikoak baino prezio merkeagoan edo baldintza hobetan egiten badira, produktu jakin batzuen salmenta edo denda edo establezimendu baten edo batzuen garapena bultzatzeko asmoz.

### 2. (Deuseztua)

Kontuan izan 2. apartatua konstituzio-kontrako eta deusez deklaratu zuela, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 28.5 artikulua emandako idazketan, Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 4ko 18/2016 Epaiak. Erref.: BOE-A-2016-2335.

Aurreko idazketa:

«Sustapenean dauden produktuak ezin izango dira hondatuak egon edo kalitate txarragoak izan aurrerantzean prezio arruntan eskainiko diren produktu berak baino.»

3. Será de aplicación a las ventas de promoción lo dispuesto en los artículos 33 y 34 de la presente Ley.

## CAPÍTULO IV

### Venta de saldos

#### Artículo 28. Concepto

1. Se considera venta de saldos la de productos cuyo valor de mercado aparezca manifiestamente disminuido a causa del deterioro, desperfecto, desuso u obsolescencia de los mismos, sin que un producto tenga esta consideración por el solo hecho de ser un excedente de producción o de temporada.

2. No cabe calificar como venta de saldos la de aquellos productos cuya venta bajo tal régimen implique riesgo o engaño para el comprador, ni la de aquellos productos que no se venden realmente por precio inferior al habitual.

#### Artículo 29. Deber de información

1. Las ventas de saldos deberán anunciarse necesariamente con esta denominación o con la de «venta de restos».

2. Cuando se trate de artículos deteriorados o defectuosos, deberá constar tal circunstancia de manera precisa y ostensible.

## CAPÍTULO V

### Ventas en liquidación

#### Artículo 30. Concepto

1. Se entiende por venta en liquidación la venta de carácter excepcional y de finalidad extintiva de determinadas existencias de productos que, anunciada con esta denominación u otra equivalente, tiene lugar en ejecución de una decisión judicial o administrativa, o es llevada a cabo por el comerciante o por el adquirente por cualquier título del negocio de aquél en alguno de los casos siguientes:

- a) Cesación total o parcial de la actividad de comercio. En el supuesto de cese parcial tendrá que indicarse la clase de mercancías objeto de liquidación.

3. Sustapeneko salmentei aplikatzekoa da lege honen 33. eta 34. artikuluetan xedatutakoa.

## IV. KAPITULUA

### Saldo-salmenta

#### 28. artikulua. Kontzeptua

1. Saldo-salmentatzat hartzen da beren narriadura, hondamena, erabilerririk eza edo zaharkitzea dela-eta merkatu-balioa nabarmen gutxitua duten produktuena; produktu bat ez da saldoko produktutzat hartuko ekoizpeneko edo denboraldiko soberakina izateagatik.

2. Ez dago saldo-salmentatzat hartzerik araubide horretan saltzeak eroslearentzat arriskua edo engainua dakarren produktuena, ez eta benetan beren ohiko prezioa baino merkeago saltzen ez diren produktuena ere.

#### 29. artikulua. Informatzeko eginbeharra

1. Saldo-salmentak nahitaz adierazi beharko dira izen horrekin edo «hondarren salmenta» izenarekin.

2. Artikulu hondatuak edo akastunak direnean, zehatz-mehatz eta nabarmen agertu beharko da hala direla.

## V. KAPITULUA

### Likidazioko salmentak

#### 30. artikulua. Kontzeptua

1. Likidazioko salmentatzat hartuko da zenbait produktu-izakin salbuespenez eta amaitzeko xedez saltzea, baldin eta, izen horrekin edo beste baliokideren batekin iragarrita, erabaki judizial edo administratibo bat exekutatzen bada, edo merkatariak edo haren negozioa edozein tituluren bidez erosten duenak egiten badu, kasu hauetako batean:

- a) Merkataritzaz-jarduera guztiz edo partez uztea. Partez uzten bada, adierazi beharko da zer salgai mota den likidazioaren xede.

- b) Cambio de ramo de comercio o modificación sustancial en la orientación del negocio.
- c) Cambio de local o realización de obras de importancia en el mismo.
- d) Cualquier supuesto de fuerza mayor que cause grave obstáculo al normal desarrollo de la actividad comercial.

2. No podrán ser objeto de este tipo de actividad comercial aquellos productos que no formaran parte de las existencias del establecimiento, o aquellos que fueron adquiridos por el comerciante con objeto de incluirlos en la liquidación misma.

3. En todo caso deberá cesar la venta en liquidación si desaparece la causa que la motivó o si se liquidan efectivamente los productos objeto de la misma.

4. Los anuncios de las ventas en liquidación deberán indicar la causa de ésta.

### **Artículo 31. Duración y reiteración**

1. La duración máxima de la venta en liquidación será de un año.

2. No procederá efectuar una nueva liquidación en el mismo establecimiento de productos similares a la anterior en el curso de los tres años siguientes, excepto cuando esta última tenga lugar en ejecución de decisión judicial o administrativa, por cesación total de la actividad o por causa de fuerza mayor.

## **CAPÍTULO VI**

### **Ventas con obsequio o prima**

#### **Artículo 32. Concepto**

1. Son ventas con obsequio aquellas que con finalidad de promover las ventas ofertan, ya sea en forma automática, o bien, mediante la participación en un sorteo o concurso, un premio, cualquiera que sea la naturaleza de éste.

Son ventas con prima aquéllas que ofrezcan cualquier incentivo o ventaja vinculado a la adquisición de un bien o servicio.

2. Cuando el incentivo consista en un sorteo, lo dispuesto en esta ley será aplicable sin perjuicio de lo establecido en la legislación sectorial correspondiente.



- b) Merkataritza-arloa aldatzea edo negozioaren orientazioa funtsean aldatzea.
- c) Lokalez aldatzea edo bertan obra handiak egitea.
- d) Edozein ezinbeste-kasu, merkataritza-jardueraren ohiko garapenari oztopo larria eragiten diona.

2. Ezin izango dira merkataritza-jarduera honetan sartu establezimenduko izakinen parte ez diren produktuak, ez eta saltzaileak likidazioan sartzeko eskuratu dituenak ere.

3. Betiere, likidazioko salmenta utzi beharko da hura eragin zuen arrazoa desagertzen bada edo haren xede diren produktuak egiazki likidatzen badira.

4. Likidazioko salmenten iragarkietan, haren arrazoa adierazi beharko da.

### **31. artikulua. Iraupena eta errepikatzea**

1. Likidazioko salmentak gehienez urtebete iraungo du.

2. Ezin izango dira establezimendu berean aurreko likidazioko antzeko produktuak likidatu ondorengo hiru urteetan, non eta bigarren likidazio hori ez den erabaki judizial edo administratibo bat exekutatzeko egiten, edo jarduera erabat uzteagatik edo ezinbestezko arrazoi batengatik.

## **VI. KAPITULUA**

### **Salmenta oparidunak edo primadunak**

#### **32. artikulua. Kontzeptua**

1. Salmenta oparidunak dira salmenta sustatzeko asmoz sari bat eskaintzen dutenak, edozein dela ere haren izaera, izan modu automatikoan edo izan zozketa edo lehiaketa batean parte hartuz.

Salmenta primadunak dira ondasun edo zerbitzu bat eskuratzeari lotutako edozein pizgarri edo abantaila eskaintzen dutenak.

2. Pizgarria zozketa bat denean, lege honetan xedatutakoa aplikatu ahal izango da, kasuan kasuko legeria sektorialean ezarritakoaren kalterik gabe.

3. Las ventas con obsequio o prima se reputan desleales en los supuestos previstos en la Ley de Competencia Desleal.

### **Artículo 33. Entrega de los obsequios**

1. Los bienes o servicios en que consistan los obsequios o incentivos promocionales deberán entregarse a los compradores en el plazo máximo que determinarán las Comunidades Autónomas, sin que pueda exceder de tres meses, a contar desde el momento en que el comprador reúna los requisitos exigidos. Cuando el ofrecimiento se haya hecho en los envases de los correspondientes productos, el derecho a obtener la prima ofrecida podrá ejercerse, como mínimo, durante los tres meses siguientes a la fecha de caducidad de la promoción.

2. En el caso de que los obsequios ofrecidos formen parte de un conjunto o colección, la empresa responsable de la oferta estará obligada a canjear cualquiera de aquéllos por otro distinto, a no ser que en la oferta pública del incentivo se haya establecido otro procedimiento para obtener las diferentes piezas de la colección.

### **Artículo 34. Prohibición de ofertas conjuntas**

1. Queda prohibido ofrecer conjuntamente y como una unidad de contratación dos o más clases o unidades de artículos excepto en los casos siguientes:

- a) Cuando exista una relación funcional entre los artículos ofertados.
- b) Cuando sea práctica comercial común vender ciertos artículos en cantidades superiores a un determinado mínimo.
- c) Cuando se ofrezca, simultáneamente, la posibilidad de adquirir los artículos por separado y a su precio habitual.
- d) Cuando se trate de lotes o grupos de artículos presentados conjuntamente por razones estéticas o para ser destinados a la realización de obsequios.

2. En todo caso, será de aplicación lo dispuesto al respecto en la legislación sobre defensa de la competencia.

3. Oparia edo prima duten salmentak desleialtzat joko dira Lehia Desleialari buruzko Legean aurreikusitako kasuetan.

### **33. artikulua. Opariak ematea**

1. Sustapeneko opari edo pizgarriak diren ondasun edo zerbitzuak autonomia-erkidegoek zehaztuko duten gehieneko epean eman beharko zaizkie erosleei; epe hori ezin izango da hiru hilabetetik gorakoa, erosleak eskatutako baldintzak betetzen dituen unetik kontatzen hasita. Eskaintza produktuen ontzietan egin bada, eskainitako prima eskuratzeko eskubidea baliatu ahal izango da, gutxienez, sustapena iraungi eta hurrengo hiru hilabetetan.

2. Eskainitako opariak multzo edo bilduma baten zati badira, eskaintzaz arduratzen den enpresa behartuta egongo da haietako edozein beste batekin trukatzera, non eta pizgarriaren eskaintza publikoan ez den beste prozedura bat ezarri bildumako pieza guztiak lortzeko.

### **34. artikulua. Baterako eskaintzen debekua**

1. Debeku da bi artikulua mota edo gehiago batera eta kontratazio-unitate gisa eskaintzea, kasu hauetan izan ezik:

- a) Eskainitako artikuluen artean erlazio funtzional bat dagoenean.
- b) Ohiko merkataritza-jarduna denean zenbait artikulua gutxienerako jakin batetik gorako kantitatean saltzea.
- c) Aldi berean aukera ematen denean artikulua bereiz eta ohiko prezioan eskuratzeko.
- d) Arrazoi estetikoengatik edo opariak egiteko elkarrekin aurkeztutako artikulua sortak edo multzoak direnean.

2. Kasu guztietan, aplikatzekoa izango da lehiaren defentsari buruzko legerian horri buruz xedatutakoa.

CAPÍTULO VII  
Oferta de venta directa

**Artículo 35. Veracidad de la oferta**

Queda prohibido que, en la oferta al público de mercancías de cualquier clase, se invoque por el vendedor su condición de fabricante o mayorista, a menos que reúna las circunstancias siguientes:

- a) Que, en el primer caso, fabrique realmente la totalidad de los productos puestos a la venta y, en el segundo, realice sus operaciones de venta fundamentalmente a comerciantes minoristas.
- b) Que los precios ofertados sean los mismos que aplica a otros comerciantes, mayoristas o minoristas, según los casos.

TÍTULO III  
VENTAS ESPECIALES

CAPÍTULO I  
Generalidades

**Artículo 36. Concepto**

1. Se consideran ventas especiales, a efectos de la presente Ley, las ventas a distancia, las ventas ambulantes o no sedentarias, las ventas automáticas y las ventas en pública subasta.

2. Las ventas de bienes muebles a plazos se regirán por su normativa específica.

**Artículo 37. Autorización**

(Anulado)

## VII. KAPITULUA

### Zuzeneko salmentaren eskaintza

#### 35. artikulua. Eskaintzaren egiazkotasuna

Debekatuta dago, jendeari edonolako salgaiak eskaintzean, saltzaileak bere buruari fabrikatzaile edo handizkari esatea, inguruabar hauek betetzen ez badira:

- a) Lehenengo kasuan, salgai jarritako produktu guztiak egitea; bigarrenean, bere salmenta-eragiketak batez ere txikizkako merkatariekin egitea.
- b) Eskainitako prezioak beste merkatariei —handizkari edo txikizkari, kasuaren arabera— aplikatzen zaizkien berberak izatea.

## III. TITULUA

### SALMENTA BEREZIAK

## I. KAPITULUA

### Orokortasunak

#### 36. artikulua. Kontzeptua

1. Lege honen ondorioetarako, salmenta berezitzat hartuko dira urrutiko salmentak, salmenta ibiltariak edo egonkorak ez direnak, salmenta automatikoak eta enkante publikoko salmentak.

2. Ondasun higigarrien epekako salmentetan, haien araudi espezifikoak eraenduko du.

#### 37. artikulua. Baimenak

(Deuseztua)

## CAPÍTULO II

### Ventas a distancia

#### Artículo 38. Concepto

1. Para la calificación de las ventas a distancia se estará a lo dispuesto en el artículo 92 del texto refundido de la Ley General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios y otras leyes complementarias, aprobado mediante Real Decreto Legislativo 1/2007, de 16 de noviembre.

2. Para el ejercicio de las ventas a distancia será de aplicación el régimen contenido en el título III del libro segundo del texto refundido de la Ley General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios y otras leyes complementarias, aprobado mediante Real Decreto Legislativo 1/2007, de 16 de noviembre.

Artículos 39 a 48. (Derogados).

## CAPÍTULO III

### Venta automática

#### Artículo 49. Concepto

1. Es venta automática la forma de distribución detallista, en la cual se pone a disposición del consumidor el producto o servicio para que éste lo adquiera mediante el accionamiento de cualquier tipo de mecanismo y previo pago de su importe.

2. Los distintos modelos de máquinas para la venta automática deberán cumplir la normativa técnica que les sea de aplicación.

#### Artículo 50. Advertencias obligatorias

Para protección de los consumidores y usuarios, en todas las máquinas de venta deberán figurar con claridad:

- a) La información referida al producto y al comerciante que lo ofrece: el tipo de producto que expenden, su precio, la identidad del oferente, así como una dirección y teléfono donde se atiendan las reclamaciones.

## II. KAPITULUA

### Urrutiko salmentak

#### 38. artikulua. Kontzeptua

1. Urrutiko salmentaren kalifikaziorako, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen Testu Bateginaren 92. artikulua xedatutakoari jarraituko zaio (testu hori azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia da).

2. Urrutiko salmentan aritzeko, aplikatzekoa izango da Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen Testu Bateginaren bigarren liburuko III. Tituluan jasotako araubidea (testu hori azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia da).

39-48 artikulua. (Derogatuak).

## III. KAPITULUA

### Salmenta automatikoa

#### 49. artikulua. Kontzeptua

1. Salmenta automatikoa da banaketarako modu xehakatu bat zeinean produktua edo zerbitzua kontsumitzailearen eskura jartzen baita hark eskuratu dezan edozein motatako mekanismoren bati eraginez, aldez aurretik haren zenbatekoa ordainduta.

2. Salmenta automatikorako makinen ereduak aplikatzekoa zaien araudi teknikoa bete beharko dute.

#### 50. artikulua. Nahitaezko ohartarazpenak

Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko, salmenta-makina guztietan argi agertu beharko da:

- a) Produktuari eta produktua eskaintzen duen merkataritari buruzko informazioa: saltzen duten produktu mota, prezioa, eskaintzailearen nortasuna, eta zein helbide eta telefonotatik erantzungo zaien erreklamazioei.

- b) La información relativa a la máquina que expende el producto: el tipo de monedas que admite, las instrucciones para la obtención del producto deseado, así como la acreditación del cumplimiento de la normativa técnica aplicable.

#### **Artículo 51. Recuperación del importe**

Todas las máquinas de venta deberán permitir la recuperación automática del importe introducido en el caso de no facilitarse el artículo solicitado.

#### **Artículo 52. Responsabilidad**

En el caso de que las máquinas de venta estén instaladas en un local destinado al desarrollo de una empresa o actividad privada, los titulares de la misma responderán solidariamente con el de la propia máquina frente al comprador del cumplimiento de las obligaciones derivadas de la venta automática.

### **CAPÍTULO IV**

#### **Venta ambulante o no sedentaria**

#### **Artículo 53. Concepto**

Se considera venta ambulante o no sedentaria la realizada por comerciantes, fuera de un establecimiento comercial permanente, de forma habitual, ocasional, periódica o continuada, en los perímetros o lugares debidamente autorizados en instalaciones comerciales desmontables o transportables, incluyendo los camiones-tienda. En todo caso, la venta no sedentaria únicamente podrá llevarse a cabo en mercados fijos, periódicos u ocasionales así como en lugares instalados en la vía pública para productos de naturaleza estacional.

#### **Artículo 54. Autorización**

Corresponderá a los Ayuntamientos otorgar las autorizaciones para el ejercicio de la venta ambulante en sus respectivos términos municipales, de acuerdo con sus normas específicas y las contenidas en la legislación vigente, de acuerdo con el marco respectivo de competencias.

No obstante lo anterior, y puesto que el número de autorizaciones disponibles es limitado debido a la escasez de suelo público habilitado a tal efecto, la duración de las mismas no podrá ser por tiempo indefinido, debiendo permi-



- b) Produktua saltzen duen makinari buruzko informazioa: onartzen dituen txanpon motak, nahi den produktua lortzeko jarraibideak eta aplikatzekoa den araudi teknikoa betetzen delako egiaztagarria.

#### **51. artikulua. Zenbatekoa berreskuratzea**

Salmenta-makina guztiek aukera eman beharko dute sartutako zenbatekoa automatikoki berreskuratzeko, eskatutako artikulua ematen ez bada.

#### **52. artikulua. Erantzukizuna**

Salmenta-makinak enpresa edo jarduera pribatu bat garatzeko lokal batean badaude, haren titularrek erantzukizun solidarioa izango dute makinaren beraren titularrekin, eroslearen aurrean, salmenta automatikoaren ondoriozko betebeharrak betetzeko.

### **IV. KAPITULUA**

#### **Salmenta ibiltaria edo ez egonkorra**

#### **53. artikulua. Kontzeptua**

Salmenta ibiltaria edo ez egonkorra da merkatariek establezimendu komertzial iraunkor batetik kanpo egiten dutena, noizean behin, aldizka edo modu jarraituan, behar bezala baimendutako perimetro edo lekuetan, merkataritza-instalazio desmuntagarri edo garraiarrietan, kamioi-dendak barne. Merkatu finkoetan, aldizkakoetan edo noizbehinkakoetan egin ahal izango da salmenta ez egonkorra, eta eremu publikoan sasoiko produktueterako ezarritako lekuetan ere; beste inon ez.

#### **54. artikulua. Baimenak**

Udalei dagokie beren udalerrian salmenta ibiltarian aritzeko baimenak ematea, beren arau espezifikoei eta indarrean dagoen legeriari jarraikiz, dagoen eskumen-esparruaren arabera.

Aurrekoa gorabehera, eta erabilgarri dauden baimenen kopurua mugatua denez, horretarako prestatuta dagoen lurzoru publikoa urria delako, baimenen iraupena ezin da mugagabea izan, eta aukera eman beharko du, betiere,

tir, en todo caso, la amortización de las inversiones y una remuneración equitativa de los capitales invertidos.

El procedimiento para la selección entre los posibles candidatos habrá de garantizar la transparencia y la imparcialidad y, en concreto, la publicidad adecuada del inicio, desarrollo y fin del proceso.

La autorización que se otorgue no dará lugar a un procedimiento de renovación automática ni conllevará ningún otro tipo de ventaja para el prestador cesante o las personas que estén especialmente vinculadas con él.

### **Artículo 55. Identificación**

Quienes ejerzan el comercio ambulante deberán tener expuesto en forma fácilmente visible para el público sus datos personales y el documento en el que conste la correspondiente autorización municipal, así como una dirección para la recepción de las posibles reclamaciones.

## **CAPÍTULO V**

### **Venta en pública subasta**

#### **Artículo 56. Concepto**

1. La celebración de una pública subasta consiste en ofertar, pública e irrevocablemente, la venta de un bien o servicio a favor de quien ofrezca, mediante el sistema de pujas y dentro del plazo concedido al efecto, el precio más alto por encima de un mínimo, ya se fije éste inicialmente o mediante ofertas descendentes realizadas en el curso del propio acto, que estará obligado a comprarlo.

Para el ejercicio de esta modalidad de venta, se aplicará, además de lo dispuesto en esta ley, la normativa específica sobre defensa de los consumidores y usuarios prevista por el texto refundido de la Ley General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios y otras leyes complementarias, aprobado mediante Real Decreto Legislativo 1/2007, de 16 de noviembre.

2. La regulación de las ventas en pública subasta contenida en la presente Ley se aplicará a las efectuadas por empresas que se dediquen habitualmente a esta actividad o al comercio al por menor.

Las subastas de títulos, así como las subastas judiciales y administrativas, se regirán por su normativa específica.

inbertsioak amortizatzeke eta inbertitutako kapitalen ordain ekitatezko bat izateko.

Hautagaiak aukeratzeko prozedurak gardentasuna eta inpartzialtasuna bermatu beharko ditu, eta, zehazki, behar den publizitate egokia ematea prozesuaren hasierari, garapenari eta amaierari.

Baimenak ez du bide emango automatikoki berritzeko prozedura baterako, eta ez du ekarriko beste inolako abantailarik zerbitzua uzten duen emailearentzat edo harekin lotura berezia duten pertsonentzat.

## **55. artikulua. Identifikazioa**

Merkataritza ibiltarian aritzen direnek jendeak erraz ikusteko moduan eduki beharko dituzte erakutsiak beren datu pertsonalak eta Udalaren baimena jasotzen duen agiria eta erreklamazioak jasotzeko helbidea.

# V. KAPITULUA

## **Enkante publikoan saltzea**

### **56. artikulua. Kontzeptua**

1. Enkante publikoa egitea da ondasun edo zerbitzu baten salmenta eskaintzea, modu publiko eta errebokaezinean, gutxieneko baten gainetik gehikada bidez eta horretarako jarritako epearen barruan preziorik altuena eskaintzen duenari, gutxieneko hori izan daitekeelarik hasieran jarria edo ekitaldian bertan egiten diren beheranzko eskaintzen bidez jarria. Esandako baldintzetan gehien eskaintzen duena behartuta geldituko da erostera.

Salmenta-modu hori gauzatzeko, aplikatzekoa da, lege honetan xedatutakoaz gain, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen Testu Bateginean kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako aurreikusitako araudi espezifikoak (testu hori azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia da).

2. Lege honetan egiten den enkante publikoko salmenten erregulazioa aplikatuko zaie jarduera horretan edo txikizkako merkataritzan aritzen diren enpresek egindako enkanteei.

Tituluen enkanteak beren araudi espezifikoak eraenduko ditu, eta orobat enkante judizial eta administratiboak.

## **Artículo 57. Contrato de subasta**

1. En el supuesto de que los bienes a subastar no pertenezcan a la empresa que desarrolla esta actividad, las relaciones con el propietario de los mismos se ajustarán a lo estipulado entre las partes de acuerdo con la normativa general sobre contratación.

2. En defecto de pacto expreso, se entenderá que todos los gastos de la subasta, incluidos los de custodia y, en su caso, tasación, corresponden a la empresa de subastas, sin que el propietario deba entregar por este concepto remuneración adicional alguna, fuera del precio o gratificación establecido.

También corresponderá a la referida empresa, salvo estipulación en contrario, la obligación de custodia y exposición de los bienes y, en su caso, los de inclusión en el catálogo.

3. La empresa subastadora deberá comprobar, en su caso, el cumplimiento de los requisitos establecidos en la legislación para la protección del tesoro artístico, histórico y bibliográfico de España.

4. El encargo de subasta deberá documentarse por escrito en el que se identificarán las partes, el objeto y condiciones de la venta, así como la retribución de la empresa subastadora.

## **Artículo 58. Oferta de venta en subasta**

1. La oferta de venta en subasta deberá contener una descripción veraz de los objetos que salen a la misma, con identificación de si sus calidades son ciertas o, simplemente, supuestas o averdadas por determinado experto.

2. En especial, cuando, en salas especializadas en objetos de arte o de valor, se oferte la venta en subasta de una imitación o de un artículo que, aunque aparentemente precioso, no lo sea en realidad, deberá hacerse constar, expresamente, esta circunstancia tanto en los anuncios como en las invitaciones en las pujas.

Cuando se oferte la venta en subasta de un objeto acompañado del nombre o de las iniciales de un determinado autor o precisando que aparece firmado por el mismo, se considerará que se vende como original de dicho autor, a menos que consten con claridad las oportunas advertencias.

3. Lo dispuesto en el apartado 2 del presente artículo será también de aplicación a las ventas de objetos preciosos o artísticos que se oferten al público en forma distinta a la subasta.

## 57. artikulua. Enkante-kontratua

1. Enkantean jarri beharreko ondasunak ez badira jarduera hori egiten duen enpresarenak, haien jabearekiko harremanak aldean artean hitzartuta-koari lotuko zaizkio, kontratazioari buruzko arau orokorren arabera.

2. Itun espresurik ezean, enkanteko gastu guztiak enkante-enpresarenak direla joko da, zaintzarena eta hala badagokio tasazioarena barne, eta jabeak ez du kontzeptu horrengatik ordainsari gehigarririk eman beharko, ezarritako prezioetik edo haborokinetik kanpo.

Enpresa horri dagozkio, halaber, besterik xedatzen ez bada, ondasunen zaintza- eta erakusketa-betebeharrak, eta, hala badagokio, haiek katalogoan sartzeko betebeharrak.

3. Enkantea egiten duen enpresak, hala badagokio, egiaztatu beharko du betetzen direla Espainiako altxor artistiko, historiko eta bibliografikoa babes-teko legerian ezarritako baldintzak.

4. Enkantearen enkargua idatziz dokumentatu beharko da, eta idatzian adieraziko da zein diren alderdiak, salmentaren xedea eta baldintzak, bai eta enkante-enpresaren ordainsaria ere.

## 58. artikulua. Enkantean saltzeko eskaintza

1. Enkantean saltzeko eskaintzaren barruan jasoko da eskaintzako objektuen deskribapen egia bat, eta zehaztuko da haien kalitateak egiazkoak diren edo, besterik gabe, ustezkoak edo aditu jakin batek esanak.

2. Bereziki, arte-objektuetan edo baliozko objektuetan espezializatutako aretoetan imitazio bat edo artikulua bat enkante bidez saltzea eskaintzen denean zeina, nahiz eta itxuraz preziatua izan, egiazki ez baita hala, espresuki adierazi beharko da inguruabar hori, hala iragarkietan nola eskaintzetarako gonbidapenetan.

Objektu baten salmenta enkante bidez eskaintzean, egile jakin baten izenarekin edo inizialekin batera doanean edo autore horrek sinaturik dagoela zehazten denean, autore horren jatorrizko gisa saltzen dela joko da, non eta ez den argi adierazten bestelako ohartarazpenik.

3. Artikulu honen 2. apartatua xedatutakoa aplikatuko da, halaber, jendeari enkanteaz besteko moduetan eskaintzen zaizkion objektu preziatu edo artistikoen salmentetan.

## **Artículo 59. Relaciones entre la empresa subastadora y los licitadores**

1. Únicamente podrá exigirse la constitución de fianza a los licitadores, cuando expresamente se haya consignado esta condición en los anuncios de la subasta.

En ningún caso, el importe de las fianzas podrá ser superior al 5 por 100 del precio de salida de los bienes en cuya licitación se quiera participar.

2. La fianza constituida por los licitadores a quienes no hubiese sido adjudicado el remate les deberá ser reintegrada dentro del plazo máximo de tres días a contar desde la finalización del acto.

3. En el caso de que el rematante no satisficiera el precio en las condiciones en que se hizo la adjudicación, perderá la fianza constituida que, en defecto de pacto, corresponderá al titular del bien subastado, una vez deducido el premio o comisión atribuible a la empresa subastadora, sin perjuicio del derecho del vendedor a exigir el cumplimiento del contrato.

## **Artículo 60. Documentación**

1. Adjudicado un bien se consignará inmediatamente por escrito procediéndose a la entrega del mismo una vez satisfecho el precio del remate o la parte del mismo determinada en los correspondientes anuncios.

2. Las ventas en pública subasta deberán, necesariamente, formalizarse mediante documento público o privado que, en su caso, podrá ser otorgado por la empresa subastadora como mandataria del propietario del bien subastado.

## **Artículo 61. Efectos de la venta en subasta**

1. La adquisición de bienes muebles mediante una venta en pública subasta de acuerdo con lo previsto en la presente Ley determinará su irrevindicabilidad en la forma establecida en el artículo 85 del Código de Comercio.

2. La empresa subastadora responderá solidariamente con el titular del bien subastado por la falta de conformidad de éste con el anuncio de la subasta, así como por los vicios o defectos ocultos de la cosa vendida, cuando hubiese incumplido las obligaciones de información que le impone el artículo 58 de la presente Ley.

## **59. artikulua. Enkante-enpresaren eta lizitzaileen arteko harremanak**

1. Lizitzaileei ez dakieke fidantzarik eskatu baldintza hori ez bada espresuki adierazi enkanteko iragarkietan.

Fidantzen zenbatekoa ez da inoiz izango parte hartu nahi den enkanteko ondasunen hasierako prezioaren 100eko 5 baino handiagoa.

2. Errematea adjudikatu ez zaien lizitzaileei itzuli egin beharko zaie eraturako fidantza, egintza bukatu eta gehienez ere hiru eguneko epean.

3. Errematatzaileak ez badu adjudikazioa egin zen baldintzetan ordaintzen prezioa, galdu egingo du eraturako fidantza. Itunik ezean, enkantean jarrিতako ondasunaren titularrari dagokio fidantza hori, enkante-enpresari egozten ahal zaion saria edo komisioa kendu ondoren, hargatik eragotzi gabe saltzaileak kontratua bete dadila eskatzeko duen eskubidea.

## **60. artikulua. Dokumentazioa**

1. Ondasun bat adjudikatu denean, idatziz jasoko da berehala, eta errematearen prezioa edo iragarkietan zehaztutako prezio zatia ordaindutakoan entregatuko da.

2. Enkante publikoko salmentak agiri publiko edo pribatu baten bidez egin beharko dira nahitaez. Agiri hori enkanteko enpresak eman ahal izango du, enkanteko ondasunaren jabearen mandatudun gisa.

## **61. artikulua. Enkantean saltzearen efektuak**

1. Ondasun higarriak lege honetan aurreikusitakoarekin bat etorritik enkante publikoko salmentan eskuratzeak berekin ekarriko du haien errei-bindikaezintasuna, Merkataritza Kodearen 85. artikuluan ezarritako moduan.

2. Enkante-enpresak erantzukizun solidarioa izango du enkanteko ondasunaren titularrarekin ondasuna ez datorrenean bat enkantearen iragarkiarekin, eta orobat saldutako gauzak akats ezkuturen bat duenean, lege honen 58. artikulua ezartzen dizkion informazio-betebeharrak bete ez baditu.

## CAPÍTULO VI

### De la actividad comercial en régimen de franquicia

#### Artículo 62. Regulación del régimen de franquicia

1. La actividad comercial en régimen de franquicia es la que se lleva a efecto en virtud de un acuerdo o contrato por el que una empresa, denominada franquiciadora, cede a otra, denominada franquiciada, el derecho a la explotación de un sistema propio de comercialización de productos o servicios.

2. Con una antelación mínima de 20 días a la firma de cualquier contrato o precontrato de franquicia o entrega por parte del futuro franquiciado al franquiciador de cualquier pago, el franquiciador deberá haber entregado al futuro franquiciado por escrito la información necesaria para que pueda decidir libremente y con conocimiento de causa su incorporación a la red de franquicia y, en especial, los datos principales de identificación del franquiciador, descripción del sector de actividad del negocio objeto de franquicia, contenido y características de la franquicia y de su explotación, estructura y extensión de la red y elementos esenciales del acuerdo de franquicia. Reglamentariamente se establecerán las demás condiciones básicas para la actividad de cesión de franquicias.

## TÍTULO IV

### INFRACCIONES Y SANCIONES

#### CAPÍTULO I

##### Principios generales

#### Artículo 63. Competencias sancionadoras

1. Las Administraciones Públicas comprobarán el cumplimiento de lo dispuesto en la presente Ley, a cuyo fin podrán desarrollar las actuaciones inspectoras precisas en las correspondientes empresas. También sancionarán las infracciones cometidas, previa instrucción del oportuno expediente, sin perjuicio de las responsabilidades civiles, penales o de otro orden que puedan concurrir.

La competencia sancionadora corresponderá a las respectivas Comunidades Autónomas.



## VI. KAPITULUA

### Frankizia-araubideko merkataritza-jarduera

#### 62. artikulua. Frankizia-araubidearen erregulazioa

1. Frankizia-araubideko merkataritza-jarduera hitzarmen edo kontratu baten bidez gauzatzen da, zeinaren bidez, enpresa batek, frankizia-emaile deritzonak, produktuak edo zerbitzuak merkaturatzeko sistema propio bat ustiatzeko eskubidea lagatzen baitio beste enpresa bati, frankiziadun deritzonari.

2. Frankizia-kontratu edo -aurrekontraturen bat sinatu baino 20 egun lehenago, gutxienez, edo frankiziadun izango denak frankizia-emaileari edozein ordainketa eman baino 20 egun lehenago, frankizia-emaileak etorkizuneko frankiziadunari beharrezko den informazioa eman beharko dio frankizia-sarean sartzea askatasunez eta jakinaren gainean erabaki ahal izateko; bereziki, frankizia-emailearen identifikazio-datu nagusiak, frankiziaren xede den negozioaren jarduera-sektorearen deskribapena, frankiziaren eta haren ustiapenaren edukia eta ezaugarri nagusiak, sarearen egitura eta hedadura eta frankizia-akordioaren elementu funtsezkoak. Erregelamenduz ezarriko dira frankizien lagapenerako gainerako oinarritzko baldintzak.

## IV. TITULUA

### ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

## I. KAPITULUA

### Printzipio orokorrak

#### 63. artikulua. Zehatzeko eskumenak

1. Administrazio publikoek egiaztatuko dute lege honetan xedatutakoa betetzen dela, eta, horretarako, behar diren ikuskapen-lanak egin ahal izango dituzte enpresetan. Egindako arau-hausteak ere zehatuko dituzte, dagokion espedientearen instruitu ondoren, hargatik eragotzi gabe gerta daitezkeen erantzukizun zibil, penal edo bestelakoak.

Zehatzeko eskumena autonomia-erkidegoei dagokie.

2. La instrucción de causa penal ante los Tribunales de Justicia o la incoación de expediente por infracción de las normas de defensa de la competencia, suspenderá la tramitación del expediente administrativo sancionador que hubiera sido incoado por los mismos hechos y, en su caso, la eficacia de las resoluciones sancionadoras.

3. Serán de aplicación a las infracciones recogidas en esta Ley las reglas y principios sancionadores contenidos en la legislación general sobre régimen jurídico de las administraciones públicas y procedimiento administrativo común.

4. En ningún caso se podrá imponer una doble sanción por los mismos hechos y en función de los mismos intereses públicos protegidos, si bien deberán exigirse las demás responsabilidades que se deduzcan de otros hechos o infracciones concurrentes.

5. Las personas y las entidades de cualquier naturaleza jurídica que dispongan o tengan el deber jurídico de disponer de información o documentación que pudiera contribuir al esclarecimiento de la comisión de infracciones tipificadas en esta ley o a la determinación del alcance y/o de la gravedad de las mismas, tienen el deber de colaborar con las autoridades competentes en materia de ordenación del comercio. A tal efecto, dentro de los plazos establecidos, deberán facilitar la información y los documentos que les sean requeridos por la inspección en el ejercicio de sus funciones.

## CAPÍTULO II

### Clases de infracciones

#### Artículo 64. Infracciones leves

Tendrán la consideración de infracciones leves:

- a) No exhibir la necesaria autorización, homologación o comunicación en la forma legal o reglamentariamente establecida.
- b) La realización de actividades comerciales en horario superior al máximo que, en su caso, se haya establecido.
- c) Realizar ventas en rebajas fuera de los casos autorizados en la presente Ley.
- d) No hacer figurar en los artículos rebajados los precios habituales de los mismos.

2. Justizia-auzitegietan prozesu penala instruitzeak edo lehiaren defentsarako arauak urratzeagatik espediente irekitzeak eten egingo ditu egitate berengatik irekitako zehapen-espediente administratiboaren izapideak eta, hala bada-gokio, zehapena ezartzeko administrazio-egintzen eraginkortasuna.

3. Lege honetan jasotako arau-hausteei aplikatzekoak dira administrazio publikoen araubide juridikoari eta administrazio-prozedura erkideari buruzko legeria orokorrean jasotako arauak eta zehapen-printzipioak.

4. Ezein kasutan ezin ezarriko da zehapen bikoitzik egitate berengatik eta babesturiko interes publiko beraren izenean, baina, beste egitate edo arau-hausterik baldin bada batera, haien ondoriozko erantzukizunak ere galdatu beharko dira.

5. Lege honetan tipifikatutako arau-haustek argitzeko edo arau-hausteen irismena edo larritasuna zehazteko lagungarri izan daitekeen informazioa edo dokumentazioa daukaten edo edukitzeko betebeharrak duten pertsona eta erakunde juridikoek merkataritza-antolamenduaren arloko agintari eskudunekin lankidetzan jarduteko betebeharrak dute. Horretarako, ezarritako epeetan, ikuskatzaileak bere eginkizunak betetzean eskatzen dizkion informazioa eta agiriak eman beharko ditu.

## II. KAPITULUA

### Arau-hauste motak

#### 64. artikulua. Arau-hauste arinak

Arau-hauste arintzat joko dira hauek:

- a) Beharrezko den baimena, homologazioa edo komunikazioa ez erakustea, legez edo erregelamenduz ezarritako moduan.
- b) Merkataritza-jarduerak egitea ezarritako gehienekotik gorako ordu batean, ordutegia ezarrita badago.
- c) Merkealdiko salmentak egitea lege honetan baimendutako kasuetatik kanpo.
- d) Artikulu beheratuetan ez agertzea haien ohiko prezioak.

- e) El incumplimiento de lo dispuesto en la presente Ley acerca de las ofertas de venta conjunta.
- f) Omitir en los anuncios de las subastas los requisitos establecidos en la presente Ley.
- g) El retraso en la devolución de las fianzas constituidas por los licitadores no adjudicatarios de las ventas en subasta.
- h) En general, el incumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente Ley o en las normas dictadas para su desarrollo, que no sean objeto de sanción específica.
- i) Los incumplimientos de lo dispuesto en el párrafo d) del apartado 1 del citado artículo 2 serán sancionables conforme a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal correspondiendo la potestad sancionadora al órgano que resulte competente.

### **Artículo 65. Infracciones graves**

1. Tendrán la consideración de infracciones graves:
  - a) Ejercer una actividad comercial sin previa autorización en el caso de que esta fuera preceptiva, o no realizar las comunicaciones o notificaciones a la administración comercial exigidas por la normativa vigente.
  - b) Exigir precios superiores a aquellos que hubiesen sido objeto de fijación administrativa.
  - c) Realizar ventas con pérdida que sean desleales en los supuestos del artículo 14.1.
  - d) La realización por parte de las entidades a que se refiere el artículo 15 de operaciones de venta con personas distintas a sus socios o beneficiarios.
  - e) La realización de actividades comerciales en domingos y días festivos en los casos de prohibición.
  - f) El incumplimiento de los plazos máximos de pago que contempla el apartado 3 del artículo 17, así como la falta de entrega por los comerciantes a sus proveedores de un documento que lleve aparejada ejecución cambiaria, y la falta de entrega de un efecto endosable a la orden en los supuestos y plazos contemplados en el apartado 4 del artículo 17.
3. En caso de descubierta tácita importante que se prolongue durante un período superior a un mes, el prestamista informará al consumidor sin demora de los siguientes extremos:

- a) Del descubierta tácita.
- b) Del importe del descubierta tácita.
- c) Del tipo deudor.
- d) De las posibles penalizaciones, gastos o intereses de demora aplicables.

4. En ningún caso podrá aplicarse a los créditos que se concedan en forma de descubiertas a los que se refiere este artículo un tipo de interés que dé lugar a una tasa anual equivalente superior a 2,5 veces el interés legal del dinero.

#### **Artículo 21. Penalización por falta de forma y por omisión de cláusulas obligatorias**

1. El incumplimiento de la forma escrita a que se refiere el párrafo primero del apartado 1 del artículo 16 dará lugar a la anulabilidad del contrato.

- g) Aplikatu diren errekariguak.
- h) Ordaindu beharreko gutxieneko zenbatekoa, halakorik baldin bada.

2. Gainera, kontsumitzaileari tasa zordunaren gehikuntzen edo ordaindu behar dituen errekariguen berri emango zaio, aldaketak indarrean sartu baino lehen.

Hala ere, kreditu-kontratuan alderdiek erabaki ahal izango dute tasa zordunaren aldaketei buruzko informazioa 1. apartatuan adierazitako moduan ematea tasa zordunaren aldaketa erreferentzia-mota bat aldatzearen ondorioz gertatzen denean, betiere erreferentzia-tasa berria ofizialki argitaratu badute Ekonomia eta Ogasun Ministerioak edo Espainiako Bankuak eta horri buruzko informazioa mailegu-emailearen lokaletan ere eskuragarri badago.

## **20. artikulua. Zorpeko tazitua**

1. Kontsumitzaileari zorpeko tazitua baimentzeko aukera duen ageriko kontu bat irekitzen den kasuan, kontratuak 12. artikulua 2. apartatuko e) letran aipatzen den informazioa jasoko du.

2. Gainera, mailegu-emaileak informazio hori aldiari-aldiari emango du edozein kasutan.

3. Zorpeko tazitu handi batek hilabete baino gehiago irauten badu, mailegu-emaileak alderdi hauek jakinaraziko dizkio kontsumitzaileari, berandutu gabe:

- a) Zorpeko tazitua.
- b) Zorpeko tazituaren zenbatekoa.
- c) Tasa zorduna.
- d) Ezar daitezkeen penalizazio, gastu edo berandutze-interesak.

4. Artikulu honetan aipatzen diren zorpeko gisa ematen diren kredituei ez zaie inoiz aplikatuko urteko tasa baliokidea diruaren legezko interesa halako 2,5 baino handiagoa duen interes-tasarik.

## **21. artikulua. Forma-akatsagatik eta nahitaezko klausulak ez betetzeagatik ezarritako penalizazioa**

1. 16. artikulua 1. apartatuko lehenengo paragrafoan aipatzen den idatzizko forma ez betetzeak kontratua deuseztagarri izatea ekarriko du.

2. En el supuesto de que el documento del contrato no contenga la mención a la tasa anual equivalente a la que se refiere la letra g) del apartado 2 del artículo 16, la obligación del consumidor se reducirá a abonar el interés legal en los plazos convenidos.

3. En el supuesto de que el documento del contrato no contenga la mención a que se refiere la letra h) del apartado 2 del artículo 16, y siempre que no exista omisión o inexactitud en el plazo, la obligación del consumidor se reducirá a pagar el precio al contado o el nominal del crédito en los plazos convenidos.

En el caso de omisión o inexactitud de los plazos, dicho pago no podrá ser exigido al consumidor antes de la finalización del contrato.

4. En el caso de que los datos exigidos en el apartado 2 del artículo 16 y en el artículo 17 figuren en el documento contractual pero sean inexactos, se modularán, en función del perjuicio que debido a tal inexactitud sufra el consumidor, las consecuencias previstas en los apartados 2 y 3 anteriores.

## **Artículo 22. Modificación del coste total del crédito**

1. El coste total del crédito no podrá ser modificado en perjuicio del consumidor, a no ser que esté previsto en acuerdo mutuo de las partes formalizado por escrito. Estas modificaciones deberán ajustarse a lo establecido en los apartados siguientes.

2. La variación del coste del crédito se deberá ajustar, al alza o a la baja, a la de un índice de referencia objetivo, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 85.3 del Texto refundido de la Ley General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios y otras leyes complementarias, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2007, de 16 de noviembre.

3. En el acuerdo formalizado por las partes se contendrán, como mínimo, los siguientes extremos:

- a) Los derechos que contractualmente correspondan a las partes en orden a la modificación del coste total del crédito inicialmente pactado y el procedimiento a que ésta deba ajustarse.
- b) El diferencial que se aplicará, en su caso, al índice de referencia utilizado para determinar el nuevo coste.
- c) La identificación del índice utilizado o, en su defecto, una definición clara del mismo y del procedimiento para su cálculo. Los datos que sirvan de base al índice deberán ser agregados de acuerdo con un procedimiento objetivo.



2. Kontratuaren agirian ez bada jaso 16. artikulua 2. apartatuko g) letran aipatzen den urteko tasa baliokidea, legezko interesa hitzartutako epeetan ordaintzera mugatuko da kontsumitzailearen betebeharra.

3. Kontratuaren agirian ez bada jaso 16. artikulua 2. apartatuko h) letran aipatzen den aipamena, eta epearen barruan omisiorik edo zehaztasun faltarik ez badago, kredituaren eskurako prezioa edo nominala hitzartutako epeetan ordaintzera mugatuko da kontsumitzailearen betebeharra.

Epeak betetzen ez badira edo zehatz betetzen ez badira, ordainketa hori ezin izango zaio kontsumitzaileari eskatu kontratua amaitu baino lehen.

4. 16. artikulua 2. apartatua eta 17. artikulua eskatzen diren datuak kontratu-agirian jaso badira baina zehatzak ez badira, aurreko 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako ondorioak modulatu egingo dira, kontsumitzaileak zehaztasun falta horren ondorioz izan dezakeen kaltearen arabera.

## **22. artikulua. Kredituaren kostu osoa aldatzea**

1. Kredituaren kostu osoa ezin izango da kontsumitzailearen kalterako aldatu, non eta ez den hala aurreikusi alderdiek adostu eta idatziz formalizatutako akordioan. Aldaketa horiek hurrengo ataletan ezarritakoari atxiki beharko zaizkio.

2. Kredituaren kostuaren aldaketa, gorantz edo beherantz, erreferentzia-indize objektibo baten arabera izango da, **hargatik eragotzi gabe azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Babeserako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bateginaren 85.3 artikulua ezarritakoa.**

3. Alderdiek formalizatutako akordioan, gutxienez, honako hauek jasoko dira:

- a) Alderdiek kontratuz zer eskubide dituzten hasieran itundutako kredituaren kostu osoa aldatzeari dagokionez, eta zer prozedurari jarraitu behar dion aldaketa horrek.
- b) Kostu berria zehazteko erabilitako erreferentzia-indizeari zer diferentzial aplikatuko zaion, hala badagokio.
- c) Erabilitako indizea, edo, bestela, indizearen eta hura kalkulatzeko prozeduraren definizio argi bat. Indizearen oinarri diren datuak prozedura objektibo baten arabera gehitu beharko dira.

4. Las modificaciones en el coste total del crédito distintas de las contempladas en el artículo 18 y en el apartado 2 del artículo 19 deberán ser notificadas por el prestamista al consumidor de forma individualizada. Esa notificación, que deberá efectuarse con la debida antelación, incluirá el cómputo detallado, según el procedimiento de cálculo acordado, que da lugar a esa modificación, e indicará el procedimiento que el consumidor podrá utilizar para reclamar ante el prestamista en caso de que discrepe del cálculo efectuado.

### **Artículo 23. Liquidaciones a realizar por la ineficacia o resolución del contrato de adquisición**

En caso de créditos concedidos para la adquisición de bienes determinados, cuando el prestamista o el vendedor recupere el bien como consecuencia de la nulidad o la resolución de los contratos de adquisición o financiación de dichos bienes, las partes deberán restituirse recíprocamente las prestaciones realizadas. En todo caso, el empresario o el prestamista a quien no sea imputable la nulidad del contrato tendrá derecho a deducir:

- a) El 10 por 100 del importe de los plazos pagados en concepto de indemnización por la tenencia de las cosas por el comprador.
- b) Una cantidad igual al desembolso inicial por la depreciación comercial del objeto. Cuando esta cantidad sea superior a la quinta parte del precio de venta, la deducción se reducirá a esta última.

Por el deterioro de la cosa vendida, si lo hubiere, podrá exigir el vendedor, además, la indemnización que en derecho proceda.

### **Artículo 24. Obligaciones cambiarias**

Cuando en la adquisición de bienes o servicios concurren las circunstancias previstas en el apartado 1 del artículo 29, si el consumidor y su garante se hubieran obligado cambiariamente mediante la firma en letras de cambio o pagarés, podrán oponer al tenedor al que afecten las mencionadas circunstancias las excepciones que se basen en sus relaciones con el proveedor de los bienes o servicios correspondientes.

### **Artículo 25. Cobro indebido**

1. Todo cobro indebido derivado de un contrato de crédito devengará inmediatamente el interés legal. Si el interés contractual fuese superior al legal, devengará inmediatamente el primero.

4. Kredituaren kostu osoan egiten diren aldaketak, 18. artikuluan eta 19. artikuluan 2. apartatuan aipatzen direnez bestelakoak, banan-banan jakinarazi beharko dizkio mailegu-emaileak kontsumitzaileari. Jakinarazpen hori behar den denborarekin egin behar da, eta jaso behar du aldaketa eragin duen kontaketa zehatza, adostutako kalkulu-prozeduraren arabera. Horrekin batera, adieraziko du kontsumitzaileak zer prozedura erabil dezakeen, kalkuluarekin ados ez badago, mailegu-emaileari erreklamatzeko.

### **23. artikulua. Eskuratze-kontratuaren eraginkortasunik ezagatik edo suntsiarazteagatik egin beharreko likidazioak**

Ondasun jakin batzuk eskuratzeko emandako kredituen kasuan, mailegu-emaileak edo saltzaileak ondasuna berreskuratzen badu hura eskuratzeko edo finantzatzeko kontratua baliogabetzearen edo suntsiaraztearen ondorioz, alderdiek elkarri itzuli beharko dizkiote egindako prestazioak. Betiere, kontratuaren deuseztasuna egotzi ezin zaion enpresariak edo mailegu-emaileak hauek kentzeko eskubidea izango du:

- a) Erosleak gauzak edukitzeagatik kalte-ordain gisa ordaindutako epeen zenbatekoaren 100eko 10.
- b) Objektuaren balio-galera komertzialaren hasierako ordainketa adinako zenbatekoa. Kopuru hori salmenta-prezioaren bostena baino handiagoa bada, kenkari bakarra hau izango da.

Saldutako gauzaren narriaduragatik, halakorik bada, saltzaileak, gainera, zuzenbidearen arabera dagokion kalte-ordaina eskatu ahal izango du.

### **24. artikulua. Kanbio-obligazioak**

Ondasunak edo zerbitzuak eskuratzean 29. artikuluan 1. apartatuan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean, kontsumitzaileak eta haren bermatzaileak kanbio-obligazio batez lotuta gelditu badira kanbio-letretako edo zor-agirietako sinadurarekin, inguruabar horiek eragiten dioten edukitzaileari dagozkion ondasun edo zerbitzuen hornitzailearekiko harremanetan oinarritutako salbuespenak egin ahal izango zaizkio.

### **25. artikulua. Kobrantza desegokia**

1. Kreditu-kontratu baten ondoriozko kobrantza desegoki orok berehala sorraraziko du legezko interesa. Kontratuko interesa legezkoa baino handiagoa bada, kontratukoa sorraraziko da berehala.

2. Si el cobro indebido se hubiera producido por dolo o negligencia del prestamista, el consumidor tendrá el derecho a la indemnización de los daños y perjuicios causados, que en ningún caso será inferior al interés legal incrementado en cinco puntos o al del contrato, si es superior al interés legal, incrementado a su vez en cinco puntos.

#### **Artículo 26. Eficacia de los contratos de consumo vinculados a la obtención de un crédito**

1. La eficacia de los contratos de consumo cuyo objeto sea la adquisición por parte de un consumidor de bienes o servicios, en los que el consumidor y el proveedor hayan acordado que el pago del precio por parte del consumidor se financie total o parcialmente mediante un contrato de crédito, quedará condicionada a la efectiva obtención de ese crédito. Será nulo el pacto en el contrato de consumo por el que se obligue al consumidor a un pago al contado o a otras fórmulas de pago, para el caso de que no se obtenga el crédito previsto.

Se tendrán por no puestas las cláusulas en las que el proveedor exija que el crédito para su financiación únicamente pueda ser otorgado por un determinado prestamista.

2. Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 29, la ineficacia del contrato de consumo determinará también la ineficacia del contrato de crédito destinado a su financiación, con los efectos previstos en el artículo 23.

3. En todo caso, deberá quedar documentalmente acreditada la identidad del proveedor de los bienes o servicios en el contrato de consumo y la del prestamista en el contrato de crédito, de forma que cada uno de ellos aparezca ante el consumidor como sujeto de las operaciones relacionadas con los respectivos contratos de los que es parte.

El consumidor dispondrá en todo momento de la opción de no concertar el contrato de crédito, realizando el pago en la forma que acuerde con el proveedor del contrato de consumo.

#### **Artículo 27. Contratos de crédito de duración indefinida**

1. El consumidor podrá poner fin gratuitamente y en cualquier momento, por el procedimiento habitual o en la misma forma en que lo celebró, a un contrato de crédito de duración indefinida, a menos que las partes hayan convenido un plazo de notificación. El plazo de preaviso no podrá exceder de un mes.

2. Si así ha sido pactado en el contrato de crédito, el prestamista podrá poner fin por el procedimiento habitual a un contrato de crédito de duración in-

2. Kobrantza desegokia mailegu-emailearen dolu edo axolagabekeriaren ondorioz gertatu bada, kontsumitzaileak eskubidea izango du kalte-galeren ordaina jasotzeko. Kalte-ordainaren zenbatekoa ez da inoiz izango legezko interesa gehi bost puntu baino txikiagoa, edo kontratuarena baino handiagoa baldin bada, legezko interesa gehi bost puntu baino txikiagoa.

## **26. artikulua. Kreditu bat eskuratzeari lotutako kontsumo-kontratuen eraginkortasuna**

1. Kontsumo-kontratuaren xedea kontsumitzaileak ondasun edo zerbitzu batzuk eskuratzera denean, kontsumitzaileak eta hornitzaileak hitzartu badute kontsumitzaileak prezioa osorik edo partez kreditu-kontratu baten bidez ordainduko duela, kontsumo-kontratua eraginkor izateko baldintza da kreditu hori egiazki lortzea. Deusezak izango dira kontsumo-kontratuan kontsumitzaileak eskudirutan ordaintzera edo ordaintzeko beste modu batzuetara behartzen duen itunak, aurreikusitako kreditua lortzen ez den kasuan.

Klausularen batean hornitzaileak eskatzen badu finantzatzeko kreditua mailegu-emaile jakin batek bakarrik eman ahal izatea, klausula hori jarri gabekotzat hartuko da.

2. 29. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe, kontsumo-kontratuaren eraginkortasunik ezak hura finantzatzeko kreditu-kontratuaren eraginkortasunik eza ere ekarriko du, 23. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

3. Agiri bidez egiaztatu beharko da, beti, kontsumo-kontratuan ondasun edo zerbitzuen hornitzailea nor den eta kreditu-kontratuan mailegu-emailea nor den, halako moldez non haietako bakoitza agertuko baita, kontsumitzailearen aurrean, bera parte den kontratuekin zerikusia duten eragiketen subjektu gisa.

Kontsumitzaileak kreditu-kontratua ez hitzartzeko aukera izango du beti, eta ordainketa kontsumo-kontratuaren hornitzailearekin adosten duen moduan egingo du.

## **27. artikulua. Iraupen mugagabeko kreditu-kontratuak**

1. Kontsumitzaileak noiznahi eta dohainik amaitu ahal izango du iraupen mugagabeko kreditu-kontratu bat, ohiko prozeduraren bidez edo egin zuen modu berean, aldeek ez badute jakinarazpen-epe bat adostu. Aurreabisurako epea ezin da hilabete baino luzeagoa izan.

2. Kreditu-kontratuan hala itundu bada, mailegu-emaileak epe jakinik gabeko kreditu-kontratu bati amaiera eman ahal izango dio, ohiko prozeduraren

definida dando al consumidor un preaviso de dos meses como mínimo, notificado mediante documento en papel o en otro soporte duradero.

3. Si así ha sido pactado en el contrato de crédito, el prestamista podrá, por razones objetivamente justificadas, poner fin al derecho del consumidor a disponer de cantidades de un contrato de crédito de duración indefinida.

El prestamista informará al consumidor de la terminación del contrato, indicando las razones de la misma mediante notificación en papel u otro soporte duradero, en la medida de lo posible antes de la terminación y, a más tardar, inmediatamente después de ella.

No se comunicará la información a que se refiere el párrafo anterior cuando su comunicación esté prohibida por una norma de la Unión Europea o sea contraria a objetivos de orden público o de seguridad pública.

4. Si se hubiera suscrito un contrato de seguro accesorio al de crédito, el contrato de seguro se extinguirá al mismo tiempo que éste y el consumidor tendrá derecho al reembolso de la parte de prima no consumida.

## **Artículo 28. Derecho de desistimiento**

1. El derecho de desistimiento de un contrato de crédito es la facultad del consumidor de dejar sin efecto el contrato celebrado, comunicándoselo así a la otra parte contratante en un plazo de catorce días naturales sin necesidad de indicar los motivos y sin penalización alguna.

El plazo para ejercer el derecho de desistimiento se iniciará en la fecha de suscripción del contrato de crédito o bien, si fuera posterior, en la fecha en que el consumidor reciba las condiciones contractuales y la información recogida en el artículo 16.

2. El consumidor que ejerza el derecho de desistimiento tendrá las obligaciones siguientes:

- a) Comunicarlo al prestamista antes de que expire el plazo previsto en el apartado 1, ateniéndose a la información facilitada por este último de acuerdo con la letra p) del apartado 2 del artículo 16, por medios que permitan dejar constancia de la notificación de cualquier modo admitido en Derecho.

Se considerará que se ha respetado el plazo si la notificación se ha enviado antes de la expiración del plazo, siempre que haya sido efectuada

bidez, kontsumitzaileari gutxienez bi hilabete lehenago jakinaraziz gero, pape-reko edo beste euskarri iraunkor bateko agiri batean.

3. Kreditu-kontratuan hala itundu bada, mailegu-emaileak, objektiboki justifikatutako arrazoiak direla medio, amaitu ahal izango du kontsumitzaileak iraupen mugagabeko kreditu-kontratu batetik zenbatekoak eskuratzeko duen eskubidea.

Mailegu-emaileak kontratua amaitu dela jakinaraziko dio kontsumitzaileari, eta arrazoiak adieraziko dizkio, papereko edo beste euskarri iraunkor bateko jakinarazpenaren bidez, ahal bada kontratua amaitu baino lehen eta, beranduenez, amaitu eta berehala.

Aurreko paragrafoan aipatzen den informazioa ez da jakinaraziko Europar Batasuneko arau batek debekatzen badu edo ordena publikoko edo segurtasun publikoko helburuen aurkakoa bada.

4. Kreditu-kontratuaren osagarri den aseguru-kontratu bat sinatu bada, hura azkentzen den une berean azkenduko da, eta kontsumitzaileak eskubidea izango du primaren parte kontsumitu gabea itzul diezaioten.

## **28. artikulua. Atzera egiteko eskubidea**

1. Kreditu-kontratu batean atzera egiteko eskubidea da kontsumitzaileak ahalmena izatea egindako kontratua efekturik gabe uzteko, hamalau egun naturaleko epean kontratuko beste alderdiari komunikatuta, hartarako arrazoiak azaldu beharrik izan gabe eta batere penalizaziorik gabe.

Atzera egiteko eskubidea baliatzeko epea kreditu-kontratua sinatzen den egunean hasiko da, edo, geroago bada, kontsumitzaileak kontratuko baldintzak eta 16. artikuluan jasotako informazioa jasotzen dituen egunean.

2. Atzera egiteko eskubidea baliatzen duen kontsumitzaileak betebeharrak hauek izango ditu:

- a) Mailegu-emaileari jakinaraztea, 1. paragrafoan aurreikusitako epea amaitu baino lehen, mailegu-emaileak 16. artikulua 2. apartatuko p) letrarekin bat etorritik emandako informazioari jarraikiz, Zuzenbidean onartutako edozein modutan jakinarazpena jasota utzi ahal izateko moduan.

Epea errespetatu dela joko da jakinarazpena epea amaitu baino lehen bidali bada, betiere paperezko agiri batean edo mailegu-emailearen

mediante documento en papel o cualquier otro soporte duradero a disposición del prestamista y accesible para él.

- b) Pagar al prestamista el capital y el interés acumulado sobre dicho capital entre la fecha de disposición del crédito y la fecha de reembolso del capital, sin ningún retraso indebido y a más tardar a los treinta días naturales de haber enviado la notificación de desistimiento al prestamista.

Los intereses adeudados se calcularán sobre la base del tipo deudor acordado.

El prestamista no tendrá derecho a reclamar al consumidor ninguna otra compensación en caso de desistimiento, excepto la compensación de los gastos no reembolsables abonados por el prestamista a la Administración Pública.

3. En caso de que un prestamista o un tercero proporcione un servicio accesorio relacionado con el contrato de crédito sobre la base de un acuerdo entre ese tercero y el prestamista, el consumidor dejará de estar vinculado por dicho servicio accesorio si ejerce su derecho de desistimiento respecto del contrato de crédito conforme a lo dispuesto en el presente artículo. En caso de que este servicio accesorio sea un contrato de seguro de vida, el derecho de desistimiento se regirá en lo que sea aplicable por lo establecido en el artículo 83.a) de la Ley 50/1980, de 8 de octubre, de Contrato de Seguro, y en el resto de casos, el consumidor tendrá derecho al reembolso de la parte de prima no consumida.

4. Si el consumidor tiene derecho de desistimiento con arreglo a los apartados anteriores, no se aplicarán los artículos 10 y 11 de la Ley 22/2007, de 11 de julio, sobre comercialización a distancia de servicios financieros destinados a los consumidores, ni el artículo 110 del texto refundido de la Ley General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios y otras leyes complementarias, aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/2007, de 16 de noviembre.

## **Artículo 29. Contratos de crédito vinculados. Derechos ejercitables**

1. Por contrato de crédito vinculado se entiende aquel en el que el crédito contratado sirve exclusivamente para financiar un contrato relativo al suministro de bienes específicos o a la prestación de servicios específicos y ambos contratos constituyen una unidad comercial desde un punto de vista objetivo.

2. Si el consumidor ha ejercido su derecho de desistimiento respecto a un contrato de suministro de bienes o servicios financiado total o parcialmente



esku dagoen eta harentzat irisgarria den beste edozein euskarri iraunkorretan.

- b) Mailegu-emaileari kapitala eta kapital horren gainean metatutako interesa ordaintzea, kreditua eskuratzen den egunetik kapitala itzultzen den egunera bitartekoa, bidegabeko atzerapenik gabe eta gehienez hogeita hamar egun naturaleko epean, mailegu-emaileari uko egin izanaren jakinarazpena bidaltzen denetik.

Zor diren interesak adostutako tasa zordunaren arabera kalkulatu dira.

Mailegu-emaileak ez du eskubiderik izango, kontsumitzaileak atzera egiten duen kasuan, hari beste inolako konpentsaziorik erreklamatzeko, salbu eta mailegu-emaileak Administrazio Publikoari ordaindu dizkion gastu ez-itzulgarrien konpentsazioa.

3. Mailegu-emaile batek edo hirugarren batek kreditu-kontratuarekin zerikusia duen zerbitzu osagarri bat eskaintzen badu hirugarren horren eta mailegu-emailearen arteko akordio batean oinarrituta, kontsumitzaileak zerbitzu osagarri horri lotuta egoteari utziko dio kreditu-kontratuan atzera egiteko eskubidea baliatzen badu artikulua honetan xedatutakoaren arabera. Zerbitzu osagarri hori bizi-aseguruko kontratua bada, atzera egiteko eskubidea Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen 83.a) artikuluan ezarritakoaren arabera aplikatuko da, eta, gainerako kasuetan, kontsumitu gabeko primaren zatia itzultzeko eskubidea izango du kontsumitzaileak.

4. Kontsumitzaileak atzera egiteko eskubidea badu, ez dira aplikatuko kontsumitzaileei zuzendutako finantza-zerbitzuak urrutitik merkaturatzeari buruzko uztailaren 11ko 22/2007 Legearen 10. eta 11. artikulua, ezta azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileak Defendatzeko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bateginaren 110. artikulua ere.

## **29. artikulua. Kreditu-kontratu lotuak Balia daitezkeen eskubideak**

1. Kreditu-kontratu lotua da kontratu bat zeinean kontratatzen den kreditua ondasun espezifiko batzuen hornidurari edo zerbitzu espezifiko batzuen prestazioari buruzko kontratu bat finantzatzeko soilik erabiltzen baita, bi kontratuak merkataritza-unitate bat direlarik ikuspuntu objektibotik.

2. Kontsumitzaileak atzera egiteko eskubidea baliatu badu ondasunak edo zerbitzuak hornitzeko kontratu batean, zeina osorik edo partez kreditu-kon-

mediante un contrato de crédito vinculado, dejará de estar obligado por este último contrato sin penalización alguna para el consumidor.

3. El consumidor, además de poder ejercitar los derechos que le correspondan frente al proveedor de los bienes o servicios adquiridos mediante un contrato de crédito vinculado, podrá ejercitar esos mismos derechos frente al prestamista, siempre que concurren todos los requisitos siguientes:

- a) Que los bienes o servicios objeto del contrato no hayan sido entregados en todo o en parte, o no sean conforme a lo pactado en el contrato.
- b) Que el consumidor haya reclamado judicial o extrajudicialmente, por cualquier medio acreditado en derecho, contra el proveedor y no haya obtenido la satisfacción a la que tiene derecho.

### **Artículo 30. Reembolso anticipado**

1. El consumidor podrá liquidar anticipadamente, de forma total o parcial y en cualquier momento, las obligaciones derivadas del contrato de crédito. En tal caso, tendrá derecho a una reducción del coste total del crédito que comprenda los intereses y costes, incluso si éstos hubieran sido ya pagados, correspondientes a la duración del contrato que quede por transcurrir.

2. En caso de reembolso anticipado del crédito, el prestamista tendrá derecho a una compensación justa y justificada objetivamente por los posibles costes directamente derivados del reembolso anticipado del crédito, siempre que el reembolso anticipado se produzca dentro de un período en el cual el tipo deudor sea fijo.

Dicha compensación no podrá ser superior al 1 por 100 del importe del crédito reembolsado anticipadamente si el período restante entre el reembolso anticipado y la terminación acordada del contrato de crédito es superior a un año. Si el período no supera un año, la compensación no podrá ser superior al 0,5 por 100 del importe del crédito reembolsado anticipadamente.

3. No podrá reclamarse compensación alguna por reembolso anticipado:

- a) Si el reembolso se ha efectuado en cumplimiento de un contrato de seguro destinado a garantizar el reembolso del crédito.
- b) En caso de posibilidad de descubierto.
- c) Si el reembolso anticipado se produce dentro de un período para el que no se haya fijado el tipo de interés deudor.

tratu lotu baten bidez finantzatu baita, azken kontratu horrek behartua egoteari utziko dio kontsumitzaileak, inolako zigorrik jarri gabe.

3. Kontsumitzaileak, kreditu-kontratu lotu baten bidez eskuratutako ondasun edo zerbitzuen hornitzailearen aurrean dagozkion eskubideak baliatu ahal izateaz gain, eskubide horiek berak erabili ahal izango ditu mailegu-emailearen aurrean, baldintza hauek gutxiak betetzen baditu:

- a) Kontratuaren xede diren ondasun edo zerbitzuak osorik edo partez ez entregatzea edo kontratuan itundutakoarekin bat ez etortzea.
- b) Kontsumitzaileak, zuzenbidean akreditatutako edozein bide erabiliz, hornitzailearen aurka erreklamazio judiziala edo judizioz kanpoko agin eta eskubidezkoa duen gogobetetasuna ez lortzea.

### **30. artikulua. Diru-itzultze aurreratua**

1. Kontsumitzaileak aldez aurretik likidatu ahal izango ditu kreditu-kontratutik eratorritako betebeharrak, osorik edo partez eta edozein unetan. Kasu horretan, eskubidea izango du kredituaren kostu osoa murrizteko, kontratuari geratzen zaion denborari dagozkion interesak eta kostuak barne harturik, baita jada ordaindu badira ere.

2. Kreditua aldez aurretik itzultzen bada, mailegu-emaileak eskubidea izango du konpentsazio bat jasotzeko, bidezkoa eta objektiboki justifikatua, kredituaren itzulketa aurreratua zuzenean ekar ditzakeen kostuengatik, baldin eta itzulketa aurreratua tasa zorduna finkoa den aldi baten barruan egiten bada.

Kompentsazio hori ezin izango da handiagoa aldez aurretik itzulitako kredituaren zenbatekoaren 100eko 1 baino, baldin eta itzulketa aurreratutik kreditu-kontratuaren bukaera hitzartura bitartean urtebete baino gehiago bada. Denbora hori urtebete baino gutxiago bada, konpentsazioa ez da izango aldez aurretik itzulitako kredituaren % 0,5 baino gehiago.

3. Ezin izango da inolako konpentsaziorik eskatu aldez aurretik itzultzeagatik kasu hauetan:

- a) Kredituaren itzulketa bermatzeko aseguru-kontratu bat betez egin bada itzulketa.
- b) Zorpeko-aukera badago.
- c) Itzulketa aurreratua interes-tasa zorduna finkatu ez den aldi baten barruan egiten bada.

4. Si el prestamista demuestra la existencia de pérdidas producidas de forma directa como consecuencia del reembolso anticipado del crédito, podrá reclamar excepcionalmente una compensación más elevada que la establecida en el apartado 2 de este artículo.

Si la compensación reclamada por el prestamista supera las pérdidas sufridas realmente, el consumidor podrá exigir la reducción correspondiente.

En este caso, las pérdidas consistirán en aplicar a la cantidad anticipada la diferencia entre el tipo de interés acordado inicialmente y el tipo de interés al que el prestamista pueda prestar el importe del reembolso anticipado en el mercado en el momento de dicho reembolso, teniendo asimismo en cuenta el impacto del reembolso anticipado en los gastos administrativos. A estos efectos, se considerará como tipo de mercado el Euribor al plazo más cercano a la fecha de vencimiento del préstamo.

5. Ninguna compensación excederá del importe del interés que el consumidor habría pagado durante el período de tiempo comprendido entre el reembolso anticipado y la fecha pactada de finalización del contrato de crédito.

6. El reembolso anticipado de créditos que cuenten con un seguro vinculado a la amortización del crédito o a cuya suscripción se haya condicionado la concesión del crédito o su concesión en las condiciones ofrecidas, dará lugar a la devolución por parte de la entidad aseguradora al consumidor de la parte de prima no consumida.

### **Artículo 31. Cesión de los derechos**

1. Cuando los derechos del prestamista en virtud de un contrato de crédito o el propio contrato sean cedidos a un tercero, el consumidor tendrá derecho a oponer contra el tercero las mismas excepciones y defensas que le hubieren correspondido contra el acreedor originario, incluida la compensación.

2. Se informará al consumidor de la cesión indicada en el apartado anterior, excepto cuando el prestamista original, de acuerdo con el nuevo titular, siga prestando los servicios relativos al crédito al consumidor.

4. Mailegu-emaileak frogatzen badu kredituaren itzulketa aurreratuaren zuzeneko ondorio gisa galerak sortu zaizkiola, artikulua honen 2. apartatuan ezarritakoa baino konpentsazio handiagoa eskatu ahal izango du, salbuespenez.

Mailegu-emaileak erreklamaturako konpentsazioak benetan izandako galerak gainditzen baditu, dagokion murrizketa eska dezake kontsumitzaileak.

Kasu horretan, kopuru aurreratuari aplikatuko zaio hasieran adostutako interes-tasaren eta mailegu-emaileak itzulketa aurreratuaren unean merkatuan eman dezakeen interes-tasaren arteko diferentzia, kontuan harturik, halaber, itzulketa aurreratuak administrazio-gastuetan duen eragina. Ondorio horietarako, merkatuko tasatzat Euribor hartuko da, maileguaren mugaegunetik gertueneko epekoa.

5. Konpentsazioak ez du inoiz gaindituko kontsumitzaileak itzulketa aurreratuaren eta kreditu-kontratua amaitzeko itundutako egunaren artean ordaindu zuen interesa.

6. Kredituak aldeztatik itzultzeak, amortizazioari lotutako aseguru bat duten kasuan edo kreditua ematea edo eskainitako baldintzetan ematea halako aseguru bat sinatzearen baldintzapean jarri den kasuan, berekin ekarriko du aseguru-entitateak kontsumitzaileari itzultzea kontsumitu gabeko primaren zatia.

### **31. artikulua. Eskubideak lagatzea**

1. Mailegu-emaileak kreditu-kontratu baten edo kontratuaren beraren indarrez dituen eskubideak hirugarren bati lagatzen zaizkionean, kontsumitzaileak eskubidea izango du hirugarren horren aurka egiteko jatorrizko hartze-kodunaren aurka dagozkion salbuespen eta defentsa berberak, konpentsazioa barne.

2. Aurreko atalean adierazitako lagapenaren berri emango zaio kontsumitzaileari, salbu eta jatorrizko mailegu-emaileak, titular berriarekin bat, kontsumitzaileari kredituari dagozkion zerbitzuak ematen jarraitzen duenean.

## CAPÍTULO V

### Tasa anual equivalente

#### Artículo 32. Cálculo de la tasa anual equivalente

1. La tasa anual equivalente, que iguala sobre una base anual el valor actual de todos los compromisos existentes o futuros asumidos por el prestamista y por el consumidor, se calculará de acuerdo con la fórmula matemática que figura en la parte I del anexo I.

Los compromisos a que se refiere el párrafo anterior incluyen las disposiciones del crédito, los reembolsos y los gastos contemplados en la letra a) del artículo 6.

2. Para calcular la tasa anual equivalente se determinará el coste total del crédito para el consumidor, exceptuando los gastos que éste tendría que pagar por el incumplimiento de alguna de sus obligaciones con arreglo al contrato de crédito y los gastos, distintos del precio de compra, que corran por cuenta del consumidor en la adquisición de bienes o servicios, tanto si la transacción se paga al contado como a crédito.

Los costes de mantenimiento de una cuenta que registre a la vez operaciones de pago y de disposición del crédito, los costes relativos a la utilización de un medio de pago que permita ambas operaciones, así como otros costes relativos a las operaciones de pago, se incluirán en el coste total del crédito para el consumidor, salvo en caso de que la apertura de la cuenta sea opcional y los costes de ésta se hayan especificado de forma clara y por separado en el contrato de crédito o cualquier otro contrato suscrito con el consumidor.

3. El cálculo de la tasa anual equivalente se realizará partiendo del supuesto básico de que el contrato de crédito se mantendrá vigente durante el período de tiempo acordado y que el prestamista y el consumidor cumplirán sus obligaciones en las condiciones y en los plazos que se hayan acordado en el contrato de crédito.

4. En los contratos de crédito que contengan cláusulas que permitan modificaciones del tipo deudor y, en su caso, los gastos incluidos en la tasa anual equivalente que no sean cuantificables en el momento del cálculo, la tasa anual equivalente se calculará partiendo del supuesto básico de que el tipo deudor y los demás gastos se mantendrán fijos al nivel inicial y se aplicarán hasta el término del contrato de crédito.

5. Si fuera necesario, la tasa anual equivalente se podrá calcular tomando como base los supuestos adicionales que figuran en el anexo I.

## V. KAPITULUA

### Urteko tasa baliokidea

#### 32. artikulua. Urteko tasa baliokidearen kalkulua

1. Urteko tasa baliokidea, zeinak urteko oinarri batean gainean berdintzen baitu mailegu-emaileak eta kontsumitzaileak beren gain hartutako jadaneko edo etorkizuneko konpromiso guztien egungo balioa, I. eranskinaren I. zatian ageri den formula matematikoaren arabera kalkulatu da.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren konpromisoek barnean hartzen dituzte 6. artikuluko a) letran aipatzen diren kreditu xedapenak, diru-itzulketak eta gastuak.

2. Urteko tasa baliokidea kalkulatzeko, kredituak kontsumitzailearentzat duen kostu osoa zehaztu da, salbu eta kreditu-kontratuaren arabera bere betebeharren bat ez betetzeagatik kontsumitzaileak ordaindu beharko litzuzkeen gastuak eta, bai transakzioa eskura ordaintzen denean bai kredituz ordaintzen denean, ondasunak edo zerbitzuak erosterakoan kontsumitzailearen kontura doazen erosketa-prezioaz gainerako gastuak.

Ordaintzeko eta kreditua eskuratzeko eragiketak aldi berean erregistratzen dituen kontu baten mantentze-kostuak, bi eragiketak ahalbidetzen dituen ordainketa-bitarteko bat erabiltzearen kostuak eta ordainketa-eragiketei dagozkien beste kostu batzuk kontsumitzailearentzako kredituaren kostu osoan sartuko dira, salbu eta kontua irekitzea aukerakoa bada eta kontu horren kostuak argi eta bereizita zehaztu badira kreditu-kontratuan edo kontsumitzailearekin egindako beste edozein kontratutan.

3. Urteko tasa baliokidea kalkulatzean, suposatuko da kreditu-kontratua indarrean egongo dela adostutako epean, eta mailegu-emaileak eta mailegu-hartzaileak beren betebeharrak beteko dituztela, kreditu-kontratuan adostutako baldintzetan eta epeetan.

4. Tasa zorduneari eta, hala badagokio, kalkulua egiteko unean zenbatu ezin diren urteko tasa baliokidearen barruko gastuetan aldaketak egiteko aukera ematen duten klausulak dituzten kreditu-kontratuetan, urteko tasa baliokidea kalkulatzeko, suposatuko da tasa zordunak eta gainerako gastuek hasierako mailan finko jarraituko dutela eta kreditu-kontratua amaitu arte aplikatu direla.

5. Beharrezkoa bada, urteko tasa baliokidea kalkulatzeko oinarritzat hartu ahal izango dira I. eranskineko kasu gehigarriak.

## CAPÍTULO VI

### Intermediarios de crédito

#### Artículo 33. Obligaciones de los intermediarios de crédito respecto de los consumidores

1. Son obligaciones de los intermediarios de crédito:
  - a) Indicar en su publicidad y en la documentación destinada a los consumidores el alcance de sus funciones y representación, precisando en particular si trabajan en exclusiva con una o varias empresas o como intermediarios independientes.
  - b) En caso de que el consumidor deba pagar una remuneración al intermediario de crédito por sus servicios, informar de ella al consumidor y acordar con éste el importe de la misma, que deberá constar en papel u otro soporte duradero, antes de la celebración del contrato de crédito.
  - c) En caso de que el consumidor deba pagar una remuneración al intermediario de crédito por sus servicios, este último deberá comunicar el importe de la misma al prestamista, a efectos del cálculo de la tasa anual equivalente.

2. Lo dispuesto en el apartado anterior se entenderá sin perjuicio de las obligaciones señaladas en la Ley 2/2009, de 31 de marzo, por la que se regula la contratación con los consumidores de préstamos o créditos hipotecarios y de servicios de intermediación para la celebración de contratos de préstamo o crédito, y sin perjuicio de las obligaciones señaladas en la Ley 26/2006, de 17 de julio, de mediación de seguros y reaseguros privados, si se condicionara la concesión del crédito en las condiciones ofrecidas a la celebración de un contrato de seguro.

## CAPÍTULO VII

### Régimen sancionador

#### Artículo 34. Infracciones y sanciones administrativas

1. El incumplimiento de las disposiciones de esta Ley por personas físicas y jurídicas distintas de las previstas en el apartado 2 será sancionado como infracción en materia de consumo, aplicándosele lo dispuesto en el régimen sanciona-



## VI. KAPITULUA

### Kreditu-bitartekariak

#### 33. artikulua. Kreditu-bitartekariak kontsumitzaileekin dituzten betebeharrak

1. Kreditu-bitartekarien betebeharrak dira:

- a) Bere publizitatean eta kontsumitzaileei zuzendutako dokumentazioan adieraztea bere eginkizunen eta ordezkartzaren norainokoa, eta bereziki zehaztea enpresa batekin edo gehiagorekin modu esklusiboan lan egiten duten edo bitartekari independente gisa.
- b) Kontsumitzaileak kreditu-bitartekariari ordainsari bat ordaindu behar badio bere zerbitzuetatik, horren berri eman beharko dio kontsumitzaileari, eta, kreditu-kontratua egin baino lehen, ordainsariaren zenbatekoa adostu beharko du kontsumitzailearekin. Zenbatekoa paperean edo beste euskarri iraunkor batean jasoko da.
- c) Kontsumitzaileak kreditu-bitartekariari ordainsari bat ordaindu behar badio bere zerbitzuetatik, bitartekariak ordainsariaren zenbatekoaren berri eman beharko dio mailegu-emalari, urteko tasa baliokidea kalkulatzeko.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoak ez ditu eragozten 2/2009 Legean ezarritako betebeharrak (2/2009 Legea, martxoaren 31koa, kontsumitzaileekin hipoteka-maileguak edo -kredituak kontratatzea eta mailegu- edo kreditu-kontratuak egiteko bitartekaritza-zerbitzuak kontratatzea arautzen duena), ez eta 26/2006 Legean adierazitako betebeharrak ere (26/2006 Legea, uztailaren 17koa, aseguru eta berraseguru pribatuetako bitartekaritzari buruzkoa), baldin eta eskainitako baldintzetan kreditua ematea aseguru-kontratu bat egitearen mende jartzen bada.

## VII. KAPITULUA

### Zehapen-araubidea

#### 34. artikulua. Arau-hauste eta zehapen administratiboak

1. Lege honen xedapenak 2. apartatuan aurreikusitakoez beste pertsona fisiko eta juridiko batzuek betetzea kontsumo-arloko arau-hauste gisa zehatuko da, eta kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko zehapen-araubide oroko-

dor general de protección de los consumidores y usuarios previsto en el Título IV del libro primero del Texto Refundido de la Ley General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios y otras leyes complementarias, aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/2007, de 16 de noviembre, y demás normas aplicables, así como en las normas establecidas en las leyes autonómicas correspondientes.

No obstante, el incumplimiento de las disposiciones relativas a la información previa al contrato, según establece el artículo 10, y la obligación de evaluar la solvencia del consumidor prevista en el artículo 14, siempre que no tengan carácter ocasional o aislado, se considerarán como infracciones graves, pudiendo ser en su caso consideradas como infracciones muy graves atendiendo a los criterios previstos en el artículo 50 del citado Texto Refundido.

2. En el caso de entidades de crédito, se considerarán normas de ordenación y disciplina las disposiciones contenidas en el capítulo I exceptuado el artículo 5, en el capítulo II, en el capítulo III exceptuado el apartado 1 del artículo 15, en el capítulo V, en el capítulo VI exceptuado el apartado 2 del artículo 33, en los artículos 16 a 20 y en el artículo 35 de la presente Ley. Su incumplimiento, siempre que no tenga carácter ocasional o aislado, será sancionado como infracción grave, de acuerdo con lo previsto en la Ley 26/1988, de 29 de julio, sobre Disciplina e Intervención de las Entidades de Crédito.

3. En el expediente sancionador no podrán resolverse las cuestiones civiles o mercantiles que suscite el incumplimiento de las disposiciones de esta Ley.

4. Cuando el incumplimiento de los deberes de información a los que se refiere el apartado 3 del artículo 7 de esta Ley fuera constitutivo de infracción tipificada en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, será de aplicación el régimen de esta última, correspondiendo la competencia en materia sancionadora a la Agencia Española de Protección de Datos.

## CAPÍTULO VIII

### Régimen de impugnaciones

#### Artículo 35. Reclamación extrajudicial

1. El prestamista, el intermediario de crédito y el consumidor podrán someter sus conflictos al arbitraje de consumo, mediante adhesión de aquéllos al Sistema Arbitral del Consumo o a otros sistemas de resolución extrajudicial de conflictos, que figuren en la lista que publica la Comisión Europea sobre siste-

rrean xedatutakoa aplikatuko zaie, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileak Babesteko Lege Orokorraren Testu Bategineko lehenengo liburuko IV. tituluari eta beste lege osagarri batzuetan ezarritakoa.

Hala ere, kontratu aurreko informazioari buruzko xedapenak 10. artikuluan ezarritakoaren arabera ez betetzea, eta 14. artikuluan aurreikusitako kontsumitzailearen kaudimena ebaluatzeko betebeharra ez betetzea, ez badira inoizkakoak edo bakanak, arau-hauste astuntzat joko dira, eta, hala badagokio, arau-hauste oso astuntzat har daitezke, aipatutako Testu Bateginaren 50. artikuluan aurreikusitako irizpideen arabera hala badagokio.

2. Kreditu-erakundeen kasuan, antolamendu- eta diziplina-arauetat hartuko dira lege honen I. kapituluko xedapenak (5. artikulua izan ezik), II. kapitulukoak, III. kapitulukoak (15. artikulua 1. apartatua izan ezik), V. kapitulukoak, VI. kapitulukoak (33. artikulua 2. apartatua izan ezik), 16. artikulutik 20.era bitartekoak eta 35. artikulua. Ez-betetzea, inoizkako edo bakana ez bada, arau-hauste astun gisa zehatuko da, Kreditu Erakundeen Diziplina eta Esku-hartzeari buruzko uztailaren 29ko 26/1988 Legean ezarritakoaren arabera.

3. Zehapen-espeditentean ezin izango dira ebatzi lege honetako xedapenak ez betetzearen ondoriozko arazo zibil edo merkataritzakoak.

4. Lege honen 7. artikulua 3. apartatua aipatzen diren informazio-betebeharrak ez betetzea Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan tipifikatutako arau-haustea denean, lege horren arabera aplikatuko da, eta zehapenaren arloko eskumena Datuak Babesteko Espainiako Agentziari dagokio.

## VIII. KAPITULUA

### Aurkaratzeen arabidea

#### 35. artikulua. Judizioz kanpoko erreklamazioa

1. Mailegu-emaileak, kreditu-bitartekariak eta kontsumitzaileak kontsumo-arbitrajearen mende jar ditzakete beren gatazkak, horretarako Kontsumoko Arbitraje Sistemari edo gatazkak judizioz kanpo ebazteko beste sistema batzuei atxikita, zeinak agertzen baitira sistema horiek Europako Batzordeak kontsumi-

mas alternativos de resolución de conflictos con consumidores y que respete los principios establecidos por la normativa europea, así como a los mecanismos previstos en la legislación sobre protección de los clientes de servicios financieros, en la medida en que el prestamista o el intermediario de crédito estén sometidos a los mecanismos previstos en ella.

2. Los órganos arbitrales de consumo o los órganos previstos en la legislación sobre protección de los clientes de servicios financieros, que intervengan en la resolución de estas reclamaciones, habrán de cooperar en la resolución de los conflictos de carácter transfronterizo que se produzcan a nivel intracomunitario, a través de la Red transfronteriza de denuncia extrajudicial sobre servicios financieros o cualquier otro mecanismo habilitado al efecto.

### **Artículo 36. Acción de cesación**

Contra las conductas contrarias a esta Ley podrá ejercitarse la acción de cesación conforme a lo previsto en los artículos 53, apartados 1 y 2 del 54, 55 y 56 del texto refundido de la Ley General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios y otras leyes complementarias, aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/2007, de 16 de noviembre, y, en lo no previsto por ésta, será de aplicación la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

A la acción de cesación frente a estas cláusulas o prácticas en el ámbito de aplicación de esta Ley, podrá acumularse, como accesoria, la de devolución de cantidades que se hubiesen cobrado en virtud de su aplicación y la de indemnización de daños y perjuicios que hubiere causado la aplicación de las mismas.

### **Disposición transitoria. Contratos preexistentes**

La presente Ley no se aplicará a los contratos de crédito en curso en la fecha de su entrada en vigor.

Sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo anterior, los artículos 18, 19, 27 y 31, así como los apartados 2 y 3 del artículo 20 de esta Ley, serán de aplicación a los contratos de crédito de duración indefinida que hayan sido celebrados antes de la entrada en vigor de esta Ley.

Estos contratos deberán adaptarse a lo previsto en la presente Ley en el plazo de doce meses contados desde su fecha de entrada en vigor. Para ello, las entidades remitirán a sus clientes, a través del medio de comunicación pactado, las modificaciones contractuales derivadas de la aplicación de esta Ley, a fin de que puedan otorgar su consentimiento a los cambios introducidos. Si no hubiera sido pactado el medio de comunicación, la notificación se efectuará a tra-

tzaileekiko gatazkak konpontzeko sistema alternatiboei buruz argitaratzen duen zerrendan eta zeinek errespetatu behar baitituzte Europako araudiak ezarritako printzipioak, bai eta finantza-zerbitzuen bezeroak babesteko legerian aurreikusitako mekanismoak ere, mailegu-emailea edo bitartekaria legeria horretan aurreikusitako mekanismoen mende dagoen neurrian.

2. Kontsumoko arbitraje-organismoek edo finantza-zerbitzuen bezeroak babesteari buruzko legerian aurreikusitako organismoek, erreklamazio horiek ebazten parte hartzean, lagundu beharko dute Europar Batasunaren barruan gertatzen diren mugaz gaindiko gatazkak konpontzen, finantza-zerbitzuei buruzko judizioz kanpoko salaketa-sarearen bidez edo horretarako gaitutako beste edozein mekanismoren bidez.

### **36. artikulua. Bukarazte-akzioa**

2. Las secciones 2.<sup>a</sup>, 3.<sup>a</sup> y 4.<sup>a</sup> de este Capítulo no se aplicarán a las entidades de crédito, a las sucursales en España de entidades de crédito extranjeras o que operen en régimen de libre prestación de servicios, a los establecimientos financieros de crédito ni a las entidades de pago o de dinero electrónico híbridas a que se refiere el artículo 11 de la Ley 5/2015, de 27 de abril, de fomento de la financiación empresarial.

3. Los artículos 27 a 32 no serán de aplicación a las personas que realicen las actividades de intermediación de crédito previstas en el artículo 4.5), siempre que dichas actividades se ejerzan de forma accesoria en el marco de una actividad profesional regulada por disposiciones legales o reglamentarias que no excluyan la pres-

2. Artikulu honetako berandutze-interesari buruzko arauk ez dute onartzen kontrako itunik.

### III. KAPITULUA

#### Higiezin-kredituen bitartekarien, haien ordezkari izendatuen eta higiezin-maileguen emaileen araubide juridikoa

##### I. ATALA

##### *Printzipio orokorrak*

#### 26. artikulua. Araubide juridikoa

1. Higiezin-kredituen bitartekarien, haien ordezkari izendatuen eta higiezin-maileguen emaileen araubide juridikoa honako arau hauek ezarritakoa izango da:

- a) Lege hau eta berau garatzen duten xedapenak.
- b) Autonomia-erkidegoek arlo horretan dituzten eskumenak erabiliz onesten dituzten xedapenak, zeinek edozein kasutan errespetatu behariko baitituzte aurreko apartatuan aipatutako arauetan ezarritako aurreikuspenak.
- c) Ordezko moduan, eta mailegu-hartzailea kontsumitzailea den kasurako, 2/2009 Legea, martxoaren 31koa, kontsumitzaileekin hipoteka-mailegu edo -kredituen kontratazioa eta mailegu edo kreditu-kontratuak egiteko bitartekaritza-zerbitzuak arautzen dituenak.

2. Kapitulu honetako 2., 3. eta 4. atalak ez zaizkie aplikatuko kreditu-erakundeei, atzerriko kreditu-erakundeen Espainiako sukurtsalei edo zerbitzuak askatasunez emateko araubidean jarduten dutenei, ez kredituko finantza-establezimenduei, ez enpresa-finantzaketa sustatzeko apirilaren 27ko 5/2015 Legearen 11. artikuluan aipatzen diren ordainketa-erakundeei edo diru elektronikoko hibridokoei.

3. 27. artikulutik 32. artikulura bitartekoak ez zaizkie aplikatuko 4.5) artikuluan aurreikusitako kreditu-bitartekaritzako jarduerak egiten dituzten pertsonai, baldin eta jarduera horiek modu osagarrian egiten badira jarduera edo zerbitzu horien prestazioa baztertzen ez duten legezko edo erregelamenduzko xedapenak

tación de tales actividades o servicios, y siempre que la actividad de intermediación de crédito, sin constituir su actividad principal, esté íntimamente relacionada con la prestación del contrato principal celebrado entre el profesional y el prestatario.

## SECCIÓN 2.<sup>a</sup>

### *Intermediarios de crédito inmobiliario*

#### **Artículo 27. Registro**

1. Los intermediarios de crédito inmobiliario deberán estar inscritos en uno de los registros señalados en esta Ley para poder desarrollar, total o parcialmente, de forma válida las actividades de intermediación crediticia a que se refiere el artículo 4.5) o para prestar servicios de asesoramiento.

2. Los intermediarios de crédito inmobiliario autorizados en un Estado miembro de la Unión Europea que actúen a través de sucursal o en régimen de libre prestación de servicios serán inscritos por el Banco de España en el registro a que se refiere el artículo 28.2.b), a efectos meramente informativos, una vez sea comunicada por parte de la autoridad competente de origen la voluntad del intermediario de prestar su actividad en España.

#### **Artículo 28. Gestión del registro**

1. La gestión del registro será asumida por el Banco de España o por el órgano competente de cada Comunidad Autónoma, atendiendo al ámbito geográfico de actuación del intermediario de crédito inmobiliario.

2. Corresponderá al Banco de España la gestión de la inscripción de:

- a) los intermediarios de crédito inmobiliario que operen o vayan a operar con prestatarios con domicilios situados en todo el Estado o en el ámbito territorial de más de una Comunidad Autónoma, siempre que tenga la sede de su administración central en España, con independencia de que, adicionalmente, operen o vayan a operar a través de sucursal o en régimen de libre prestación de servicios en otros Estados, y
- b) los intermediarios de crédito inmobiliario que vayan a operar en España a través de sucursal o en régimen de libre prestación de servicios, cualquiera que sea el ámbito geográfico en el que vayan a desarrollar su actividad.

3. La gestión de la inscripción de los intermediarios de crédito inmobiliario que operen o vayan a operar exclusivamente con prestatarios domicilia-



araututako lanbide-jarduera baten esparruan, eta, betiere, kreditu-bitartekaritzaren jarduerak, jarduera nagusia izan gabe, lotura estua badu profesionalaren eta mailegu-hartzailearen artean egindako kontratu nagusiaren prestazioarekin.

## 2. ATALA

### *Higiezin-kredituen bitartekariak*

#### **27. artikulua. Erregistroa**

1. Higiezin-kredituen bitartekariak lege honetan adierazitako erregistroetako batean inskribatuta egon beharko dute 4.5) artikuluan aipatzen diren kreditu-bitartekaritzako jarduerak osorik edo partez baliozko moduan egiteko edo aholkularitza-zerbitzuak emateko.

2. Europar Batasuneko estatu kide batean baimendutako higiezin-kredituen bitartekariak, sukurtsalaren bidez edo zerbitzuak askatasunez emateko araubidean jarduten badute, 28.2.b) artikuluan aipatzen den erregistroan inskribatuko ditu Espainiako Bankuak, informazioa emateko soilik, jatorrizko agintari eskudunak bitartekariak Espainian jarduteko duen borondatearen berri emandakoan.

#### **28. artikulua. Erregistroaren kudeaketa**

1. Espainiako Bankuak edo autonomia-erkidego bakoitzeko organo eskudunak hartuko du bere gain erregistroaren kudeaketa, higiezin-kredituen bitartekariaren jarduera-eremu geografikoa kontuan hartuta.

2. Espainiako Bankuari dagokio hauen izen-ematea kudeatzea:

- a) Estatu osoan edo autonomia-erkidego bat baino gehiagoren lurralde-eremuan bizilekuak dituzten mailegu-hartzaileekin lan egiten duten edo egingo duten higiezin-kredituen bitartekariak, baldin eta beren administrazio zentralaren egoitza Espainian badute, alde batera utzirik horrez gain sukurtsalaren bidez edo beste estatu batzuetan zerbitzuak askatasunez emateko araubidean jarduten edo jardungo duten edo ez.
- b) Espainian sukurtsal bidez edo zerbitzuak askatasunez emateko araubidean jardungo duten higiezin-kredituen bitartekariak, edozein dela ere jardungo duten eremu geografikoa.

3. Autonomia-erkidego bakar bateko lurralde-eremuan helbideratutako mailegu-hartzaileekin soilik lan egiten duten edo egingo duten higiezin-kre-

dos dentro del ámbito territorial de una única Comunidad Autónoma, con independencia de que, adicionalmente, desarrollen o pretendan desarrollar sus actividades a través de sucursal o en régimen de libre prestación de servicios en otros Estados, corresponderá al órgano competente de dicha Comunidad Autónoma, siempre que la sede de su administración central esté localizada en la misma.

4. Todo intermediario de crédito inmobiliario que sea persona jurídica deberá tener su administración central en su domicilio social. En caso de no ser una persona jurídica, o si siendo una persona jurídica no tiene su domicilio social en España, deberá tener su administración central en el Estado miembro en que ejerza de hecho sus actividades principales.

5. El Banco de España será el punto único de contacto a efectos de facilitar y agilizar la cooperación y el intercambio de información con otros Estados.

## **Artículo 29. Requisitos para la inscripción**

1. La inscripción en el correspondiente registro requerirá la previa verificación del cumplimiento de los requisitos para poder operar señalados en la presente Ley y sus normas de desarrollo por parte de la autoridad competente para su gestión.

2. En particular, la autoridad competente verificará que los intermediarios de crédito inmobiliario:

- a) cuenten con la garantía señalada en el artículo 36;
- b) cuenten con los procedimientos escritos, así como con la capacidad técnica y operativa para el adecuado cumplimiento de los requisitos de información a que se refiere el artículo 35; dispongan de medios internos adecuados para la resolución de las reclamaciones de sus prestatarios, conforme a lo previsto en la disposición adicional primera y en la disposición transitoria quinta;
- c) hayan designado un representante ante el Servicio Ejecutivo de la Comisión de Prevención del Blanqueo de Capitales e Infracciones Monetarias conforme a lo previsto en el artículo 35.1 del Reglamento de prevención del blanqueo de capitales y de la financiación del terrorismo, aprobado por el Real Decreto 304/2014, de 5 de mayo, cuando se cumplan los requisitos establecidos en el artículo 31.1 de dicha norma;
- d) dispongan de un plan de formación en los conocimientos y competencias a que se refiere el artículo 16 y sus normas de desarrollo.

dituko bitartekarien inskripzioa kudeatzea, alde batera utzirik horrez gain sukurtsal bidez edo zerbitzuak askatasunez emateko araubidean beste estatu batzuetan jarduten edo jardun nahi duten edo ez, autonomia-erkidego horretako organo eskudunari dagokio, betiere administrazio zentralaren egoitza erkidego horretan badago.

4. Higiezin-kredituen bitartekari orok, pertsona juridikoa bada, bere egoitza sozialean izan beharko du administrazio zentrala. Pertsona juridikoa ez bada, edo pertsona juridikoa izanik bere egoitza soziala Espainian ez badu, jarduera nagusiak egiten dituen estatu kidean izan beharko du administrazio zentrala.

5. Espainiako Bankua izango da harremanetarako gune bakarra beste estatu batzuekiko lankidetzat eta informazio-trukea erraztu eta arintzeko.

## **29. artikulua. Inskribatzeko betekizunak**

1. Dagokion erregistroan inskribatu ahal izateko, hura kudeatzeko eskumena duen agintariak alde aurretik egiaztatu beharko du betetzen dituela lege honetan eta berau garatzeko arauetan jarduteko ezarritako baldintzak.

2. Bereziki, agintari eskudunak egiaztatuko du higiezin-kredituen bitartekariak:

- a) badutela 36. artikuluan adierazitako bermea;
- b) badituztela idatzizko prozedurak, bai eta 35. artikuluan aipatzen diren informazio-baldintzak egoki betetzeko gaitasun teknikoa eta operatiboa ere; badituztela zerbitzu-emaileen erreklamazioak ebazteko barne-baliabide egokiak, lehenengo xedapen gehigarrian eta bosgarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera;
- c) ordezkari bat izendatu dutela Kapital-zuritzearen eta Arau-hauste Monetarioen Prebentziorako Batzordearen Zerbitzu Exekutiboaren aurrean, maiatzaren 5eko 304/2014 Errege Dekretuak onetsitako Kapital-zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko Erregelamenduaren 35.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, arau horren 31.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direnean;
- d) badutela ezagutza eta gaitasunetan trebatzeko plan bat, 16. artikuluan eta hura garatzeko arauetan aipatzen dena.

3. Además, la autoridad competente verificará respecto de las personas físicas establecidas como intermediarios de crédito inmobiliario o de los administradores de un intermediario de crédito inmobiliario con forma de persona jurídica que:

- a) dispongan del nivel de conocimientos y competencia establecidos en el artículo 16;
- b) posean reconocida honorabilidad comercial y profesional;
- c) carezcan de antecedentes penales por haber cometido delitos graves, ya sea contra la propiedad, el patrimonio y el orden socioeconómico, de falsedad o cualquier otro cometido con ocasión del ejercicio de actividades financieras;
- d) no hayan sido declarados en concurso con anterioridad salvo que hayan sido rehabilitados.

Igualmente, la autoridad competente verificará que se cumplan el resto de los requerimientos que el Gobierno pueda establecer mediante Real Decreto.

4. Los criterios establecidos de conformidad con el artículo 16 para determinar si el personal de los intermediarios de crédito inmobiliario cumple los requisitos de conocimientos y competencia serán publicados por los correspondientes registros a que se refiere el artículo 27.

### **Artículo 30. Procedimiento de inscripción**

1. El procedimiento para inscripción en el registro de intermediarios de crédito inmobiliario será el siguiente:

- a) El plazo para resolver será de 3 meses desde la recepción de la solicitud en el registro del órgano competente.
- b) La solicitud se entenderá desestimada por silencio administrativo si, transcurrido ese plazo máximo, no se hubiera notificado resolución expresa.
- c) La decisión sobre la procedencia o improcedencia de la inscripción deberá motivarse.
- d) Durante la tramitación del procedimiento podrán subsanarse las deficiencias detectadas en la solicitud de inscripción y requerirse cuanta información adicional se considere necesaria para comprobar el cumplimiento de los requisitos exigibles para ser inscrito.

2. El plazo máximo para resolver se podrá suspender hasta la obtención de dicha información, en los términos previstos en el artículo 22 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

3. Gainera, agintari eskudunak egiaztatuko du, higiezin-kredituen bitartekari gisa ezarritako pertsona fisikoei edo pertsona juridiko baten gisako higiezin-kredituen bitartekari baten administratzaileei dagokienez:

- a) badutela 16. artikuluan ezarritako ezagutza- eta gaitasun-maila;
- b) ohore komertzial eta profesional aitortua dutela;
- c) ez dutela aurrekari penalik delitu larriengatik, ez jabetzaren, ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkakoengatik, ez faltsutasunengatik, ez finantza-jardueretan aritzean egindako beste edozein eginkizunengatik.
- d) ez direla lehenago konkurtsoan deklaratu, edo birgaitu direla.

Era berean, agintari eskudunak egiaztatuko du betetzen direla Gobernuak errege-dekretu bidez ezartzen dituen gainerako errekerimenduak.

4. Higiezin-kredituetako bitartekarien pertsonalak ezagupen eta gaitasun baldintzak betetzen ote dituen zehazteko 16. artikuluari jarraikiz ezarritako irizpideak 27. artikuluan aipatzen diren erregistroetan argitaratuko dira.

### **30. artikulua. Inskribatzeko prozedura**

1. Higiezin-kredituen bitartekarien erregistroan inskribatzeko prozedura hau izango da:

- a) Ebazteko epea 3 hilabete izango da, eskaera organo eskudunaren erregistroan jasotzen denetik hasita.
- b) Eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertuko da gehieneko epe hori igarotakoan ez bada ebazpen espresurik jakinarazi.
- c) Inskripzioa bidezkoa den edo ez erabakitzean, arrazoiak eman beharko dira.
- d) Prozedura izapidetzen den bitartean, inskripzio-eskabidean atzemandako akatsak zuzendu ahal izango dira, eta inskribatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio osagarri guztia eskatu.

2. Ebazteko gehieneko epea eten ahal izango da informazio hori lortu arte, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22 artikulua aurreikusten duen moduan.

3. En el caso de inscripción de intermediarios de crédito vinculados a un solo prestamista, corresponderá a dicho prestamista la solicitud de reconocimiento e inscripción del intermediario de que se trate en el registro correspondiente.

### **Artículo 31. Información y publicidad del registro**

1. Los registros de intermediarios de crédito inmobiliario deberán contener, al menos, la información siguiente:

- a) los nombres de los titulares y administradores, de sus representantes designados, así como de los administradores de las sucursales radicadas en España y de los intermediarios de crédito inmobiliario operantes en régimen de libre prestación de servicios en España,
- b) el Estado o Estados miembros en los que el intermediario de crédito inmobiliario realice actividades en régimen de libre establecimiento o de libre prestación de servicios,
- c) la indicación de si el intermediario de crédito inmobiliario está vinculado o no con un único prestamista y, si así fuera, la identificación de éste, y
- d) los datos identificativos de la entidad con la que se ha contratado la garantía prevista en el artículo 36.

2. El registro será público, gratuito para los ciudadanos y garantizará el acceso pleno de forma fácil y rápida y estará disponible en línea. Las autoridades competentes para su gestión establecerán los medios necesarios para asegurar estos principios y para mantener actualizada de forma permanente toda la información incluida.

El Banco de España informará, asimismo, sobre los órganos competentes para el registro y supervisión de los intermediarios de crédito inmobiliario en cada Comunidad Autónoma y Estado miembro de la Unión Europea.

3. Al objeto de asegurar la coherencia, calidad y unidad de la información a suministrar al prestatario y a otros Estados miembros, el Banco de España podrá establecer mediante circular los requisitos técnicos mínimos respecto al contenido y formato de la información que debe reflejar el registro y la información introducida por la autoridad que, conforme al artículo 28, asuma su gestión.

4. El Banco de España creará un punto único de información que permita el acceso público fácil y rápido y que agregará la información del conjunto de registros. A estos efectos, las autoridades competentes de las Comunidades Autónomas encargadas de la gestión del registro en su territorio deberán comuni-

3. Mailegu-emaile bakar bati lotutako kreditu-bitartekariak inskribatzen badira, mailegu-emaile horri dagokio kasuan kasuko bitartekaria dagokion erregistroan aitortu eta inskribatzeko eskaera egitea.

### **31. artikulua. Erregistroaren informazioa eta publizitatea**

1. Higiezin-kredituen bitartekarien erregistroetan informazio hau jaso beharko da, gutxienez:

- a) titularren eta administratzaileen izenak, haien ordezkari izendatuena, Espainian dauden sukurtsalen administratzaileenak eta Espainian zerbitzuak askatasunez emateko araubidean diharduten higiezin-kredituen bitartekariena,
- b) higiezin-kredituen bitartekariak establezimendu askeko edo zerbitzuak askatasunez emateko araubidean jarduerak egiten dituen estatu kidea(k),
- c) higiezin-kredituen bitartekaria mailegu-emaile bakarrarekin lotuta dagoen ala ez; eta, hala bada, mailegu-emaile horren identifikazioa, eta
- d) 36. artikuluan aurreikusitako bermea kontratatu den erakundearen identifikazio-datuak.

2. Erregistroa publikoa izango da, doakoa herritarrentzat; sarbide osoa bermatuko du erraz eta azkar, eta linean eskuragarri egongo da. Hura kudeatzeko eskumena duten agintariek behar diren baliabideak ezarriko dituzte printzipio horiek bermatzeko eta barne hartutako informazio guztia etengabe eguneratuta edukitzeko.

Halaber, Espainiako Bankuak higiezin-kredituen bitartekariak erregistratzeko eta ikuskatzeko eskumena duten organoei buruzko informazioa emango du autonomia-erkidego bakoitzean eta Europar Batasuneko estatu bakoitzean.

3. Mailegu-hartzaileari eta beste estatu kide batzuei eman beharreko informazioaren koherentzia, kalitatea eta batasuna ziurtatzeko, Espainiako Bankuak zirkular bidez ezarri ahal izango ditu gutxienerako baldintza teknikoak, erregistroak eta autoritateak sartutako informazioak islatu behar duen informazioaren edukari eta formatuari dagokionez, eta, 28. artikulua arabera, hark bere kudeaketa bere gain hartzen badu.

4. Espainiako Bankuak informazio-gune bakar bat sortuko du, sarbide publiko erraza eta azkarra ahalbidetuko duena eta erregistro guztien informazioa gehituko duena. Ondorio horietarako, beren lurraldeko erregistroaren kudeaketaz arduratzen diren autonomia-erkidegoetako agintari eskudunek datuen

car, y actualizar, los actos de registro, variación de datos y cancelación al Banco de España por los medios y con la periodicidad que establezca el Banco de España mediante circular.

### **Artículo 32. Revocación de la inscripción en el registro**

1. La autoridad competente para la gestión del registro con arreglo al artículo 28 podrá revocar el reconocimiento para operar como intermediario de crédito inmobiliario en el correspondiente registro, si éste, o, en su caso, el prestamista para el que trabaje en exclusiva:

- a) renuncia expresamente al mismo o no ha llevado a cabo actividades o prestado ninguno de los servicios contemplados en el artículo 4.5), durante los seis meses inmediatamente anteriores al inicio del expediente de revocación,
- b) ha obtenido el reconocimiento por medio de declaraciones falsas o engañosas o por cualquier otro medio irregular,
- c) deja de cumplir sobrevenidamente los requisitos requeridos para la inscripción en el correspondiente registro, o
- d) se impone mediante resolución sancionadora firme.

2. Previa audiencia al interesado, la resolución que revoque el reconocimiento para operar como intermediario de crédito inmobiliario, de la que se dejará constancia en el registro, determinará la cancelación automática de la inscripción.

En el supuesto contemplado en la letra a) del apartado anterior, se podrá prescindir del trámite de audiencia cuando no figuren otros interesados ni sean tenidos en cuenta otros hechos o alegaciones que las aducidas por el interesado.

3. El Banco de España notificará la revocación de la inscripción, en su caso, a las autoridades competentes del Estado o Estados miembros de acogida por cualquier medio que resulte adecuado. Esta comunicación habrá de realizarse de forma inmediata a la revocación o en plazo más breve posible, que no será superior a catorce días. Si la autoridad competente fuera la autonómica, deberá comunicar la revocación al Banco de España de forma inmediata, sin que el plazo de la comunicación pueda superar los 10 días.

### **Artículo 33. Supervisión de los intermediarios de crédito inmobiliario**

1. Corresponderá la supervisión de los intermediarios de crédito inmobiliario al Banco de España o al órgano competente de la Comunidad Autónoma, conforme a lo previsto para el registro en el artículo 28. Además, corresponderá



erregistro-, aldaketa- eta ezerezte-egintzen berri eman beharko diote Espainiako Bankuari, eta eguneratu, zirkular bidez eta Espainiako Bankuak ezartzen duen maiztasunarekin.

### **32. artikulua. Erregistroko inskripzioa errebokatzea**

1. 28. artikulua arabera erregistroa kudeatzeko eskumena duen agintaritzak higiezin-kredituen bitartekari gisa jarduteko aitortpena errebokatu ahal izango du dagokion erregistroan, baldin eta erregistro horrek edo, bestela, esklusiboki lan egiten duen mailegu-emaileak:

- a) berariaz uko egiten badio, edo 4.5) artikuluan aipatzen diren jarduerak edo zerbitzuak egin ez baditu, errebokatze-espeditentea hasi aurreko sei hilabeteetan.
- b) aitorten faltsu edo engainagarrien bidez edo beste edozein bitarteko irregularren bidez lortu badu aitortpena,
- c) dagokion erregistroan inskribatzeko eskatzen diren baldintzak bete-tzeari uzten badio gerora, edo
- d) ebazpen zehatzaile irmo baten bidez ezartzen da.

2. Interesdunari entzun ondoren, higiezin-kredituen bitartekari gisa jarduteko aitortpena ezeztatzen duen ebazpenak inskripzioa automatikoki ezereztea ekarriko du. Ebazpen hori erregistroan jasoko da.

Aurreko apartatuko a) letran aipatzen den kasuan, entzunaldiaren izapidea alde batera utzi ahal izango da baldin eta beste interesdunik ez badago eta interesdunak alegatutakoez bestelako gertaera edo alegaziorik kontuan hartzen ez bada.

3. Espainiako Bankuak inskripzioa errebokatu dela jakinaraziko die, hala gertatzen bada, harrerako estatu kideetako agintari eskudunei, egoki den edozein bide erabiliz. Jakinarazpen hori errebokatzea gertatu bezain laster egin beharko da, edo ahalik eta lasterren; gehienez ere, hamalau eguneko epean. Agintaritza eskuduna autonomikoa bada, Espainiako Bankuari berehala jakinarazi beharko dio errebokatzearen berri; jakinarazteko epea ez da 10 egunetik gorakoa izango.

### **33. artikulua. Higiezin-kredituen bitartekariak gainbegiratzea**

1. Higiezin-kredituen bitartekariak Espainiako Bankuaren edo autonomia erkidegoko organo eskudunaren ardura izango dira, 28. artikuluan erregistro-rako aurreikusitakoaren arabera. Gainera, Espainiako Bankuari dagokio Espai-

al Banco de España la supervisión de los intermediarios de crédito inmobiliario que actúen en España a través de sucursal o en régimen de libre prestación de servicios conforme a lo previsto en el artículo 34.

2. La autoridad competente se asegurará de que los intermediarios de crédito inmobiliario y sus representantes designados consten en el registro y cumplan permanentemente las obligaciones establecidas en esta Ley y su normativa de desarrollo.

3. Las actividades de los intermediarios de crédito inmobiliario vinculados a un único prestamista inmobiliario serán vigiladas por éste, a fin de asegurar que cumplen las disposiciones de la presente Ley y sus normas de desarrollo, sin perjuicio de las facultades de supervisión de la autoridad competente. En particular, el prestamista será igualmente responsable de vigilar el cumplimiento de los requisitos de conocimientos y competencia del intermediario de crédito inmobiliario vinculado y de su personal.

El prestamista responderá frente a las autoridades competentes de toda acción u omisión del intermediario de crédito inmobiliario vinculado que actúe en nombre del prestamista respecto de las obligaciones señaladas en la presente Ley. Si se tratase de un intermediario de crédito no vinculado, el prestamista y el intermediario responderán solidariamente, pudiendo repetir, en su caso, el prestamista contra el intermediario.

#### **Artículo 34. Supervisión de la actuación a través de sucursales y en régimen de libre prestación de servicios de los intermediarios de crédito inmobiliario**

1. Si el Banco de España comprueba que una sucursal de un intermediario de crédito inmobiliario o un intermediario de crédito inmobiliario en régimen de libre prestación de servicios establecido en España no cumple la normativa aplicable en materia de normas de conducta en la concesión de préstamos al prestatario, obligación de información gratuita a los prestatarios o prestatarios potenciales, requisitos de conocimiento y competencia aplicables al personal, publicidad y comercialización, información general y precontractual, información en relación con los intermediarios de crédito inmobiliario y los representantes designados, explicaciones adecuadas, cálculo de la TAE, revelación y verificación de la información relativa al prestatario, servicios de asesoramiento y mecanismos de resolución extrajudicial de litigios, le exigirá que ponga fin a su situación irregular.

Si el intermediario de crédito inmobiliario no realiza las actuaciones oportunas, el Banco de España podrá adoptar las medidas previstas en los Títulos

nian sukurtsal bidez edo zerbitzuak libreki emateko araubidean diharduten higiezin-kredituen bitartekariak gainbegiratzea, 34. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2. Agintaritzza eskudunak ziurtatuko du higiezin-kredituen bitartekariak eta haien ordezkari izendatuak erregistroan jasota daudela eta etengabe betetzen dituztela lege honetan eta berau garatzeko araudian ezarritako betebeharrak.

3. Higiezin-maileguren emaile bakar bati lotutako higiezin-kredituen bitartekariaren jarduerak hark zainduko ditu, lege honetan eta berau garatzeko araudian ezarritako xedapenak betetzen dituztela ziurtatzeko, agintaritzza eskudunak gainbegiratzeko dituen ahalmenak ukatu gabe. Bereziki, mailegu-emailearen ardura izango da, orobat, higiezin-kredituen bitartekari lotuaren eta haren langileen ezagutza- eta gaitasun-baldintzak betetzen direla zaintzea.

Mailegu-emailea izango da erantzule, agintari eskudunen aurrean, mailegu-emailearen izenean jarduten duen higiezin-kredituen bitartekari lotuak lege honetan adierazitako betebeharrari dagokienez egiten duen egintza edo omisio ororengatik. Lotu gabeko kreditu-bitartekaria izanez gero, mailegu-emaileak eta bitartekariak erantzukizun solidarioa izango dute, eta mailegu-emaileak bitartekariaren aurka berreskatu ahal izango du, hala badagokio.

#### **34. artikulua. Higiezin-kredituen bitartekariak sukurtsal bidez eta zerbitzuak libreki emateko araubidean duten jarduera gainbegiratzea**

1. Espainiako Bankuak egiaztatzen badu higiezin-kredituen bitartekari baten sukurtsal batek edo Espainian zerbitzu-emate askeko araubidean ari den higiezin-kredituen bitartekari batek ez duela betetzen mailegu-hartzaileari maileguak emateko jokabide-arauei buruzko araudia, mailegu-hartzailei edo mailegu-hartzaile izan daitezkeenei doako informazioa emateko betebeharra, langileei aplikatu dakizkiekeen ezagutza- eta gaitasun-betekizunak, publizitatea eta merkaturatzea, informazio orokorra eta kontratu aurrekoa, higiezin-kredituen bitartekariaren eta ordezkari izendatuaren inguruko informazioa, azalpen egoiak, UTBaren kalkulua, mailegu-hartzaileari buruzko informazioa azaleratzea eta egiaztatzea, aholkularitza-zerbitzuak eta auziak judizioz kanpo ebazteko mekanismoak, galdutako dio amaiera eman diezaiola bere egoera irragarri.

Higiezin-kredituen bitartekariak ez baditu behar diren jarduketak egiten, Espainiako Bankuak kreditu-erakundeentzako antolaketa, gainbegiratze eta kaudi-

III y IV de la Ley 10/2014, de 26 de junio, de ordenación, supervisión y solvencia de entidades de crédito para que el intermediario de crédito ponga fin a su situación irregular e informará a las autoridades supervisoras competentes del Estado miembro de origen de las medidas adoptadas.

2. Si, a pesar de las medidas adoptadas por el Banco de España, el intermediario de crédito inmobiliario continúa infringiendo las medidas a que se refiere el apartado anterior, el Banco de España podrá, tras informar a las autoridades supervisoras competentes del Estado miembro de origen, tomar las medidas oportunas a fin de evitar nuevas irregularidades o sancionarlas y, en la medida en que sea necesario, prohibir al intermediario de crédito inmobiliario efectuar nuevas operaciones en España. Se informará a la Comisión Europea sin demora acerca de estas medidas.

Si la autoridad competente del Estado miembro de origen está en desacuerdo con las medidas adoptadas por el Banco de España, podrá remitir el asunto a la Autoridad Bancaria Europea (en adelante ABE) y solicitar su asistencia de conformidad con el artículo 19 del Reglamento (UE) n.º 1093/2010 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 24 de noviembre de 2010, por el que se crea una Autoridad Europea de Supervisión (ABE), se modifica la Decisión n.º 716/2009/CE y se deroga la Decisión 2009/78/CE de la Comisión. En tal caso, la ABE podrá actuar con arreglo a las facultades que le confiere dicho artículo.

3. El Banco de España podrá examinar las disposiciones adoptadas por la sucursal y pedir las modificaciones estrictamente necesarias para cumplir sus obligaciones con arreglo al apartado 1 y para permitir que las autoridades competentes del Estado miembro de origen puedan imponer el cumplimiento de las obligaciones establecidas en relación con las normas de conducta en la concesión de préstamos al prestatario o prestatario potencial, y en las medidas adoptadas de conformidad con dichos artículos respecto a los servicios prestados por la sucursal.

4. Cuando el Banco de España tenga motivos claros y demostrables para determinar que un intermediario de crédito inmobiliario que opera en régimen de libre prestación de servicios infringe las obligaciones derivadas de la presente Ley y su normativa de desarrollo, o que un intermediario de crédito inmobiliario que posee una sucursal en España infringe las obligaciones derivadas de disposiciones distintas de las indicadas en hechos a la autoridad competente del Estado miembro de origen, que tomará las medidas oportunas.

Si la autoridad competente del Estado miembro de origen no adopta ninguna medida en el plazo de un mes a partir de la comunicación de tales hechos, o si, pese a las medidas adoptadas por aquella, un intermediario de crédito inmo-

menari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen III. eta IV. tituluetan aurreikusitako neurriak hartu ahal izango ditu kreditu-bitartekariak bere egoera irregularrari amaiera eman diezaion, eta hartutako neurrien berri emango die jatorrizko estatu kideko gainbegiratze-agintari eskudunei.

2. Baldin eta, Espainiako Bankuak hartutako neurriak gorabehera, higiezin-kredituen bitartekariak jarraitzen badu aurreko paragrafoan aipatutako neurriak urratzen, Espainiako Bankuak esku izango du, jatorriko estatu kideko agintaritza ikuskatzaile eskudunei jakinarazi ondoren, behar diren neurriak hartzeko irregulartasun gehiago saihestearren edo zigortzearren, eta, beharrezkoa den neurrian, debekatu ahal izango dio kreditu-bitartekariari Espainian eragiketa gehiago egitea. Neurri horien berri berehala emango zaio Europako Batzordeari.

Jatorriko estatu kideko agintaritza eskuduna ez badago ados Espainiako Bankuak hartutako neurriekin, gaia Europako Banku Agintaritzari (aurrerantzean EBA) bidali ahal izango dio, eta laguntza eskatu, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 24ko 1093/2010 (EB) Erregelamenduaren 19. artikuluekin bat etorritik (erregelamendu horren bidez, Europako Gainbegiratze Agintaritza bat sortzen da (EBA), 716/2009/EE Erabakia aldatzen da eta Batzordearen 2009/78/EE Erabakia indargabetzen da). Kasu horretan, EBak artikuluko horrek ematen dizkion ahalmenen arabera jardun ahal izango du.

3. Espainiako Bankuak sukurtsalak hartutako xedapenak aztertu ahal izango ditu, eta behar diren aldaketak eskatu ahal izango ditu bere betebeharrak 1. paragrafoaren arabera betetzeko eta jatorrizko estatu kideko agintari eskudunek jarrera-arauekin lotutako betebeharrak bete ahal izateko, mailegu hartzaileari edo emaile potentzialari maileguak ematean, eta artikuluko horien arabera sukurtsalak ematen dituen zerbitzuei buruz hartutako neurrietan.

4. Espainiako Bankuak arrazoi argi eta frogagarriak baldin baditu zerbitzuak aske ematen dituen higiezin-kredituen bitartekari batek lege honen eta berau garatzeko araudiaren ondoriozko betebeharrak hausten dituela edo Espainian sukurtsal bat duen higiezin-kredituen bitartekari batek gertaeretan adierazitakoez besteko xedapenen ondoriozko betebeharrak hausten dituela esateko, Estatuko agintaritza eskudunari jakinaraziko dio eta hark dagozkion neurriak hartuko ditu.

Jatorriko estatu kideko agintaritza eskudunak ez badu neurririk hartzen gertaera horien berri eman eta hilabeteko epean, edo, hark hartutako neurriak gorabehera, higiezin-kreditu-bitartekari batek mailegu-hartzaileen intereseta-

biliario persiste en una actuación claramente perjudicial para los intereses de los prestatarios o el funcionamiento correcto de los mercados, el Banco de España:

- a) Tras informar a la autoridad competente del Estado miembro de origen, adoptará cuantas medidas resulten necesarias para proteger a los prestatarios y preservar el buen funcionamiento de los mercados, tales como impedir que el intermediario de crédito inmobiliario infractor inicie nuevas operaciones en su territorio. Se informará a la Comisión y a la ABE sin demora acerca de estas medidas.
- b) Podrá remitir el asunto a la ABE y solicitar su asistencia de conformidad con el artículo 19 del Reglamento (UE) n.º 1093/2010. En tal caso, la ABE podrá actuar con arreglo a los poderes que le confiere dicho artículo.

5. Cuando un intermediario de crédito inmobiliario reconocido en otro Estado miembro haya establecido una sucursal en España, la autoridad competente del Estado miembro de origen podrá, en el ejercicio de sus responsabilidades y tras haber informado a las autoridades supervisoras competentes del Estado miembro de acogida, realizar inspecciones *in situ* de esa sucursal.

6. El Banco de España actuará de forma análoga cuando se trate de un intermediario de crédito inmobiliario de un país no miembro de la Unión Europea actuando en España a través de una sucursal o en régimen de libre prestación de servicios. En tal caso, no será necesario que se informe de las medidas adoptadas a la Comisión y a la ABE.

### **Artículo 35. Requisitos de información de los intermediarios de crédito inmobiliario**

1. Con antelación suficiente a la prestación de cualquiera de las actividades propias de la intermediación de crédito inmobiliario definidas en el artículo 4.5), el intermediario de crédito o el representante designado facilitarán al prestatario, como mínimo, la información siguiente en papel o cualquier otro soporte duradero:

- a) La identidad y domicilio del intermediario de crédito inmobiliario.
- b) El registro en el que esté inscrito, el número de registro, y los medios para comprobar esa inscripción.
- c) Si el intermediario de crédito inmobiliario está vinculado a uno o más prestamistas o trabaja exclusivamente para ellos, en cuyo caso, indicará los nombres de los prestamistas en nombre de los cuales actúa.
- d) Si el intermediario de crédito inmobiliario ofrece o no servicios de asesoramiento y si éstos son independientes.

rako edo merkatuen funtzionamendu egokirako kalte nabarmena egiten jarraitzen badu, Espainiako Bankuak:

- a) Jatorriko estatu kideko agintaritzaren eskudunari informazioa eman ondoren, behar diren neurri guztiak hartuko ditu mailegu-hartzaileak babesteko eta merkatuen funtzionamendu egokia bermatzeko; esaterako, higiezin-kredituen bitartekari arau-hausleak bere lurraldean eragiketa gehiago has dezan eragozteko. Neurri horien berri berehala emango zaio Europako Batzordeari eta EBARI.
- b) Gaia EBARA bidali eta laguntza eskatu ahal izango du, 1093/2010 (EB) Erregelamenduaren 19. artikuluari jarraikiz. Kasu horretan, artikuluko horrek ematen dizkion ahalekin arabera jardun ahal izango du EBAK.

5. Beste estatu kide batean onartutako higiezin-kredituen bitartekari batek sukurtsal bat ezarri badu Espainian, jatorriko estatu kideko agintaritzaren eskudunak, bere ardurak baliatzean eta harrerako estatu kideko agintaritzaren ikuskaritzaile eskudunei jakinarazi ondoren, sukurtsal hori *in situ* ikuskatu ahal izango du.

6. Espainiako Bankuak antzera jokatu du higiezin-kredituen bitartekaria Europar Batasuneko kide ez den herrialde bateko bada, Espainian sukurtsal baten bidez edo zerbitzu-emate askeko araubidean diharduena. Kasu horretan, ez da beharrezko izango hartutako neurrien berri ematea Batzordeari eta EBARI.

### **35. artikulua. Higiezin-kredituen bitartekarien informazio-betekizunak**

1. 4.5) artikuluan zehaztutako higiezin-kredituen bitartekaritzaren berezko jardueretako edozein egin aurretik, kreditu-bitartekariak edo ordezkari izendatuak, gutxienez, informazio hau emango dio mailegu-hartzaileari, paperean edo beste edozein euskarri iraunkorretan:

- a) Higiezin-kredituen bitartekariaren nortasuna eta helbidea.
- b) Zein erregistrotan dagoen inskribatuta, erregistro-zenbakia eta inskripzio hori egiaztatzeko baliabideak.
- c) Ea higiezin-kredituen bitartekaria lotuta dagoen mailegu-emaile bati edo gehiagori, edo haien artean bakarrik lan egiten duen; kasu horretan, adierazi beharko du zein mailegu-emaileen izenean diharduen.
- d) Higiezin-kredituen bitartekariak aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen dituen ala ez, eta zerbitzu horiek independenteak diren.

- e) La remuneración que, en su caso, el prestatario deba abonar al intermediario de crédito inmobiliario por sus servicios o, cuando ello no sea posible, el método para calcular dicha remuneración.
- f) Los procedimientos a disposición de los prestatarios u otros interesados para realizar reclamaciones extrajudiciales contra los intermediarios de crédito inmobiliario y, en su caso, las vías de acceso a dichos procedimientos.
- g) Si procede, la existencia y, cuando se conozca, el importe de las comisiones u otros incentivos que el prestamista o un tercero han de abonar al intermediario de crédito inmobiliario por sus servicios en relación con el contrato de préstamo. Si el importe no es conocido en el momento de facilitarse la información, el intermediario de crédito inmobiliario informará al prestatario de que el importe real será revelado posteriormente en la ficha de información personalizada.
- h) Cuando el intermediario de crédito cobre una remuneración al prestatario y reciba adicionalmente una comisión del prestamista o de un tercero, deberá informar al prestatario si la remuneración se deducirá o no, total o parcialmente, de la comisión.

2. Los intermediarios de crédito inmobiliario que no estén vinculados pero reciban comisiones de uno o más prestamistas informarán al prestatario del derecho de éste a exigir información sobre los diferentes tipos y cuantías de comisión que abonan los distintos prestamistas que proporcionan los contratos de crédito que se ofrecen al prestatario.

3. La remuneración que, en su caso, el prestatario deba abonar al intermediario de crédito inmobiliario por sus servicios será comunicada al prestamista por aquel para su inclusión en el cálculo de la TAE.

4. Los intermediarios de crédito inmobiliario deben asegurarse de que sus representantes designados, cuando se pongan en contacto con el prestatario o antes de entablar negociaciones con él, le comuniquen, además de la información prevista en el presente artículo, la calidad en la que actúan y el intermediario de crédito inmobiliario al que representan.

5. Los intermediarios de crédito inmobiliario o representantes designados deben presentar fielmente al prestamista correspondiente la información necesaria obtenida a través del prestatario, con el fin de que pueda realizarse la evaluación de la solvencia, sin perjuicio de lo previsto en la legislación de protección de datos personales.



- e) Mailegu-hartzaileak zer ordainsari eman behar dion, hala badagokio, higiezin-kredituen bitartekariari bere zerbitzuengatik, edo, hori ezinezkoa denean, ordainsari hori kalkulatzeko metodoa.
- f) Mailegu-hartzaileek edo beste interesdun batzuek zer prozedura duten eskura dauden higiezin-kredituen bitartekarien aurka judizioz kanpoko erreklamazioak egiteko, eta, hala badagokio, zer bide dituzten prozedura horietara iristeko.
- g) Bidezkoa bada, ea mailegu-emaileak edo hirugarren batek mailegu-kontratuari lotutako zerbitzuengatik ordaindu beharreko komisiorik edo bestelako pizgarririk baden, eta, jakinez gero, haien zenbatekoa. Zenbatekoa ez bada jakina informazioa ematean, higiezin-kredituen bitartekariak mailegu-hartzaileari jakinaraziko dio zenbateko erreala geroago agertuko dela, informazio pertsonalizatuko fitxan.
- h) Kreditu-bitartekariak ordainsari bat kobratzen badio mailegu-hartzaileari eta, horrez gain, mailegu-emailearen edo hirugarren baten komisio bat jasotzen badu, mailegu-hartzaileari jakinarazi beharko dio ordainsaria osorik edo partez komisiotik kenduko den ala ez.

2. Lotuta ez dauden baina mailegu-emaile baten edo gehiagoren komisioak jasotzen dituzten higiezin-kredituen bitartekariak mailegu-hartzaileari jakinaraziko diote eskubidea duela informazio hau eskatzeko: zer komisio-mota eta zenbateko ordaintzen dituzten mailegu-hartzaileari eskainitako kreditu-kontratuak ematen dituzten mailegu-emaileek.

3. Mailegu-hartzaileak, hala badagokio, higiezin-kredituen bitartekariari bere zerbitzuengatik eman behar dion ordainsaria bitartekariak jakinarazi beharko dio mailegu-hartzaileari, UTBa kalkulatzeko sar dezan.

4. Higiezin-kredituen bitartekariak ziurtatu behar dute beren ordezkari izendatuek, mailegu-hartzailearekin harremanetan jartzen direnean edo harekin negoziatzen hasi aurretik, jakinaraziko diotela, artikulua honetan aurreikusitako informazioaz gain, zer egitekorekin diharduten eta zein kreditu-bitartekari ordezkatzeko duten.

5. Higiezin-kredituen bitartekariak edo ordezkari izendatuek mailegu-emaileari zintzo aurkeztu behar diote mailegu-hartzailearen bidez lortutako beharrezko informazioa, kaudimenaren ebaluazioa egin ahal izateko, hargatik eragotzi gabe datu pertsonalak babesteko legerian aurreikusitakoa.

### **Artículo 36. Requisitos de garantía de los intermediarios de crédito inmobiliario**

1. Los intermediarios de crédito inmobiliario deberán disponer de un seguro de responsabilidad civil profesional o aval bancario para hacer frente a las responsabilidades que pudieran surgir por negligencia profesional en el ámbito territorial en el que ofrezcan sus servicios. Ese seguro deberá cubrir, entre otras cuestiones, las responsabilidades derivadas del incumplimiento de los deberes de información a los prestatarios. Las excepciones que puedan corresponder al asegurador contra el intermediario de crédito asegurado, en ningún caso serán aplicables al prestatario. No obstante, en el caso de los intermediarios de crédito inmobiliario vinculados, el seguro o aval bancario puede ser aportado por un prestamista en cuyo nombre el intermediario de crédito esté facultado para actuar.

2. El Gobierno establecerá mediante real decreto el importe mínimo y las condiciones que debe cumplir el seguro de responsabilidad civil profesional o aval bancario.

### **Artículo 37. Actividad transfronteriza de los intermediarios de crédito inmobiliario**

1. El reconocimiento de un intermediario de crédito inmobiliario por la autoridad competente de su Estado miembro de origen será válido para la realización de las actividades y la provisión de los servicios contemplados en el reconocimiento, siempre y cuando las actividades que el intermediario de crédito inmobiliario se proponga realizar estén amparadas por el reconocimiento, previa inscripción en el registro previsto en el artículo 28.

No obstante, los intermediarios de crédito inmobiliario no estarán autorizados a prestar sus servicios en relación con contratos de préstamo ofrecidos por entidades no crediticias a prestatarios en un Estado miembro en el que dichas entidades no estén autorizadas a ejercer sus actividades.

2. Todo intermediario de crédito inmobiliario registrado en el Banco de España que se proponga ejercer su actividad por vez primera en otro u otros Estados en régimen de libre prestación de servicios o que se proponga establecer una sucursal informará de ello al Banco de España conforme a los modelos o formularios que establezca el mismo.

En el plazo de un mes a partir del momento de haber sido informado, el Banco de España notificará a las autoridades competentes del Estado o Estados miembros de acogida, en su caso, la intención del intermediario de crédito, e informará al mismo tiempo al intermediario interesado de dicha notificación. El Banco de España notificará a las autoridades competentes del Estado o Estados miembros

### 36. artikulua. Higiezin-kredituen bitartekarien berme-betekizunak

1. Higiezin-kredituen bitartekariak erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat edo banku-abal bat izan beharko dute zerbitzuak eskaintzen dituzten lurraldean arduragabekeria profesionalagatik sor daitezkeen erantzukizunei aurre egiteko. Aseguru horrek, besteak beste, estali beharko ditu mailegu-hartzaileei informazioa emateko betebeharrak ez betetzearen ondoriozko erantzukizunak. Aseguratzailerari kreditu-bitartekari aseguruaren aurka dagozkion salbuespenak ezin izango zaizkio inoiz aplikatu mailegu-hartzaileari. Hala ere, higiezin-kredituen bitartekari lotuen kasuan, aseguru edo banku-abala mailegu-emaile batek jarri ahal izango du, kreditu-bitartekariak haren izenean jarduteko ahalmena badu.

2. Gobernuak ezarriko ditu, errege-dekretu bidez, erantzukizun zibil profesionaleko aseguruak edo banku-abalak bete beharreko gutxieneko zenbatekoa eta baldintzak.

### 37. artikulua. Higiezin-kredituen bitartekarien mugaz gaindiko jarduera

1. Jatorriko estatu kideko agintaritzak eskudunak higiezin-kredituen bitartekari bat onartuko du, aitopenean jasotako jarduerak egiteko eta zerbitzuak emateko, baldin eta higiezin-kredituen bitartekariak egin nahi dituen jarduerak aitopenearen babespean badaude, aurrez 28. artikuluan aurreikusitako erregistroan inskribatuta.

Hala ere, higiezin-kredituen bitartekariak ez dute baimenik izango kredituko ez diren erakundeek eskaintako mailegu-kontratuen inguruko zerbitzuak emateko, mailegu-hartzaileei, erakunde horiek beren jarduerak egiteko baimenik ez duten estatu kide batean.

2. Espainiako Bankuan erregistratutako higiezin-kredituen bitartekari orok, bere jarduera lehenengo aldiz beste estatu batean edo batzuetan zerbitzuate emate askeko araubidean egin nahi badu edo sukurtsal bat ezarri nahi badu, horren berri emango dio Espainiako Bankuari, hark ezartzen dituen eredu edo inprimakien arabera.

4. Interes tasa aldakorra bada, informazioak horri dagokion adierazpena ere jasoko du, A zatian adierazitako formulazioa erabiliz, eta kuoten gehieneko zenbatekoa erakusten duen adibide bat. Goranzko muga bat baldin badago, interes-tasa goreneko mailara igotzeko kuoten zenbatekoa ere erakutsiko du adibideak. Goranzko mugarik ez badago, hipotesirik ezkorrenari dagokion egoera erakusteko, azken 20 urteetan izan den tasa zordunik handienean emango du adibideak UTBa, edo, oinarritzat harturik tasa zorduna kalkulatzeko erabiltzen den kanpoko edozein erreferentzia-tasaren gehieneko balioa, hala badagokio, tasa zorduna kalkulatzeko erabilitako azpiko datuak 20 urte baino gutxiagotakoak bakarrik izanez gero, datu horiek eskuragarri dauden eperik luzeenean, eta, horretarako oinarritzat, tasa hori kalkulatzeko erabili den kanpoko edozein erreferentziatzko tasaren balio maximoa hartuko du, agintari eskudun batek edo EBak zehaztua mailegu-emaileak ez badu kanpoko erreferentzia-tasa bat erabiltzen. Adibide argigarri bat eskaintzeko baldintza hori ez zaie aplikatuko kreditu-kontratuei baldin eta zenbait urteko hasierako epe batean tasa zordun finkoa badute eta gero beste epe baterako finka badaiteke mailegu-emailearen eta mailegu-hartzailearen arteko negoziazioaren bidez. Kredituek tasa desberdinetako tarteak dituztenean (adibidez, aldi berean tasa partez finkoak eta partez aldakorrak dituzten maileguak), eskatutako informazioa kreditu-tarte bakoitzari buruz eta kreditu osoari buruz emango da.

5. (Hala badagokio) Kredituaren moneta mailegu-hartzailearen moneta nazionala ez bada, edo kreditua mailegu-hartzailearen moneta nazionala ez

neda nacional del prestatario, el prestamista incluirá un ejemplo numérico que indique claramente de qué modo las variaciones del tipo de cambio correspondiente afectarán al importe de las cuotas, empleando la formulación indicada en la parte A. Dicho ejemplo se basará en la hipótesis de una reducción del 20% del valor de la moneda nacional del prestatario, e irá acompañada de una declaración destacada de que las cuotas podrían registrar un incremento superior al importe indicado en el ejemplo. Si se aplica un límite al alza que limite el incremento inferior al 20 %, se indicará en lugar de lo anterior el valor máximo de los pagos en la moneda del prestatario, y se omitirá la declaración relativa a la posibilidad de que se registren incrementos superiores.

6. Si el crédito es en todo o en parte un crédito a tipo variable y es de aplicación el punto 3, para la ilustración contemplada en el punto 5 se tomará como hipótesis el importe de la cuota a que se refiere el punto 1.

7. Si la moneda utilizada para el pago de las cuotas es distinta de la moneda del crédito, o si el importe de cada cuota expresado en la moneda nacional del prestatario depende del importe correspondiente en una moneda diferente, se indicará en esta sección la fecha de cálculo del tipo de cambio aplicable y se precisará bien el tipo de cambio, bien la base sobre la cual se calculará este y la periodicidad de su revisión. Si ha lugar, dicha indicación incluirá el nombre del organismo encargado de publicar el tipo de cambio.

8. Cuando el crédito sea un crédito con intereses diferidos en el que los intereses adeudados no se reembolsen en su totalidad mediante las cuotas sino que se añadan al importe total del crédito pendiente, se incluirá una explicación del modo y el momento en que los intereses diferidos se añadirán al préstamo en forma de importe en efectivo, y de las consecuencias para el prestatario respecto de la deuda restante.

#### SECCIÓN «7. TABLA ILUSTRATIVA DE REEMBOLSO»

1. Esta sección se incluirá cuando el crédito sea un crédito con intereses diferidos en el que los intereses adeudados no se reembolsen en su totalidad mediante las cuotas sino que se añadan al importe pendiente del crédito o cuando el tipo deudor sea fijo durante la vigencia del contrato de crédito.

Si el prestatario tiene derecho a recibir una tabla de amortizaciones revisada, se indicará esta circunstancia junto con las condiciones en las que el prestatario puede acogerse a tal derecho.

den beste moneta batean indexatuta badago, mailegu-emaileak zenbakizko adibide bat jarriko du, argi eta garbi adierazteko nola eragingo dioten kanbio-tasaren aldaketek kuoten zenbatekoari, A zatian adierazitako formula-zioa erabiliz. Adibide hori mailegu-hartzailearen moneta nazionalaren balioa % 20 murriztearen hipotesian oinarrituko da, eta harekin batera joango da adierazpen nabarmendu bat, kuotek adibidean adierazitako zenbatekoa baino gehikuntza handiagoa izan lezaketela dioena. % 20tik beherako igoera mugatzen duen goranzko muga aplikatzen bada, aurrekoaren ordeztu, ordaintzen balio maximoa adieraziko da, mailegu-hartzailearen monetan, eta ez da egingo hortik gorako gehikuntzak erregistratzeko aukerari buruzko adierazpena.

6. Kreditua, osorik edo partez, tasa aldakorreko kreditu bat bada eta 3. puntua aplikatzeko bada, 5. puntuan aipatzen den argigarrirako hipotesizat 1. puntuan aipatzen den kuotaren zenbatekoa hartuko da.

7. Kuotak ordaintzeko erabilitako moneta kredituaren moneta ez bada, edo mailegu-hartzailearen moneta nazionalan adierazitako kuota bakoitzaren zenbatekoa beste moneta batean dagokion zenbatekoaren arabera bada, atal honetan kanbio-tasa kalkulatzeko data adieraziko da, eta ondo zehaztuko da edo kanbio-tasa edo hura kalkulatzeko oinarria eta berrikuspenaren aldizkotasuna. Hala badagokio, adierazpen horretan sartuko da kanbio-tasa argitaratzeko arduraren duen erakundearen izena.

8. Kreditua interes geroratuak dituen kreditua denean eta zor diren interesak osorik kuoten bidez ordaintzen ez direnean, ordaindu gabeko kredituaren zenbateko osoari gehitzen zaizkio, eta azalpen bat gehituko da, nola eta noiz gehituko zaizkion interes geroratuak maileguari eskudirutan eta zer ondorio izango dituen mailegu-hartzailearentzat gainerako zorrari dagokionez.

#### «7. DIRU-ITZULTZEAREN TAULA» ATALA

1. Atal hau sartuko da kreditua interes geroratuak dituen kreditua denean, zeinean zor diren interesak ez baitira osorik ordaintzen kuoten bidez, baizik eta kreditutik ordaintzeke dagoen zenbatekoari gehitzen baitzaizkio, edo tasa zorduna finkoa bada kreditu-kontratua indarrean dagoen bitartean.

Mailegu-hartzaileak amortizazio-taula berrikusia jasotzeko eskubidea badu, hala adieraziko da mailegu-hartzaileak eskubide hori baliatzeko dituen baldintzekin batera.

2. Si el tipo de interés pudiera variar durante la vigencia del crédito, el prestamista indique el período durante el cual se mantendrá sin cambios el tipo de interés inicial.

3. La tabla que ha de insertarse en esta sección contendrá las siguientes columnas: «calendario de reembolso» (por ejemplo, primer mes, segundo mes, tercer mes), «importe de la cuota», «intereses a abonar en cada cuota», «otros costes incluidos en la cuota» (si procede), «capital reembolsado en cada cuota» y «capital pendiente después de cada cuota».

4. La información sobre el primer año de reembolso se facilitará por cuota, con inclusión de un subtotal para cada una de las columnas al final del primer año. En lo que atañe a los restantes años, la información podrá facilitarse para el conjunto del año. Al final de la tabla figurará una línea para el total general, que reflejará los importes totales de cada columna. Se destacará claramente el coste del crédito abonado por el prestatario (esto es, el importe total de la columna «importe de la cuota»), identificándolo como tal.

5. Si el tipo de interés está sujeto a revisión y se desconoce el importe de la cuota tras cada revisión, el prestamista podrá indicar en la tabla de amortización el mismo importe de cuota para toda la duración del crédito. En este caso, el prestamista lo señalará a la atención del prestatario, diferenciando para ello visualmente los importes conocidos de los hipotéticos (por ejemplo, utilizando caracteres tipográficos, bordes o sombreado diferentes). Se incluirá también un texto claramente legible que explique en relación con qué períodos pueden variar los importes recogidos en la tabla, y por qué razón.

#### SECCIÓN «8. OTRAS OBLIGACIONES»

1. En esta sección, el prestamista indicará las obligaciones pertinentes, tales como la obligatoriedad de asegurar el bien, contratar un seguro de vida, domiciliar la nómina o adquirir otro producto o servicio. Para cada obligación, el prestamista especificará frente a quién se asume esta y en qué plazo debe satisfacerse.

2. El prestamista especificará la duración de la obligación (por ejemplo, hasta el final del contrato de crédito). El prestamista especificará, para cada obligación, todos los costes que deba pagar el prestatario y que no estén incluidos en la TAE.

3. El prestamista deberá indicar si, para obtener el crédito en los términos establecidos, son obligatorios para el prestatario servicios accesorios y, en caso

2. Interes-tasa alda baliteke kredituaren indarraldian, mailegu-emaileak adieraziko du zenbat denboran mantenduko den aldaketarik gabe hasierako interes-tasa.

3. Atal honetan sartu beharreko taulak zutabe hauek izango ditu: «diru-itzul-tzearen egutegia» (adibidez, lehen hilabetea, bigarren hilabetea, hirugarren hila-betea), «kuotaren zenbatekoa», «kuota bakoitzean ordaindu beharreko interesak», «kuotan sartutako beste kostu batzuk» (hala badagokio), «kuota bakoitzean itzu-litako kapitala» eta «kuota bakoitzaren ondoren ordaintzeko dagoen kapitala».

4. Lehen itzultze-urteari buruzko informazioa kuotaz emango da, eta zu-tabe bakoitzerako guztizko partzial bat sartuko da lehenengo urtearen amaie-ran. Gainerako urteei dagokienez, urte osoari dagokion informazioa ematen ahalko da. Taularen amaieran, lerro bat agertuko da kopuru orokorrerako, zu-tabe bakoitzaren zenbateko osoak islatuko dituena. Argi nabarmenduko da mailegu-hartzaileak ordaindutako kredituaren kostua (hau da, «kuotaren zen-batekoa» zutabearen zenbateko osoa), hala identifikatuta.

5. Interes-tasa berrikustekoa bada eta ez bada jakina berrikuspen bakoitzaren ondoren kuota zenbatekoa izango den, mailegu-emaileak kuota-zenbateko bera adierazi ahal izango du amortizazio-taulan kredituaren iraupen osorako. Kasu horretan, mailegu-emaileak adierazi egingo dio mailegu-hartzaileari, eta, horretar-ako, bisualki bereizi egingo ditu ezagunak diren zenbatekoak eta zenbateko hi-potetikoak (bereizteko, karaktere tipografikoak, ertzak edo itzala erabiliko ditu, adibidez). Halaber, erraz irakurtzeko moduko testu bat gehituko da, taulan jaso-tako zenbatekoak zein epetan alda daitezkeen eta zergatik azalduko duena.

#### «8. BESTE BETEBEHAR BATZUK» ATALA

1. Atal honetan, mailegu-emaileak dagozkion betebeharrak adieraziko ditu, hala nola ondasuna aseguratzea, bizi-aseguru bat kontratatzea, nomina helbide-ratzea edo beste produktu edo zerbitzu bat erostea. Betebehar bakoitzerako, mailegu-emaileak zehaztuko du noren aurrean hartzen duen betebehar hori eta zein epetan ordaindu behar den.

2. Mailegu-emaileak betebeharraren iraupena zehaztuko du (adibidez, kre-ditu-kontratua amaitu arte). Mailegu-emaileak, betebehar bakoitzerako, zehaz-tuko ditu mailegu-hartzaileak ordaindu behar dituen eta UTBan sartuta ez dauden kostu guztiak.

3. Mailegu-emaileak adierazi beharko du ea, kreditua ezarritako moduan lortzeko, mailegu-hartzailearentzat nahitaezkoak diren zerbitzu osagarriak, eta,

afirmativo, si el prestatario está obligado a adquirirlos al proveedor preferido del prestamista o puede adquirirlos a un proveedor de su elección. Si esta posibilidad está supeditada a la condición de que los servicios accesorios reúnan unas características mínimas, el prestamista describirá esas características en esta sección.

Cuando el contrato de crédito se combine con otros productos, el prestamista deberá indicar las características principales de esos otros productos y establecer claramente si el prestatario tiene derecho a rescindir por separado el contrato de crédito o los productos combinados, así como las condiciones y las consecuencias de dicha rescisión, y, si ha lugar, las consecuencias que pueda tener la rescisión de los servicios accesorios exigidos en relación con el contrato de crédito.

#### SECCIÓN «9. REEMBOLSO ANTICIPADO»

1. El prestamista indicará en qué condiciones puede el prestatario reembolsar anticipadamente el crédito, total o parcialmente.

2. En la rúbrica relativa a la comisión de reembolso anticipado, el prestamista señalará a la atención del prestatario todas las comisiones u otros gastos que este deba abonarle como compensación en el momento del reembolso anticipado y, si es posible, indicará su importe. Cuando el importe de la compensación dependa de diversos factores, como el importe reembolsado o el tipo de interés vigente en el momento de efectuar el pago anticipado, el prestamista indicará la forma de cálculo de la compensación e indicará cuál podría ser su importe máximo o, si este se desconoce, dará un ejemplo ilustrativo con el fin de mostrar al prestatario el importe de la compensación según distintas hipótesis posibles.

#### SECCIÓN «10. ELEMENTOS DE FLEXIBILIDAD»

1. Si ha lugar, el prestamista explicará la posibilidad de transferir el crédito a otro prestamista o bien inmueble y las condiciones en que puede ejercerse esta opción.

2. (Si ha lugar) Otras prestaciones: Si el producto tiene alguna de las prestaciones enumeradas en el punto 5, en esta sección se enumerarán tales prestaciones y se facilitará una breve explicación de: las circunstancias en que el prestatario puede hacer uso de la prestación; todas las condiciones asociadas a la prestación; si la prestación del crédito con garantía hipotecaria u otra garantía



hala bada, ea mailegu-hartzailea behartua dagoen mailegu-emailearen hornitzaile gogokoenari erostera edo berak aukeratutako hornitzaile bati erosten ahal dizkion. Aukera hori zerbitzu osagarriek gutxieneko ezaugarri batzuk betetzeko baldintzaren mende badago, mailegu-emaileak ezaugarri horiek deskribatuko ditu atal honetan.

Kreditu-kontratua beste produktu batzuekin konbinatzen denean, mailegu-emaileak beste produktu horien ezaugarri nagusiak adierazi beharko ditu, eta argi eta garbi adierazi beharko du mailegu-hartzaileak kreditu-kontratua edo produktu konbinatuak bereiz hutsaltzeko eskubidea duen, hutsaltze horren baldintzak eta ondorioak zein diren, eta, hala badagokio, zer ondorio ekar ditzakeen eskatutako zerbitzu osagarriak hutsaltzeak kreditu-kontratuari dagokionez.

#### «9. ITZULKETA AURRERATUA» ATALA

1. Mailegu-emaileak adieraziko du mailegu-hartzaileak zein baldintzatan itzul dezakeen kreditua aldezturik, osorik edo partez.

2. Diru-itzultze aurreratua komisioari dagokion idazpuruan, mailegu-emaileak mailegu-hartzaileari adieraziko dizkio diru-itzultze aurreratua unean ordaindu behar dizkion komisio edo bestelako gastu guztiak, eta, ahal bada, haien zenbatekoa. Konpentsazioaren zenbatekoa zenbait faktoreren mende dagoenean, hala nola itzulitako zenbatekoa edo ordainketa aurreratua egiteko unean indarrean dagoen interes-tasa, mailegu-emaileak konpentsazioa kalkulatzeko modua adieraziko du, eta zenbateko maximoa zein izan litekeen zehaztuko du, edo, zenbateko hori ez bada jakina, adibide argigarri bat emango du, mailegu-hartzaileari konpentsazioa zenbait hipotesiren arabera zenbat izango litzatekeen erakusteko.

#### «10. MALGUTASUN-ELEMENTUAK» ATALA

1. Halakorik bada, mailegu-emaileak azalduko du ea kreditua beste mailegu-emaile edo ondasun higiezin bati eskualdatzeko aukerarik dagoen eta zer baldintzatan balia daitekeen aukera hori.

2. (Hala badagokio) Bestelako prestazioak: Produktuak 5. puntuan zerrendatutako prestazioetakoren bat badu, atal honetan prestazio horiek zerrendatuko dira, eta azalpen labur bat emango da: mailegu-hartzaileak prestazioa nola erabil dezakeen; prestazioari lotutako baldintza guztiak; ea kreditua hipoteka-bermearekin edo konparatzekoa den beste berme batekin emateak esan nahi

comparable implica que el prestatario pierde las protecciones legales o de otro tipo asociadas habitualmente a la prestación; y la empresa responsable de la prestación (si no es el prestamista).

3. Si la prestación incluye un crédito adicional, en esta sección se deberá explicar al prestatario: el importe total del crédito (incluido el crédito con garantía hipotecaria u otra garantía comparable); si el crédito adicional está o no garantizado; los tipos de interés correspondientes; y si está o no regulado. El prestamista deberá incluir en la evaluación inicial de la solvencia el importe de este tipo de créditos adicionales o bien, si no lo ha hecho, deberá precisar en esta sección que la posibilidad de disponer de este importe adicional está supeditada a una nueva evaluación de la capacidad del prestatario para reembolsar el préstamo.

4. Si la prestación implica un instrumento de ahorro, se deberá explicar el tipo de interés correspondiente.

5. Las prestaciones adicionales posibles son: «pagos superiores o inferiores a lo estipulado» [pagar más o menos de lo correspondiente a la cuota normalmente exigida con arreglo a la estructura de amortización]; «suspensión del pago de las cuotas» [períodos durante los cuales el prestatario no está obligado a efectuar pagos]; «renovación del préstamo de cantidades ya reembolsadas» [posibilidad de que el prestatario vuelva a tomar prestados fondos de los que ya ha dispuesto y que ha reembolsado]; «préstamos adicionales sin necesidad de nueva aprobación»; «préstamos adicionales, garantizados o no garantizados» [de conformidad con el anterior punto 3]; «tarjeta de crédito»; «cuenta corriente vinculada»; y «cuenta de ahorro vinculada».

6. El prestamista podrá incluir cualesquiera otras prestaciones que ofrezca como parte del contrato de crédito no mencionadas en las secciones anteriores.

## SECCIÓN «II. OTROS DERECHOS DEL PRESTATARIO»

1. El prestamista aclarará el derecho o derechos existentes, por ejemplo, el derecho de desistimiento o reflexión y, si ha lugar, otros derechos como la portabilidad (incluida la subrogación), especificará las condiciones en las que se podrá ejercer ese derecho o derechos, el procedimiento que tendrá que seguir el prestatario para ello, entre otras cosas la dirección a la que deberá remitir la notificación de desistimiento, y los correspondientes gastos (en su caso).

2. Si el prestatario dispone de un período de reflexión o de un derecho de desistimiento, así se mencionará expresamente.

duen mailegu-hartzaileak galdu egiten dituela prestazioari lotuta egon ohi diren legezko edo bestelako babesak; eta zein den prestazioaren ardura duen enpresa (mailegu-emailea ez bada).

3. Prestazioak kreditu gehigarri bat badu, atal honetan mailegu-hartzaileari azaldu beharko zaio: zein den kredituaren zenbateko osoa (kreditu hipoteka-bermeduna edo beste berme konparagarri bat barne); kreditu gehigarria bermatuta dagoen ala ez; dagozkion interes-tasak; eta araututa dagoen ala ez. **Mailegu-emaileak kaudimenaren hasierako ebaluazioan sartu beharko du kreditu gehigarri horien zenbatekoa**; bestela, halakorik egin ez badu, atal honetan zehaztu beharko du mailegu-hartzaileak mailegua itzultzeko duen gaitasunaren beste ebaluazio baten mende dagoela zenbateko gehigarri hori eskuratzeko aukera.

4. Prestazioa aurrezteko tresna bada, dagozkion interes-tasa azaldu beharko da.

5. Hauek dira prestazio gehigarri posibleak: «Hitzartutakoa baino handiagoak edo txikiagoak diren ordainketak» [amortizazio-egituraren arabera normalean eskatzen den kuotari dagozkiona baino gehiago edo gutxiago ordaintzea]; «kuoten ordainketa etetea» [mailegu-hartzaileak ordainketa egin beharrik ez duen aldiak]; «dagoeneko itzuli dituen zenbatekoen mailegua berritzea» [mailegu-hartzaileak dagoeneko erabili eta itzuli dituen funtsak berriro hartzeko aukera]; «beste onespén baten beharrik ez duten mailegu gehigarriak»; «mailegu gehigarriak, bermatuak edo bermatu gabeak» [aurreko 3. puntuarekin ados]; «kreditu-txartela»; «lotutako kontu korrontea»; eta «lotutako aurrezki-kontua».

6. Mailegu-emaileak kreditu-kontratuaren parte gisa sartzen ahalko ditu eskaintzen dituen eta aurreko ataletan aipatu ez diren beste prestazio guztiak.

#### « I I . MAILEGU-HARTZAILEAREN BESTE ESKUBIDE BATZUK »

1. Mailegu-emaileak argituko du zer eskubide dagoen edo dauden — adibidez, atzera egiteko edo gogoeta egiteko eskubidea—, eta, hala badagokio, beste eskubide batzuk, hala nola eramangarritasuna (subrogazioa barne); zehaztuko du zer baldintzatan baliatu ahal izango diren eskubide hori edo horiek, zer prozedurari jarraitu beharko dion mailegu-hartzaileak horretarako —besteak beste, zein helbidetara bidali behar duen atzera egitearen jakinarazpena eta zer gastu dagozkion (hala badagokio)—.

2. Mailegu-hartzaileak gogoeta-aldia edo atzera egiteko eskubidea badu, berariaz aipatuko da hori.

3. De conformidad con el artículo 3 de la Directiva 2002/65/CE, si la operación se ofrece a distancia, se informará al prestatario de si existe o no derecho de desistimiento.

#### SECCIÓN «12. RECLAMACIONES»

1. En esta sección se indicará el punto de contacto interno [nombre del departamento correspondiente] y una forma de dirigirse a él para presentar una reclamación [dirección geográfica] o [número de teléfono] o una persona de contacto [datos de contacto]; se incluirá también un enlace al procedimiento de contacto en la página correspondiente de un sitio web o una fuente de información similar.

2. Se indicará el nombre del organismo externo pertinente encargado de las reclamaciones y recursos extrajudiciales y, si el acceso a este organismo está supeditado a la reclamación previa por el procedimiento de reclamación interno, se precisará esta circunstancia utilizando la formulación indicada en la parte A.

3. En el caso de los contratos de crédito con prestatarios residentes en otro Estado miembro, el prestamista informará de la existencia de la red FIN-NET ([http://ec.europa.eu/internal\\_market/fin-net/](http://ec.europa.eu/internal_market/fin-net/)).

#### SECCIÓN «13. INCUMPLIMIENTO DE LOS COMPROMISOS VINCULADOS AL PRÉSTAMO: CONSECUENCIAS PARA EL PRESTATARIO»

1. Si el incumplimiento de alguna de las obligaciones que incumben al prestatario en relación con el crédito puede acarrearle consecuencias financieras o jurídicas, el prestamista describirá en esta sección los principales supuestos posibles (por ejemplo, pagos atrasados/impago o incumplimiento de las obligaciones especificadas en la sección 8 «Otras obligaciones»), e indicará dónde puede obtenerse más información al respecto.

2. El prestamista especificará de forma clara y fácilmente comprensible las sanciones o las consecuencias a que puede dar lugar cada uno de estos supuestos. Se expresarán de forma destacada las consecuencias graves.

3. Si el bien inmueble utilizado como garantía del crédito puede ser devuelto o transferido al acreedor en caso de que el prestatario no efectúe sus pagos puntualmente, se incluirá en esta sección la indicación correspondiente, utilizando la formulación indicada en la parte A.

3. 2002/65/EE Zuzentarauaren 3. artikuluaaren arabera, eragiketa urrutitik eskaintzen bada, mailegu-hartzaileari jakinaraziko zaio atzera egiteko eskubiderik dagoen ala ez.

#### «12. ERREKLAMAZIOAK» ATALA

1. Atal honetan adieraziko da zein den barruko harremanetarako puntua [dagokion sailaren izena] eta nola jo bertara erreklamazio bat aurkezteko [helbide geografikoa] edo [telefono-zenbakia] edo harremanetarako pertsona bat [harremanetarako datuak]; halaber, harremanetarako prozedurarako esteka bat jarriko da webgune bateko edo antzeko informazio-iturri bateko dagokion orrian.

2. Erreklamazioez eta judizioz kanpoko errekurtoez arduratzea dagokion kanpo-erakundearen izena adieraziko da, eta, erakunde horretara sartzeko beharrezkoa bada aurretiazko erreklamazioa egitea barne-erreklamazioaren bidez, inguruabar hori A zatian adierazitako formulazioa erabiliz zehaztuko da.

3. Beste estatu kide batean bizi diren mailegu-hartzaileekin egindako kreditu-kontratuen kasuan, mailegu-emaileak FIN-NET sarearen berri emango du ([http://ec.europa.eu/internal\\_market/fin-net/](http://ec.europa.eu/internal_market/fin-net/)).

#### «13. MAILEGUAREKIN LOTUTAKO KONPROMISOAK EZ BETETZEA: MAILEGU-HARTZAILEARENTZAKO ONDORIOAK»

1. Kreditu-hartzaileari dagozkion betebeharretakoren bat ez betetzeak ondorio finantzario edo juridikoak ekar badiezazkioke, mailegu-emaileak atal honetan azalduko ditu gerta daitezkeen kasu nagusiak (adibidez, atzerapenez ordaintzea / ez ordaintzea edo «8. Beste betebeharrak batzuk» atalean zehaztutako betebeharrak ez betetzea), eta horri buruzko informazio gehiago non lor daitezkeen adieraziko du.

2. Mailegu-emaileak argi eta erraz ulertzeko moduan zehaztuko ditu kasu horietako bakoitzaren zehapenak edo ondorioak. Ondorio larriak nabarmenki adieraziko dira.

3. Kredituaren berme gisa erabilitako ondasun higiezinaren hartzekodunari itzultzen edo eskualdatzen ahal bazaio mailegu-hartzaileak garaiz ordaintzen ez duenean, atal honetan dagokion adierazpena sartuko da, A zatian adierazitako formulazioa erabiliz.

## SECCIÓN «I 4. INFORMACIÓN ADICIONAL»

1. En el caso de las ventas a distancia, se incluirá en esta sección toda cláusula que estipule la legislación aplicable al contrato de crédito y/o el tribunal competente.

2. Cuando el prestamista tenga intención de ponerse en contacto con el prestatario durante la vigencia del contrato en un idioma distinto del idioma de la FEIN, deberá hacerse mención de esta circunstancia indicando el idioma que se vaya a utilizar. Esta posibilidad se entenderá sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 3, apartado 1, punto 3, letra g), de la Directiva 2002/65/CE.

3. El prestamista o intermediario de crédito indicará que el prestatario tiene derecho a que se le proporcione u ofrezca, según el caso, un ejemplar del proyecto de contrato de crédito como mínimo en el momento en que le haya hecho una oferta que vincule al prestamista.

## SECCIÓN «I 5. SUPERVISOR»

1. Se indicará aquí la autoridad o autoridades encargadas de la supervisión de la fase precontractual del préstamo.

## ANEXO II

### CÁLCULO DE LA TASA ANUAL EQUIVALENTE (TAE)

#### I. Ecuación de base

Ecuación de base que traduce la equivalencia de las disposiciones de crédito, por una parte, y de los reembolsos y pagos de gastos, por otra. La ecuación de base, que define la tasa anual equivalente (TAE), expresa la equivalencia anual entre, por un lado, la suma de los valores actualizados de las disposiciones de crédito y, por otro, la suma de los valores actualizados de los importes de los reembolsos y pagos de gastos, es decir:

donde:

—  $X$  es la TAE.

—  $m$  es el número de orden de la última disposición de crédito.

#### «I.4. INFORMAZIO GEHIGARRIA» ATALA

1. Urrutiko salmentei dagokienez, atal honetan sartuko dira kreditu-kontratuari eta/edo auzitegi eskudunari aplikatu beharreko legerian ezarritako klausula guztiak.

2. Kontratua indarrean dagoen bitartean, mailegu-emaileak mailegu-har-tzailearekin EINFarena ez den beste hizkuntza batean harremanetan jartzeko asmoa badu, egoera hori aipatu beharko da eta zein hizkuntza erabiliko den esan. Aukera horrek ez du galarazten 2002/65/EE Zuzentarauaren 3. artikulua-ren 1. apartatuko 3. puntuko g) letran xedatutakoa.

3. Mailegu-emaileak edo kreditu-bitartekariak adieraziko du mailegu-har-tzaileak kreditu-kontratuaren proiektuaren ale bat eman edo eskaintzeko eskubidea duela, gutxienez, mailegu-emaileari lotutako eskaintza egiten dion unean.

#### «I.5. GAINBEGIRALEA» ATALA

1. Hemen adieraziko da zer agintari arduratuko den edo diren maileguaren kontratu aurreko fasea gainbegiratzeaz.

## II. ERANSKINA

### URTEKO TASA BALIOKIDEAREN (UTB) KALKULUA

#### I. Oinarrizko ekuazioa

Oinarrizko ekuazioak baliokidetzan jartzen baititu, batetik, kreditu-xedapenak, eta, bestetik, diru-itzulketak eta gastu-ordainketak. Oinarrizko ekuazioak, zeinak urteko tasa baliokidea (UTB) zehazten baitu, adierazten du urteko zer baliokidetzat dagoen hauen artean: batetik, kreditu-xedapenen balio eguneratuen batura, eta, bestetik, diru-itzultzeen eta gastu-ordainketen zenbaitzeko balio eguneratuen batura, hau da:

non:

—  $X$  UTBa da.

—  $m$  azken kreditu-eskuratzearen ordena-zenbakia da.

- $k$  es el número de orden de una operación de disposición de crédito, por lo que  $1 \leq k \leq m$ .
- $C$  es el importe de la disposición de crédito número  $k$ .
- $t$  es el intervalo de tiempo, expresado en años y fracciones de año, entre la fecha de la primera operación de disposición de crédito y la fecha de cada una de las disposiciones siguientes, de modo que  $t^1 = 0$ .
- $m$  es el número de orden del último reembolso o pago de gastos.
- $l$  es el número de orden de un reembolso o pago de gastos.
- $D$  es el importe de un reembolso o pago de gastos.
- $s$  es el intervalo de tiempo, expresado en años y fracciones de año, entre la fecha de la primera disposición de crédito y la de cada reembolso o pago de gastos.

Observaciones:

a) las sumas abonadas por cada una de las partes en diferentes momentos no son necesariamente iguales ni se abonan necesariamente a intervalos iguales;

b) la fecha inicial es la de la primera disposición de fondos;

c) los intervalos entre las fechas utilizadas en los cálculos se expresarán en años o fracciones de año. Un año tiene 365 días (en el caso de los años bisiestos, 366), 52 semanas o 12 meses normalizados. Un mes normalizado tiene 30,41666 días (es decir,  $365/12$ ), con independencia de que el año sea bisiesto o no.

Cuando los intervalos entre las fechas utilizadas en los cálculos no puedan expresarse como un número entero de semanas, meses o años, se expresarán como un número entero de uno de tales períodos, combinado con un número de días. Cuando se utilicen días:

- i. se contarán todos los días, incluidos los fines de semana y festivos,
- ii. el intervalo transcurrido desde la fecha de la disposición de fondos inicial se computará por períodos normalizados, y después por días,
- iii. el número de días se obtendrá excluyendo el primer día e incluyendo el último, y se expresará en años dividiendo el número obtenido por el número de días del año completo (365 o 366), computado desde el último día hasta la misma fecha del año anterior,

d) el resultado del cálculo se expresará con una precisión de un decimal como mínimo. Si la cifra del decimal siguiente es superior o igual a 5, el decimal precedente se redondeará a la cifra superior.



- $k$  kreditua eskuratzeko eragiketa baten ordena-zenbakia da; beraz,  $1 \leq k \leq m$ .
- $C$  da  $k$  zenbakiko kreditu-eskuratzearen zenbatekoa.
- $t$  denbora-tarte hau da, urtetan eta urte-zatitan adierazia: kreditua lehen aldiz eskuratu zen eragiketaren dataren eta hurrengo diru-eskuratze bakoitzaren dataren artekoa; beraz,  $t^1 = 0$ .
- $m'$  azken diru-itzultzearen edo gastu-ordainketaren ordena-zenbakia da.
- $l$  diru-itzultze edo gastu-ordainketa baten ordena-zenbakia da.
- $D$  diru-itzultze edo gastu-ordainketa baten zenbatekoa da.
- $s$  denbora-tarte hau da, urtetan eta urte-zatitan adierazia: lehen kreditu-eskuratzearen dataren eta diru-itzultze edo gastu-ordainketa bakoitzaren artekoa.

Oharrak:

a) Zati bakoitzak une desberdinetan ordaintzen dituen zenbatekoak ez dira nahitaez berdinak eta ez dira nahitaez tarte berdinetan ordaintzen;

b) hasierako data lehen funts-eskuratzearen data da;

c) kalkuluetan erabilitako daten arteko tarteak urteka edo urte-zatika adieraziko dira. Urte batek 365 egun ditu (bisurteen kasuan 366), 52 aste edo 12 hilabete normalizatu. Hilabete normalizatu batek 30,41666 egun ditu (hau da,  $365/12$ ), urtea bisurtea izan edo ez.

Kalkuluetan erabilitako daten arteko tarteak ezin direnean aste, hilabete edo urteen kopuru oso gisa adierazi, aldi horietako baten kopuru oso bat egun-kopuru batekin konbinatuta adieraziko dira. Egunak erabiltzen direnean:

- i. egun guztiak kontatuko dira, asteburu eta jaiegunak barne,
- ii. hasierako funts-eskuratzearen egunetik igarotako tarte epe normalizatuta kontatuko da, eta, ondoren, egunetan.
- iii. egun-kopurua lehenengo eguna kenduta eta azkena barne hartuta lortuko da, eta, urtetan adierazteko, kopuru hori zati urte osoaren egun kopurua (365 edo 366) egingo da, azken egunetik aurreko urteko data berera arte zenbatuta.

d) kalkuluaren emaitza gutxienez hamartar baten zehaztasunarekin adieraziko da. Hurrengo hamartarraren zifra 5 edo handiago bada, aurreko hamartarra goiko zifrara biribilduko da.

e) se puede reformular la ecuación utilizando solamente un sumatorio y empleando la noción de flujos ( $A_k$ ), que serán positivos o negativos, es decir, respectivamente pagados o percibidos en los períodos 1 a  $n$ , expresados en años, a saber:

—donde  $S$  es el saldo de los flujos actualizados, cuyo valor será nulo si se quiere conservar la equivalencia de los flujos.

## II. Supuestos adicionales para calcular la tasa anual equivalente

a) Si el contrato de crédito da al consumidor libertad de disposición de los fondos, se considerará que el consumidor ha dispuesto del importe total del crédito inmediata y totalmente.

b) Si el contrato de crédito dispone diferentes formas de disposición de fondos con diferentes gastos o tipos deudores, se considerará que se dispone del importe total del crédito al tipo deudor y con los gastos más elevados aplicados a la categoría de transacción más comúnmente utilizada en ese tipo de contrato de crédito.

c) Si el contrato de crédito da al consumidor libertad de disposición de fondos en general, pero impone, entre las diferentes formas de disposición de fondos, una limitación respecto del importe del crédito y del período de tiempo, se considerará que del importe del crédito se ha dispuesto en la fecha más temprana prevista en el contrato de crédito y con arreglo a dichos límites de disposición de fondos.

d) Si se ofrecen por un período o importe limitados diferentes tipos de interés y gastos, se considerará que el tipo de interés y los gastos son los más elevados durante toda la vigencia del contrato de crédito.

e) Para los contratos de crédito respecto de los que se haya convenido un tipo deudor en relación con el período inicial, al final del cual se determinará un nuevo tipo deudor, que se ajustará periódicamente con arreglo a un indicador o un tipo de referencia interno convenidos, para el cálculo de la tasa anual equivalente se partirá del supuesto de que, al final del período del tipo deudor fijado, el tipo deudor es el mismo que el vigente en el momento de calcularse la tasa anual equivalente, en función del valor del indicador o tipo de referencia interno convenidos en ese momento, sin ser inferior al tipo deudor fijado.

f) Si todavía no se ha acordado el importe máximo aplicable al crédito, se presumirá que es de 170.000 euros. En el caso de los contratos de crédito, exceptuados los compromisos o garantías contingentes, que no tengan por objeto

e) ekuazioa birformula daiteke batukari bat soilik erabiliz eta  $(Ak)$  fluxuen nozioa erabiliz, fluxu positiboak edo negatiboak, hau da, hurrenez hurren, 1. eta  $n$ . arteko aldietan ordainduak edo jasoak, urteka adieraziak:

— $S$  fluxu eguneratuen saldoa da, eta haren balioa hutsa izango da fluxuen baliokidetasunari eutsi nahi bazaio.

## II. Urteko tasa baliokidea kalkulatzeko kasu gehigarriak

a) Kreditu-kontratuak kontsumitzaileari funtsak eskuratzeko askatasuna ematen badio, kontsumitzaileak kredituaren zenbateko osoa berehala eta erabat erabili duela joko da.

b) Kreditu-kontratuan funtsak eskuratzeko modu bat baino gehiago jaso badira, gastu edo tasa zordun desberdinekoak, kredituaren zenbateko osoa tasa zordun handienean eta kreditu-kontratu mota horretan gehien erabiltzen den transakzio-kategoriari aplikatutako gastu handienekin eskuratzeko dela joko da.

c) Kreditu-kontratuak kontsumitzaileari oro har funts-eskuratzerako askatasuna ematen badio, baina funtsak eskuratzeko modu desberdinen artean muga bat ezartzen badu kredituaren zenbatekoari eta denboraldiari dagokienez, kredituaren zenbatekoa kreditu-kontratuan aurreikusitako datarik goiztiarrenean eta funtsak eskuratzeko muga horien arabera eskuratu dela ulertuko da.

d) Epe edo zenbateko mugatu baterako interes-tasa eta gastu desberdinak eskaintzen badira, interes-tasa eta gastuak kreditu-kontratuaren indarraldi osoan handienak direla joko da.

e) Kreditu-kontratuan hitzartu bada hasierako aldirako tasa zordun bat izatea eta haren amaieran beste tasa zordun bat jartzea, zeina aldian-aldian egokituko baita adostutako barne-adierazle edo -erreferentzia mota baten arabera, urteko tasa baliokidea kalkulatzeko abiapuntutzat hartuko da ezen, finkatutako tasa zordunaren aldiaren amaieran, tasa zorduna urteko erreferentzia-tasa baliokidea kalkulatzeko unean indarrean dagoen bera dela, une horretan hitzartutako barne-adierazle edo -erreferentzia motaren arabera, finkatutako tasa zorduna baino gutxiago izan gabe.

f) Oraindik ez bada hitzartu kredituari aplikatu beharreko gehieneko zenbatekoa, 170.000 euro dela joko da. Ondasun higiezinaren gaineko eskubideak eskuratzeko edo mantentzeko xede ez duten kreditu-kontratuaren kasuan —alde

la adquisición o el mantenimiento de derechos sobre bienes inmuebles, las posibilidades de descubierto, las tarjetas de débito diferido o las tarjetas de crédito, se supondrá que el importe máximo es de 1.500 euros.

g) En el caso de los contratos de crédito distintos de las posibilidades de descubierto, los préstamos puente, los contratos de crédito sobre capital compartido, los compromisos o garantías contingentes y los contratos de crédito de duración indefinida a que se refieren los supuestos contemplados en las letras i), j), k), l) y m):

- i. si no pueden determinarse la fecha o el importe de un reembolso de capital que debe efectuar el consumidor, se presumirá que el reembolso se hace en la fecha más temprana prevista en el contrato de crédito y por el importe más bajo establecido en el mismo,
- ii. si no puede determinarse el intervalo entre la fecha de la disposición inicial de fondos y la fecha del primer pago que debe efectuar el consumidor, se supondrá que es el intervalo más corto posible.

h) Cuando no puedan determinarse la fecha o el importe de un pago que debe efectuar el consumidor conforme al contrato de crédito o a los supuestos establecidos en las letras g), i), j), k), l) y m), se presumirá que el pago se hace con arreglo a las fechas y condiciones exigidas por el prestamista y, cuando estas sean desconocidas, se presumirá que:

- i. los gastos de intereses se pagarán junto con los reembolsos de capital,
- ii. los gastos distintos de los intereses expresados como una suma única se pagarán en la fecha de celebración del contrato de crédito,
- iii. los gastos distintos de los intereses expresados como varios pagos se pagarán a intervalos regulares, comenzando en la fecha del primer reembolso de capital y, si el importe de tales pagos no se conoce, se presumirá que tienen importes iguales,
- iv. el pago final liquidará el saldo de capital, intereses y otros gastos, en su caso.

i) En el caso de una posibilidad de descubierto, se considerará que se ha dispuesto del importe del crédito en su totalidad y por toda la duración del contrato de crédito. Si la duración de la posibilidad de descubierto no se conoce, la tasa anual equivalente se calculará basándose en el supuesto de que la duración del crédito es de tres meses.

j) En el caso de un préstamo puente, se considerará que se ha dispuesto del importe del crédito en su totalidad y por toda la duración del contrato de crédito.

batera utzita konpromiso edo berme kontingenteak—, zorpetzeko aukerak, zordunketa geroratuko txartelak edo kreditu-txartelak, gehieneko zenbatekoa 1.500 eurokoa dela joko da.

g) Zorpekoen aukerak ez diren kreditu-kontratuen kasuan, zubi-maileguak, kapital partekatuaren gaineko kreditu-kontratuak, konpromiso edo berme kontingenteak eta i), j), k), l) eta m) letretan jasotako kasuetan aipatzen diren iraupen mugagabeko kreditu-kontratuak:

- i. ezin bada zehaztu kontsumitzaileak egin behar duen kapital-itzultze baten data edo zenbatekoa, ulertuko da diru-itzultzea kreditu-kontratuan aurreikusitako datarik goiztiarrenean egin dela eta kontratuan ezarritako zenbatekorik baxuena itzuli dela,
- ii. ezin bada zehaztu zer denbora-tarte izango den hasierako funts-eskuratzearen datatik kontsumitzaileak egin beharreko lehen ordainketaren data bitarte, tarte hori ahal den laburrena dela joko da.

h) Kreditu-kontratuaren arabera edo g), i), j), k), l) eta m) letretan ezarritako kasuen arabera kontsumitzaileak egin behar duen ordainketa baten data edo zenbatekoa zehaztu ezin denean, ordainketa mailegu-emaileak eskatutako daten eta baldintzen arabera egin dela ulertuko da, eta, baldintza horiek ezezagunak badira, honako hau ulertuko da:

- i. interesen gastuak kapital-itzultzeekin batera ordainduko dira,
- ii. zenbateko bakar gisa adierazitako interesez besteko gastuak kreditu-kontratua egiten den egunean ordainduko dira.
- iii. hainbat ordainketa gisa adierazitako interesez besteko gastuak tarte erregularretan ordainduko dira, lehenbiziko kapital-itzultzearen egunean hasita, eta, ordainketa horien zenbatekoa jakin ezean, zenbateko berdinekoak direla joko da.
- iv. azken ordainketak kapital-saldoa, interesak eta bestelako gastuak —hala-lakorik bada— likidatuko ditu.

i) Zorpekoa izan daitekeen kasuetan, kredituaren zenbateko osoa eskuratu dela joko da, kreditu-kontratuaren iraupen osoan. Zorpekoen aukeraren iraupena jakin ezean, kredituaren iraupena hiru hilabete dela joz kalkulatu da urteko tasa baliokidea.

j) Zubi-mailegu baten kasuan, kredituaren zenbateko osoa eta kreditu-kontratuaren iraupen osoan eskuratu dela joko da. Kreditu-kontratuaren iraupena

dito. Si la duración del contrato de crédito no se conoce, la tasa anual equivalente se calculará basándose en el supuesto de que la duración del crédito es de 12 meses.

k) En el caso de un contrato de crédito de duración indefinida que no sea en forma de posibilidad de descubierto o de préstamo puente:

- i. si se trata de un contrato de crédito cuya finalidad es adquirir o conservar derechos sobre bienes inmuebles, se presumirá que el crédito se otorga por un período de 20 años a partir de la fecha de la primera disposición de fondos, y que el pago final efectuado por el consumidor liquida el saldo de capital, intereses y otros gastos, en su caso; si se trata de un contrato de crédito cuya finalidad no es adquirir o conservar derechos sobre bienes inmuebles o en el que se dispone de los fondos mediante tarjeta de débito diferido o tarjeta de crédito, se presumirá que este período es de un año,
- ii. se presumirá que el consumidor devuelve el crédito en plazos mensuales iguales, el primero de los cuales se efectúa un mes después de la fecha de la primera disposición de fondos; no obstante, en caso de que el capital tenga que ser reembolsado en su totalidad en un pago único, dentro de cada período de pago, se presumirá que se producen disposiciones y reembolsos sucesivos de todo el capital por parte del consumidor a lo largo del período de un año; los intereses y otros gastos se aplicarán de conformidad con estas disposiciones de fondos y reembolsos de capital y conforme a lo establecido en el contrato de crédito.

A los efectos del presente punto, se considerará contrato de crédito de duración indefinida un contrato de crédito que no tiene duración fija e incluye créditos que deben reembolsarse en su totalidad dentro o después de un período, pero que, una vez devueltos, vuelven a estar disponibles para una nueva disposición de fondos.

l) En el caso de los compromisos o garantías contingentes, se considerará que se ha dispuesto del importe del crédito en su totalidad en una sola vez en la más temprana de las dos fechas siguientes:

- i. la última fecha de disposición de fondos autorizada por el contrato de crédito que pueda dar lugar a la materialización del compromiso o garantía contingente, o
- ii. si se trata de un contrato de crédito renovable, el final del primer período anterior a la renovación del contrato.

jakin ezean, kredituaren iraupena 12 hilabete dela joz kalkulatu da urteko tasa baliokidea.

k) Zorpeko-aukerarik edo zubi-mailegua izateko aukerarik ez duen iraupen mugagabeko kreditu-kontratu baten kasuan:

- i. Ondasun higiezinaren gaineko eskubideak eskuratzeko edo gordetzeko kreditu-kontratu bada, kreditua 20 urterako ematen dela joko da, lehen funts-eskuratzeetik kontatzen hasita, eta kontsumitzaileak egingandako azken ordainketak likidatzen dituela kapitalaren saldoa, interesak eta bestelako gastuak, hala badagokio; kreditu-kontratu horren helburua ez bada ondasun higiezinaren gaineko eskubideak edo kreditu-epaia eskuratzeko edo gordetzeko, edo funtsak zorduntze geroratuko txartel edo kreditu-txartel baten bidez eskuratzen diren kreditua bada, epe hori urtebete dela joko da.
- ii. Kontsumitzaileak kreditua hileko epe berdinetan itzultzen duela joko da, lehen epea aurreneko funts-eskuratzearen egin eta hilabetera dela; hala ere, kapitala ordainketa bakar batean osorik itzuli behar bada, ordainketa-aldi bakoitzaren barruan joko da kapital osoaren eskuratzeko eta diru-itzultzeak egiten dituela kontsumitzaileak hurrenez hurren urtebete epe batean zehar; interesak eta beste gastu batzuk, berriz, funts-eskuratze eta kapital-itzultze horien arabera egingo dira, eta kreditu-kontratuan ezarritakoarekin bat etorritik.

Puntu honen ondorioetarako, iraupen mugagabeko kreditu-kontratutzat hartuko da iraupen finkorik ez duen kreditu-kontratu bat, barne hartzen dituen denboraldi baten barruan edo ondoren osorik itzuli behar diren kredituak, zeinak, itzuli ondoren, berriro erabil baitaitezke beste funts-eskuratze baterako.

l) Konpromiso edo berme kontingenteei dagokienez, kredituaren zenbateko osoa bi data hauetatik aurren egokitzen denean eskuratu dela joko da:

- i. kreditu-kontratuak funts-eskuratzerako baimendutako azken eguna, konpromiso edo berme kontingentea gauzatzea ekar dezakeena, edo
- ii. kreditu berriztagarriko kontratu bada, kontratu berritu aurreko lehen aldiaren amaiera.

- m) En el caso de los contratos de crédito sobre capital compartido:
- i. se considerará que el consumidor efectúa los pagos en la última fecha o las últimas fechas autorizadas por el contrato de crédito,
  - ii. se considerará que los incrementos porcentuales del valor del bien inmueble que constituye la garantía del contrato de crédito sobre capital compartido, así como la tasa de cualquier índice de inflación mencionado en el contrato, son un porcentaje igual al mayor de los dos valores siguientes: la tasa de inflación objetivo del Banco Central en ese momento, o el nivel de inflación existente en el momento de la celebración del contrato en el Estado miembro en el que está situado el bien; o bien el 0 % si los dos porcentajes anteriores son negativos.



m) Kapital partekatuaren gaineko kreditu-kontratuen kasuan:

- i. Joko da kreditu-kontratuak baimendutako azken egunean edo egunetan egiten dituela kontsumitzaileak ordainketak.
- ii. Kapital partekatuaren gaineko kreditu-kontratuaren berme den ondasun higiezinaren balioaren portzentajezko gehikuntzak, bai eta kontratua aipatutako edozein inflazio-indizeren tasa ere, bi balio hauetako handienaren berdin den ehunekoak direla joko da: une horretan Banku Zentralaren helburu den inflazio-tasa, edo ondasuna dagoen estatu ki-dean kontratua egiten den unean dagoen inflazio-maila; edo % 0, aurreko bi ehunekoak negatiboak badira.

LEY 19/1985, DE 16 DE JULIO,  
CAMBIARIA Y DEL CHEQUE

---

19/1985 LEGEA, UZTAILAREN 16KOA,  
KANBIO-LETRARENA ETA TXEKEARENA

---

## PREÁMBULO

### I

La adaptación del ordenamiento sobre la letra de cambio, el cheque y el pagaré a la llamada legislación uniforme de Ginebra supone dar un paso decisivo encaminado a la renovación de nuestro Derecho Mercantil, tan necesitado de reforma. Si esta necesidad es predicable de otros sectores del ordenamiento mercantil, en pocos se hace tan evidente como en el de estos títulos valores, cuya regulación casi centenaria ha sido repetidamente denunciada por no servir para proteger adecuadamente los créditos incorporados a dichos documentos.

La regulación de la letra de cambio, contenida en el título X del libro II del Código de Comercio, está inspirada directamente en la de su homónimo francés, dominado, cuando aquél se promulgó, por una concepción instrumental de la cambial, sobre la que incidían directamente todos los avatares del negocio causal. Esta concepción choca abiertamente con las necesidades del tráfico jurídico contemporáneo, en el que la circulación de los títulos no puede quedar sometida al mismo régimen que la simple cesión de créditos. Estas insuficiencias están directamente vinculadas al sistema de excepciones oponibles por el deudor cambiario, del que la circunstancia de ser la Ley de Enjuiciamiento Civil anterior al Código de Comercio ha hecho un problema eminentemente procesal, cuando, por el contrario, su solución es determinante del régimen jurídico sustantivo de estos títulos. Dicho con otras palabras: Del régimen de excepciones que se adopte depende que se perpetúe la configuración causalista de la letra, o bien que se inicie la tendencia a la abstracción del título.

## HITZAURREA

### I

Kanbio-letrari, txekeari eta zor-agiriari buruzko ordenamendua «Genevako legeria uniforme» deritzonera egokitzea pauso erabakigarria da gure Merkataritza Zuzenbidea berritzeko, horretarako behar handia ere baitu. Behar bera dutela esan daiteke merkataritza-ordenamenduko beste sektore batzuez ere, baina gutxitan izango da balore-tituluen sektore honetan bezain nabaria; izan ere, haien erregulazioak ia ehun urte ditu, eta behin eta berriz salatu da ez duela balio dokumentu horietara bildutako kredituak behar bezala babesteko.

Kanbio-letraren erregulazioa, Merkataritza Kodearen II. liburuko X. tituluari jasoa, Frantziako izen berekoan oinarritua dago zuzenean, eta hartan, aldarrikatu zenean, kanbio-araudiaren ikuskera instrumental bat zen nagusi, zeinaren gain zuzenean eragiten baitzuten kausa-negozioaren gorabehera guztiek. Ulerkera horrek talka egiten du, aurrez aurre, gaur egungo trafikoko juridikoaren premiekin; izan ere, gaur egun, tituluen zirkulazioa eta kreditu-lagapen soila ezin dira araubide beraren mende egon. Gabezia horiek zuzenean lotuta daude kanbio-zordunak alega ditzakeen salbuespenen sistemarekin. Prozedura Zibilaria buruzko Legea Merkataritza Kodea baino lehenagokoa izateak arazo bat sortu du salbuespenen sistema horretarako, nagusiki prozesala, haren konponbidea titulu hauen araubide juridiko substantiborako erabakigarria bada ere. Bestela esanda: erabakitzen den salbuespen-araubidearen mende egongo da letraren konfigurazio kausalista betikotzea edo, bestela, tituluaren abstrakzioarako joera hastea.

## II

Estas insuficiencias no son, sin embargo, el único factor determinante de la reforma que se propone. A aquéllas hay que agregar la voluntad política de incorporar a España al conjunto de Estados que están contribuyendo a llevar a la realidad el propósito, explícito, por ejemplo, en el artículo 3, h), del Tratado de Roma, constitutivo de la Comunidad Económica Europea, de aproximar las legislaciones nacionales en la medida necesaria para el funcionamiento del Mercado Común.

Es sabido que el Derecho Mercantil ha reivindicado históricamente la nota de universalidad, mucho antes de que las relaciones de toda índole entre los pueblos y entre los Estados alcanzasen el grado de fluidez que tienen en la actualidad. En efecto, el intercambio empresarial entre Estados dotados de similares sistemas políticos, que reconocen, a su vez, similares sistemas de organización económica, requiere la existencia de regulaciones homogéneas en un buen número de instituciones.

Una de las categorías del entorno institucional común —la autonomía de la voluntad— ha permitido que los sectores interesados acudiesen en no pocas ocasiones a la autorregulación y a la unificación de prácticas negociables. Pero cuando la autorregulación no es posible, han sido los estados y las Organizaciones Internacionales quienes han procurado acentuar los perfiles comunes de las instituciones necesarias para que el tráfico jurídico se desarrolle adecuadamente. Uno de estos casos lo constituye el ordenamiento de la letra de cambio, pagaré a la orden y cheque, contenido en las Leyes Uniformes anejas a los Convenios de Ginebra de 7 de junio de 1930 y 19 de marzo de 1931. Esta Ley recoge, sustancialmente, la regulación ginebrina.

## III

La opción manifiesta por el sistema de las Leyes de Ginebra se fundamenta, ante todo, en la superioridad técnica de esa normativa frente a la de nuestro Código de Comercio.

Las novedades que la Ley incorpora tienen múltiples manifestaciones, y comienzan por la sencillez con que se delimitan los requisitos formales de los títulos regulados y el vigor con que se defiende la validez genérica de cada una de las declaraciones a ellos incorporadas, aunque algunas de las demás esté afectada por vicios invalidantes. Se trata, en definitiva, de facilitar la circulación de estos do-

## II

Proposatzen den erreformarako faktore erabakigarria, ordea, ez dira gabezia horiek bakarrik. Horrez gain, aintzat hartzekoa da borondate politikoa dagoela Espainia ere sar dadin legeria nazionalak behar den neurrian Merkatu Erkidearen funtzionamendura hurbiltzeko xedea errealitate bihurtzen laguntzen ari diren estatuen multzoan —xede hori esplizituki aipatua da, adibidez, Erromako Itunaren 3. artikulua h) letran—.

Jakina da Merkataritza Zuzenbideak unibertsaltasun-ezaugarria aldarrikatu duela bere historian, herrien eta estatuen arteko era guztietako harremanak gaur egun diren bezain sarriak izan baino askoz lehenago ere. Izan ere, antzeko sistema politikoak dituzten estatuen arteko truke enpresarialak, estatuok, orobat, antolaketa ekonomikorako antzeko sistemak aitortzen dituztelarik, eskatzen du erregulazioak homogeneousak izatea erakunde askotan.

Eremu instituzional komuneko kategorietako batek —borondatearen autonomiak— aukera eman du sektore interesdunek behin baino gehiagotan autorregulaziora eta jardunbide negoziagarriak bateratzera jo zezaten. Baina, autorregulazioa ezinezkoa denean, estatuak eta nazioarteko erakundeak saiatu dira trafiko juridikoa behar bezala garatzeko beharrezkoak diren erakundeen profil komunak indartzen. Kasu horietako bat da kanbio-letraren, agindurako zor-agiriaren eta txekearen ordenamendua, 1930eko ekainaren 7ko eta 1931ko martxoaren 19ko Genevako Hitzarmenei erantsitako lege uniformeetan jaso. Lege honek, funtsean, Genevako erregulazioa jasotzen du.

## III

Nabarmen Genevako legeen sistemaren alde egiteko arrazoa, oroz gain, araudi hori teknikoki gure Merkataritza Kodearen gainetik egotea da.

Legeak jaso dituen berritasunak hainbat eratan agertzen zaizkigu. Hasteko, modu errazean zedarritu dira araututako tituluen betekizun formalak, eta irmo aldeztu da haiei erantsitako deklarazio bakoitzak balio generikoa duela gaineraoetako batek baliogabe izaterainoko akatsak izan arren. Erraztasunak eman nahi dira, azken finean, dokumentu horiek zirkulatzeko, eskuratzaileren biz-

cumentos sin imponer al adquirente la carga de examinar, además de la regularidad formal de los endosos, la validez intrínseca de todas las declaraciones precedentes. Acoge también situaciones que se producen, en la práctica, tales como los títulos en blanco, que están huérfanos de regulación en los textos vigentes, la suscripción de estos documentos alegando una representación inexistente (problema para cuya solución hay que acudir hoy a categorías extracambiarías), el cheque para abonar en cuenta o el cheque certificado o conformado. Al referirse a los requisitos formales del título cabe resaltar la desaparición de la mención de la «cláusula valor» en la letra de cambio, rastro evidente de la concepción causal que domina, si bien no con absoluta exclusividad, el sistema vigente.

La superioridad técnica de los textos ginebrinos resalta especialmente en los artículos 17 de la Ley de la Letra de Cambio y 22 de la del Cheque, de los que son fiel trasunto los artículos 20 y 128, respectivamente, de ésta. En ellos se delimita negativamente y con encomiable sencillez el régimen de excepciones, sin necesidad de acudir a listas tasadas, lo que contrasta con la tajante dicción del vigente artículo 480 del Código de Comercio, que tantas matizaciones jurisprudenciales ha recibido en sus cien años de vigencia.

Merece también mención especial la configuración del aval. El texto trata de poner fin a la polémica doctrinal y jurisprudencial sobre la naturaleza jurídica de esa declaración cambiaria, optando por su definición como obligación autónoma, válida aunque sea nula la obligación garantizada por motivo distinto de los vicios de forma.

Las normas sobre presentación a la aceptación, en el caso de la letra, y al pago de las tres clases de títulos regulados denotan la flexibilidad con que se aborda esta materia; cabe destacar la ampliación de los plazos para presentar a la aceptación las letras de cambio giradas a la vista y, en general, para la presentación al pago de estos títulos.

#### IV

Las Leyes uniformes tienen el propósito manifiesto de fortalecer la posición jurídica del acreedor cambiario. Tal propósito tiene su reflejo en esta Ley no sólo en la formulación de las excepciones oponibles, a la que ya se ha hecho mención para subrayar su carácter sustantivo, sino en otros ámbitos. Cabe destacar en primer lugar la flexibilidad con que se aborda el régimen de protesto, permitiendo su sustitución por declaraciones del librado o de la Cámara de Compensación o su eliminación. También supone una novedad, al menos como formulación nor-



kar utzi gabe behar diren deklarazio guztien berezko balioa aztertzeko lana, endosuen erregulartasun formala aztertu beharraz gain. Praktikan gertatzen diren hainbat egoera jaso ere egiten ditu. Esate baterako, zurizko tituluak, indarrean dauden testuetan batere arautu gabeak; halako dokumentuak sinatzea egiazki ez den ordezkari bat alegatuz (arazo hori konpontzeko, gaur egun kanbioaz landako kategorietara jo behar da); kontuan ordaintzeko txekea; eta txeke ziurtatu edo onetsia. Tituluaren betekizun formalei dagokienez, nabarmentzekoa da kanbio-letran jada ez dela aipatzen «balio-klausula»; horrek arrasto argi bat ematen du zenbateraino den kausala indarrean dagoen sistema, osotara hala ez bada ere.

Genevako testuen gailentasun teknikoa bereziki nabarmentzen da Kanbio Letraren Legearen 17. artikuluan eta Txekearen Legearen 22. artikuluan, zeinen isla baitira lege honen 20. eta 128. artikulua, hurrenez hurren. Artikulu horietan, negatiboki eta soiltasun laudagarriz zedarrizten da salbuespen-araubidea, zerrenda tasatuen beharrik gabe; oso bestela jokatu zen, adierazpen zorrotzez, indarrean dagoen Merkataritza Kodearen 480. artikuluan, eta gerora hainbeste nabardura jaso ditu jurisprudentziaren aldetik bere ehun urteko bizian.

Aipamen berezia merezi du abalaren konfigurazioak ere. Testuak amaiera eman nahi dio kanbio-deklarazio horren izaera juridikoari buruz doktrinan eta jurisprudentzian izan den polemikari, eta obligazio autonomo gisa definitzen du abala, baliozkoa izan dadin forma-akatsez besteko arrazoiengatik bermatutako obligazioa baliogabea izanik ere.

Onarpena aurkezteari, letraren kasuan, eta araututako hiru titulu motak ordaintzeari buruzko arauak erakusten dute gai horri malgutasunez heldu zaiola; nabarmentzekoa da epeak handitu direla ageriko kanbio-letrak onarpenarako aurkezteko eta, oro har, titulu horiek ordaintzera aurkezteko.

#### IV

Lege uniformeen xede garbia da kanbio-hartzekodunaren posizio juridikoa indartzea. Xede hori islatua dago lege honetan, ez bakarrik aurka jar daitezkeen salbuespenen formulazioan —aipatu da hori salbuespen horien izaera substantiboa azpimarratzean—, bai eta beste esparru batzuetan ere. Lehenik eta behin, azpimarratu behar da malgutasunez heldu zaiola protestoarean araubideari, eta aukera eman dela ezabatzeko edo haren ordezkari gorpenduaren edo Kontentsazio Ganberaren deklarazioak erabiltzeko. Berritasun bat da halaber, arau-for-

mativa, el que la rigurosa obligación del aceptante de la letra de cambio y de sus avalistas no quede sometida a condición de protesto o declaración equivalente. Otro mecanismo fundamental para reforzar la garantía del tenedor es el establecimiento de la solidaridad pasiva absoluta de los deudores cambiarios, a los que, con independencia de su posición en el título se podrá demandar conjunta o separadamente. También pueden enmarcarse entre las medidas que van a suponer indirectamente, una mejor situación del acreedor, el establecimiento de un interés de demora más adecuado a la situación del momento en que se produzca el impago de uno de los títulos. Para el concreto caso del cheque se prevé una cláusula penal que jugará contra el librador que emita un cheque sin tener provisión de fondos en poder del librado. Un nuevo cauce procedimental para el juicio ejecutivo cambiario completa las medidas tendentes a reforzar la posición del tenedor, además de la reforma del artículo 1.429 de la Ley de Enjuiciamiento Civil, para incluir en el enunciado de los títulos ejecutivos al pagaré y al cheque.

La ley dedica, en fin, dos capítulos a resolver los problemas derivados del conflicto de Leyes.

## V

No puede negarse el descrédito relativo que rodea hoy a la letra de cambio en nuestra sociedad; es cierto que tal actitud no deriva exclusivamente, ni siquiera principalmente, de las insuficiencias normativas que han sido expuestas. La situación crítica que vive nuestra economía y una desmesurada utilización de la letra de cambio, tanto en el mercado de bienes y servicios de consumo como en el mercado financiero, y unas leyes procesales obsoletas, no son factores extraños al elevadísimo número de impagados que recogen las estadísticas. La nueva Ley, rigurosa con el deudor, quiere cambiar ciertos usos que han contribuido a ese descrédito, restableciendo la confianza en el Ordenamiento jurídico y en uno de los valores fundamentales de la vida empresarial, la buena fe.

La normativa jurídica que introduce esta ley, absolutamente necesaria y conveniente, no impide que, tras los oportunos estudios y cuando las circunstancias económicas y sociales lo requieran, pueda abordarse la elaboración de un texto legal complementario y específico que establezca las normas que hayan de regir para las letras emitidas en operaciones realizadas por los consumidores y usuarios. Las diferentes orientaciones de los ordenamientos jurídicos de otros países europeos, así como la inexistencia de normativa uniforme en esta materia, aconsejan no introducir en la presente Ley su regulación definitiva, sin perjuicio de que ello pueda y deba hacerse en el momento oportuno.

mulazio gisa behintzat, kanbio-letra onartzen duenaren eta haren abal-emai-  
leen betebeharrak zorrotza ez geratzea protestoaren edo deklarazio baliokide baten  
mende. Edukiztailearen bermea indartzeko funtsezko beste mekanismo bat  
kanbio-zordunen solidaritate pasibo erabatekoa ezartzea da; edozein dela ere  
tituluan duten posizioa, batera edo bereiz aurkeztu ahal izango zaie demanda.  
Zeharka hartzekodunaren egoera hobetuko duten neurrien artean sar daiteke,  
orobat, tituluetakoa bat ez ordaintzea gertatzen den egoerarako egokiagoa den  
berandutze-interes bat ezartzea. Txekearen kasu konkreturako, klausula pe-  
nal bat aurreikusten da igorpenaren esku funtsik izan gabe txekea jaulkitzen  
duen igorlearen aurka. Kanbio-judizio exekutiborako prozedura-bide berri ba-  
tek osatzen ditu edukiztailearen posizioa indartzeko neurriak, Prozedura Zibi-  
lari buruzko Legearen 1.429. artikulua erreformaz gain, betearazpen-titu-  
luen zerrendan zor-egiria eta txekea sartzeko.

Legeak, azkenik, bi kapitulu eskaintzen dizkio legeen arteko gatazken on-  
doriozko arazoak konpontzeari.

## V

Ezin da ukatu gaur egun gure gizartean izen ona galdu duela kanbio-letrak,  
neurri batean; eta egia da hori ez dela bakar-bakarrik, ezta nagusiki ere, azaldu  
ditugun arautze-hutsuneen ondorio. Estatistikek jasotzen duten ordainduga-  
been kopuru oso handiarekin zerikusirik gabeak ez dira, alde batetik, gure eko-  
nomiak bizi duen egoera kritikoa eta kanbio-letra neurritz kanpo erabiltzea, bai  
kontsumo-ondasunen eta -zerbitzuen merkatuan, bai finantza-merkatuan, eta,  
bestetik, prozedura-lege zaharkituak. Lege berria, zordunarekin zorrotza, saiatu  
da izen ona galtze horretan eragina izan duten zenbait erabilera aldatzen, eta  
konfiantza berrezarri nahi du ordenamendu juridikoan eta enpresa-bizitzaren  
funtsezko balioetako bat den fede onean.

Lege honek ezartzen duen araudi juridikoa, guztiz beharrezkoa eta komeni-  
garria, ez da eragozpen lege-testu osagarri eta espezifiko bat prestatzeko, zeinak,  
dagozkion azterlanak egin ondoren eta inguruabar ekonomiko eta sozialek hala  
eskatzen dutenean, arauak ezarriko baititu kontsumitzaile eta erabiltzaileen er-  
agiketetan jaulkitako letrak eraentzeko. Europako beste herrialde batzuetako  
ordenamendu juridikoen orientazio desberdinek eta gai honi buruzko araudi  
uniformerik ez izateak gomendagarri egiten dute lege honetan ez sartzeko behin  
betiko erregulazioa, baina horrek ez du esan nahi une egokia iristean hori egin  
ezin denik eta egin behar ez denik.

# TÍTULO I

## DE LA LETRA DE CAMBIO Y DEL PAGARÉ

### CAPÍTULO PRIMERO

#### De la emisión y de la forma de la letra de cambio

##### Artículo primero

La letra de cambio deberá contener:

Primero.—La denominación de letra de cambio inserta en el texto mismo del título expresada en el idioma empleado para su redacción.

Segundo.—El mandato puro y simple de pagar una suma determinada en pesetas o moneda extranjera convertible admitida a cotización oficial.

Tercero.—El nombre de la persona que ha de pagar, denominada librado.

Cuarto.—La indicación del vencimiento.

Quinto.—El lugar en que se ha de efectuar el pago.

Sexto.—El nombre de la persona a quien se ha de hacer el pago o a cuya orden se ha de efectuar.

Séptimo.—La fecha y el lugar en que la letra se libra.

Octavo.—La firma del que emite la letra, denominado librador.

##### Artículo segundo

El documento que carezca de alguno de los requisitos que se indican en el artículo precedente no se considera letra de cambio, salvo en los casos comprendidos en los párrafos siguientes:

- a) La letra de cambio cuyo vencimiento no este expresado se considerará pagadera a la vista.
- b) A falta de indicación especial, el lugar designado junto al nombre del librado se considerará como el lugar del pago y, al mismo tiempo, como lugar del domicilio del librado.
- c) La letra de cambio que no indique el lugar de su emisión se considerará librada en el lugar designado junto al nombre del librador.

I. TITULUA  
KANBIO-LETRA ETA ZOR-AGIRIA

LEHEN KAPITULUA  
Kanbio-letra jaulkitzea eta haren forma

**Lehenengo artikulua**

Kanbio-letrak honako hauek jaso behar ditu:

Lehenengo.— Kanbio-letra izena, tituluaren testuan bertan txertatua, idazteko erabilitako hizkuntza berean.

Bigarren.— Zenbateko bat ordaintzeko agindu garbi eta sinplea, zenbateko hori pezetatan edo kotizazio ofizialerako onartutako atzerriko dibisa bihurgarri batean adierazita.

Hirugarren.— Ordaindu behar duen pertsonaren izena; igorpendu deritzo.

Laugarren.— Muga-eguna.

Bosgarren.— Ordainketa egin behar den lekua.

Seigarren.— Ordainketa egin behar zaion edo haren agindura egin behar den pertsonaren izena.

Zazpigarren.— Letra igortzen den data eta lekua.

Zortzigarren.— Letra jaulkitzen duenaren sinadura; igorle deritzo.

**Bigarren artikulua**

Aurreko artikuluan aipatzen diren betekizunetakoren bat betetzen ez duen agiria ez da kanbio-letratzat hartuko, salbu paragrafo hauetan aipatzen diren kasuetan:

- a) Muga-eguna adierazita ez daukan kanbio-letra ikustean ordaintzekotzat joko da.
- b) Aipamen berezirik ezean, igorpenduaren izenaren ondoan izendatzen den lekua hartuko da ordaintzeko lekutzat eta, aldi berean, igorpenduaren egoitatzat.
- c) Igorpen-lekua adierazten ez duen kanbio-letra igorlearen izenaren ondoan adierazitako lekuan igorritzat joko da.

### **Artículo tercero**

Cuando la letra se gira contra dos o más librados, se entenderá que se dirige indistintamente a cada uno, para que cualquiera de ellos pague el importe total de la misma.

### **Artículo cuarto**

La letra de cambio también podrá girarse:

- a) A la orden del propio librador.
- b) Contra el propio librador.
- c) Por cuenta de un tercero.

### **Artículo quinto**

La letra de cambio podrá ser pagadera en el domicilio de un tercero, sea en la localidad en que el librado tiene su domicilio, sea en otra localidad.

En este caso, el pago se reclamará del tercero, salvo que se exprese que pagará el propio librado.

### **Artículo sexto**

En una letra de cambio pagadera a la vista o a un plazo desde la vista, podrá disponer el librador que la cantidad correspondiente devengue intereses. En cualquier otra letra de cambio, semejante estipulación se considerará como no escrita.

El tipo de interés anual deberá indicarse en la letra y, a falta de esta indicación, la cláusula correspondiente se considerará como no escrita.

Los intereses correrán a partir de la fecha en que se libere la letra de cambio mientras no se indique otra fecha al efecto.

### **Artículo séptimo**

Cuando en una letra de cambio figure escrito el importe de la misma en letra y en números será válida la cantidad escrita en letra, en caso de diferencia.

La letra de cambio cuyo importe esté escrito varias veces por suma diferente, ya sea en letra, ya sea en números, será válida por la cantidad menor.

## Hirugarren artikulua

Letra bi igorpenduren edo gehiagoren kargura igortzen denean, ulertuko da bakoitzari zuzentzen zaiola, haietako edozeinek haren zenbateko osoa ordain dezan.

## Laugarren artikulua

Kanbio-letra honela ere igorri ahal izango da:

- a) Igorlearen beraren agindura.
- b) Igorlearen beraren kargura.
- c) Hirugarren baten kontura.

## Bosgarren artikulua

Kanbio-letra izan daiteke hirugarren baten egoitzan ordaintzekoa, izan igorpenduak bizilekua duen herrian edo izan beste batean.

Kasu horretan, ordainketa hirugarrenari eskatuko zaio, ez bada adierazten igorpenduak berak ordainduko duela.

## Seigarren artikulua

Ikustean ordaintzekoa edo ikustetik epe jakin batera ordaintzekoa den kanbio-letra batean, igorleak erabaki dezake dena delako zenbatekoak interesak sorraraztea. Beste edozein kanbio-letratan, halako estipulazioen bat baldin bada, idatzi gabekotzat hartuko da.

Urteko interes-tasa adierazi beharko da letran, eta, adierazi ezean, idatzi gabekotzat joko da dagokion klausula.

Interesak kanbio-letra jaulkitzen den egunetik aurrera hasiko dira, ez bada beste datarik adierazten horretarako.

## Zazpigarren artikulua

Kanbio-letra batean zenbatekoa hitzez eta zenbakiz idatzita badago eta ez badatuz bat, hitzez idatzitako zenbatekoa izango da baliozkoa.

Zenbatekoa behin baino gehiagotan idatzi bada, hitzez nahiz zenbakiz, kopuruetan txikienaren balioa izango du kanbio-letrak.

### **Artículo octavo**

Cuando una letra de cambio lleve firmas de personas incapaces de obligarse, o firmas falsas, de personas imaginarias, o firmas que por cualquier otra razón no puedan obligar a las personas que hayan firmado la letra o a aquellas con cuyo nombre aparezca firmada, las obligaciones de los demás firmantes no dejarán por eso de ser válidas.

### **Artículo noveno**

Todos los que pusieren firmas a nombre de otro en letras de cambio deberán hallarse autorizados para ello con poder de las personas en cuya representación obraren, expresándolo claramente en la antefirma.

Se presumirá que los administradores de Compañías están autorizados por el solo hecho de su nombramiento.

Los tomadores y tenedores de letras tendrán derecho a exigir a los firmantes la exhibición del poder.

### **Artículo diez**

El que pusiere su firma en una letra de cambio, como representante de una persona sin poderes para obrar en nombre de ella, quedará obligado en virtud de la letra. Si la pagare, tendrá los mismos derechos que hubiera tenido el supuesto representado. Lo mismo se entenderá del representante que hubiere excedido sus poderes, sin perjuicio de la responsabilidad cambiaria del representado dentro de los límites del poder.

### **Artículo once**

El librador garantiza la aceptación y el pago.

Podrá eximirse de la garantía de la aceptación, pero toda cláusula por la cual se exonere de la garantía del pago se considerará como no escrita.

### **Artículo doce**

Cuando una letra de cambio, incompleta en el momento de su emisión, se hubiese completado contrariamente a los acuerdos celebrados, el incumplimiento de estos acuerdos no podrá alegarse contra el tenedor, a menos que éste haya adquirido la letra de mala fe o con culpa grave.



## **Zortzigarren artikulua**

Kanbio-letra bateko sinadura batzuk obligazioak hartzeko ezgai diren pertsonenak badira, edo faltsuak, alegiazko pertsonenak, edo beste edozein arrazoiengatik letra sinatu duten edo beren izena sinatzaile ageri duten pertsonak behartu ezin dituztenak, gainerako sinatzaileen obligazioak ez dira hargatik baliorik gabe geldituko.

## **Bederatzigarren artikulua**

Beste baten izenean kanbio-letretan sinadurak jartzen dituztenek horretarako baimena izan beharko dute, beraren izenean lan egiten duten pertsonaren ahalordearekin, eta hori argi eta garbi adierazi beharko dute sinaduraurrean.

Konpainien administratzaileak baimendutzat joko dira hala izendatuak izate hutsagatik.

Letren hartzaileek eta edukitzaileek eskubidea dute sinatzaileei ahalordea erakusteko eskatzeko.

## **Hamargarren artikulua**

Kanbio-letra batean ahalorderik ez duen beste pertsona baten ordezkari gisa bere sinadura jartzen duena, haren izenean jarduteko, letraren obligaziopean geldituko da. Letra ordaintzen badu, ustezko ordezkatuak zituen eskubide berak izango ditu. Gauza bera ulertuko da ordezkariak ahalordeak gainditu dituen kasuan, ordezkatuak ahalordearen mugen barruan duen kanbio-erantzukizuna eragotzi gabe.

## **Hamaikagarren artikulua**

Igorleak onarpena eta ordainketa bermatzen ditu.

Salbuesten ahalko da onarpena bermatzetik, baina ordainketa bermatzetik salbuesten duen klausula oro idatzi gabekotzat joko da.

## **Hamabigarren artikulua**

Baldin eta kanbio-letra bat, igortzen den unean osatu gabea, egindako akordioen aurka osatu bada, akordio horiek ez betetzea ezin izango da alegatu edukitzailearen aurka, non eta hark ez duen fede txarrez edo erru larriz esku-ratu letra.

### **Artículo trece**

Cuando la extensión de las menciones que hayan de figurar en la letra así lo exija, podrá ampliarse el documento en que conste la letra de cambio, incorporando un suplemento por medio de una hoja adherida en la que se identifique la misma y en la que podrán hacerse constar cualesquiera menciones previstas en la presente Ley, con excepción de las enumeradas en el artículo primero, que deberán figurar en el documento en que se creó la letra.

## **CAPÍTULO II**

### **Del endoso**

#### **Artículo catorce**

La letra de cambio, aunque no esté expresamente librada a la orden, será transmisible por endoso.

Cuando el librador haya escrito en la letra de cambio las palabras «no a la orden», o una expresión equivalente, el título no será transmisible, sino en la forma y con unos efectos de una cesión ordinaria.

El endoso podrá hacerse incluso a favor del librado, haya aceptado o no, del librador o de cualquier otra persona obligada en la letra. Todas estas personas podrán endosarla de nuevo.

#### **Artículo quince**

El endoso deberá ser total, puro y simple. Toda condición a la que aparezca subordinado se considerará no escrita.

El endoso parcial será nulo.

El endoso al portador equivaldrá a un endoso en blanco.

#### **Artículo dieciséis**

El endoso deberá escribirse en la letra o en su suplemento y será firmado por el endosante.

Será endoso en blanco el que no designe al endosatario o consista simplemente en la firma del endosante. En este último caso, para que el endoso sea válido deberá estar escrito al dorso de la letra de cambio.

## **Hamahirugarren artikulua**

Letran agertu behar duten aipamenen luzerak hala eskatzen duenean, kanbio-letra jasotzen duen dokumentua zabaldu ahal izango da, eta gehigarri bat erantsi ahal izango zaio orri itsatsi baten bidez. Hartan, letra identifikatu egingo da, eta lege honetan aurreikusitako edozein aipamen jaso ahal izango da, salbu lehenengo artikuluan zerrendatutakoak, haiek letra sortu zen dokumentuan bertan agertu beharko baitute.

## **II. KAPITULUA**

### **Endosua**

#### **Hamalauugarren artikulua**

Kanbio-letra, nahiz ez izan espresuki agindurako igorria, endosuz transmititu ahal izango da.

Igorleak kanbio-letran «agindura ez» edo deklarazio baliokide bat idatzi duenean, titulua lagapen arrunt baten moduan eta ondorioekin izango da transmitigarri, ez bestela.

Endosua egin daiteke igorpenduaren alde, hark onartu edo ez, igorlearen alde edo leturan obligatutako beste edozein pertsonaren alde ere. Pertsona horiek guztiek berriro endosatu ahal izango dute letra.

#### **Hamabosgarren artikulua**

Endosuak erabatekoa, garbia eta sinplea izan behar du. Edozein baldintza-  
ren mende jartzen dela ere, idatzi gabekotzat joko da baldintza hori.

Endosu partziala baliogabea izango da.

Eramailearentzako endosuak zurizko endosu baten balioa izango du.

#### **Hamaseigarren artikulua**

Endosua leturan edo haren eranskinean idatzi beharko da, eta endosatzai-  
leak sinatu beharko du.

Zurizko endosua izango da endosu-hartzailea izendatzen ez duena edo endosatzai-  
learen sinadura besterik ez duena. Azken kasu horretan, endosua bali-  
ozkoa izan dadin, kanbio-letraren atzealdean idatzita egon beharko du.

### **Artículo diecisiete**

El endoso transmite todos los derechos resultantes de la letra de cambio.

Cuando el endoso esté en blanco, el tenedor podrá:

1. Completar el endoso en blanco con su nombre o con el de otra persona.
2. Endosar la letra nuevamente en blanco o hacerlo designando un endosatario determinado.
3. Entregar la letra a un tercero, sin completar el endoso en blanco y sin endosarla.

### **Artículo dieciocho**

El endosante, salvo cláusula en contrario, garantiza la aceptación y el pago frente a los tenedores posteriores.

El endosante puede prohibir un nuevo endoso. En este caso, no responderá frente a las personas a quienes ulteriormente se endosare la letra.

### **Artículo diecinueve**

El tenedor de la letra de cambio se considerará portador legítimo de la misma cuando justifique su derecho por una serie no interrumpida de endosos, aun cuando el último endoso esté en blanco. A tal efecto, los endosos tachados se considerarán como no escritos. Cuando un endoso en blanco vaya seguido de otro endoso, el firmante de éste se entenderá que adquirió la letra por el endoso en blanco.

Cuando una persona sea desposeída de una letra de cambio, por cualquier causa que fuere, el nuevo tenedor que justifique su derecho en la forma indicada en el párrafo precedente no estará obligado a devolver la letra si la adquirió de buena fe.

### **Artículo veinte**

El demandado por una acción cambiaria no podrá oponer al tenedor excepciones fundadas en sus relaciones personales con el librador o con los tenedores anteriores, a no ser que el tenedor, al adquirir la letra, haya procedido a sabiendas en perjuicio del deudor.

## **Hamazazpigarren artikulua**

Endosuak kanbio-letraren ondoriozko eskubide guztiak transmititzen ditu.

Endosua zuri dagoenean, edukitzaileak aukera hauek izango ditu:

1. Endosu zuria osatzea, bere edo beste pertsona baten izenarekin.
2. Letra berriro zuriz endosatzea edo endosu-hartzaile jakin bat izendatuz endosatzea.
3. Letra hirugarren bati ematea, zurizko endosua osatu gabe eta endosatu gabe.

## **Hemezortzigarren artikulua**

Endosatzaileak, kontrakoa dioen klausularik ezean, onarpena eta ordainketa bermatzen du ondorengo edukitzaileen aurrean.

Endosatzaileak debekatu dezake beste endosurik egitea. Kasu horretan, ez du erantzukizunik izango ondoren letra endosatzen zaien pertsonen aurrean.

## **Hemeretzigarren artikulua**

Kanbio-letraren edukitzailea haren eramaile legitimotzat hartuko da bere eskubidea etenik gabeko endosu-kate batekin justifikatzen duenean, baita azken endosua zuriz badago ere. Horri dagokiola, endosu ezabatuak idatzi gabekotzat hartuko dira. Endosu zuri baten ondotik beste endosu bat doanean, ulertuko da azken horren sinatzaileak endosu zuriaren bidez hartu zuela letra.

Pertsona bati kanbio-letra bat kentzen zaionean, edozein dela ere arrazoia, bere eskubidea aurreko paragrafoan adierazitako moduan justifikatzen duen edukitzaile berria ez da behartuta egongo letra itzultzera, fede onez eskuratu bazuen.

## **Hogegarren artikulua**

Kanbio-akzio baten ondorioz demandatua dagoenak ezin izango du salbuespenik alegatu edukitzailearen aurka igorlearekin edo igorpenduarekin dituen harreman pertsonaletan oinarrituta, non eta edukitzaileak ez duen, letra eskuratzean, jakinaren gainean zordunaren kaltetan jokatu.

### **Artículo veintiuno**

Cuando el endoso contenga la mención «valor al cobro», «para cobranza», «por poder», o cualquier otra que indique un simple mandato, el tenedor podrá ejercer todos los derechos derivados de la letra de cambio, pero no podrá endosar ésta sino a título de comisión de cobranza.

En este caso, las personas obligadas, sólo podrán invocar contra el tenedor las excepciones que pudieran alegarse contra el endosante.

La autorización contenida en el endoso de apoderamiento no cesará por la muerte del mandante, ni por su incapacidad sobrevenida.

### **Artículo veintidós**

Cuando un endoso contenga la mención «valor en garantía», «valor en prenda», o cualquier otra que implique una garantía, el tenedor podrá ejercer todos los derechos que derivan de la letra de cambio, pero el endoso hecho por él sólo valdrá como comisión de cobranza.

Las personas obligadas no podrán invocar contra el tenedor de una letra recibida en prenda o en garantía las excepciones fundadas en sus relaciones personales con el endosante que las transmitió en garantía, a menos que el tenedor, al recibir la letra, hubiera procedido a sabiendas en perjuicio del deudor.

### **Artículo veintitrés**

El endoso posterior al vencimiento, que no podrá ser realizado por el aceptante, producirá los mismos efectos que un endoso anterior. Sin embargo, el endoso posterior al protesto o a la declaración equivalente por falta de pago o al vencimiento del plazo establecido para levantar el protesto no producirá otros efectos que los de una cesión ordinaria.

El endoso sin fecha se considerará hecho antes de terminar el plazo fijado para levantar el protesto, salvo prueba en contrario.

### **Artículo veinticuatro**

La cesión ordinaria de la letra transmitirá al cesionario todos los derechos del cedente, en los términos previstos en los artículos 347 y 348 del Código de Comercio.

El cesionario tendrá derecho a la entrega de la letra. Iguales efectos producirá la transmisión de la letra por cualquier otro medio distinto del endoso.

## Hogeita batgarren artikulua

Endosuak, «kobrantzarako balioa», «kobrantzarako», «ahalordez» edo mandatu soil bat adierazten duen beste edozein aipamen duenean, edukitzaileak kanbio-letratik eratorritako eskubide guztiak baliatu ahal izango ditu, baina ezin izango du letra hori endosatu kobrantza-komisio gisa baino.

Kasu horretan, behartutako pertsonak endosatzailearen aurka alega litezkeen salbuespenak soilik alegatu ahal izango dituzte edukitzailearen kontra.

Ahalordetze-endosuan jasotako baimena ez da indargabetuko ahalorde-emailearen heriotzagatik, ezta gerora etorritako ezintasunagatik ere.

## Hogeita bigarren artikulua

Endosuak, «balioa bermean», «balioa bahian» edo berme bat eskatzen duen beste edozein aipamen duenean, edukitzaileak kanbio-letratik eratorritako eskubide guztiak baliatu ahal izango ditu, baina berak egindako endosuak kobrantza-komisio gisa baino ez du balioko.

Obligaziodunek ezin izango dituzte bahian edo bermean jasotako letra baten edukitzailearen aurka baliatu berme gisa transmititu zituen endosatzailearekiko harreman pertsonaletan oinarritutako salbuespenak, baldin eta edukitzaileak ez badu, letra jasotzean, jakinaren gainean zordunaren kaltetan jokatu.

## Hogeita hirugarren artikulua

Muga-egunaren ondorengo endosuak, zeina ezin izango baitu onartzaileak egin, aurreko endosu baten ondorio berberak izango ditu. Hala ere, protestoa-ren edo ordainketarik ezagatik deklarazio baliokidearen ondoren edo protesta egiteko ezarritako epea amaitu ondorengo endosuak ez du beste ondoriorik sortuko ohiko lagapen batenak baino.

Datarik gabeko endosua, kontrako frogarik ezean, protestorako ezarritako epea bukatu baino lehen egindakotzat joko da.

## Hogeita laugarren artikulua

Letraren lagapen arruntak lagatzailearen eskubide guztiak transmitituko dizkio lagapen-hartzaileari, Merkataritza Kodearen 347. eta 348. artikuluetan aurreikusitako moduan.

Lagapen-hartzaileak eskubidea izango du letra jasotzeko. Ondorio berberak izango ditu letraren transmisioa endosuez bestelako edozein bidetatik egiteak.

## CAPÍTULO III

### De la aceptación

#### Artículo veinticinco

El tenedor o el simple portador de una letra de cambio podrá presentarla a la aceptación del librado, en el lugar de su domicilio y hasta la fecha de su vencimiento.

#### Artículo veintiséis

En toda letra de cambio el librador podrá establecer que habrá de presentarse a la aceptación, fijando o no un plazo para ello.

También podrá prohibir en la letra su presentación a la aceptación, salvo que sea pagadera en el domicilio de un tercero, o en una localidad distinta de la del domicilio del librado, o se trate de una letra girada a un plazo desde la vista.

Podrá, asimismo, establecer que la presentación a la aceptación no habrá de efectuarse antes de determinada fecha.

Todo endosante podrá establecer que la letra deberá presentarse a la aceptación fijando o no un plazo para ello, salvo que el librador haya prohibido la aceptación.

#### Artículo veintisiete

Las letras de cambio a un plazo desde la vista deberán presentarse a la aceptación en el término de un año a partir de su fecha.

El librador podrá acortar este último plazo o fijar uno más largo. Estos plazos podrán ser acortados por los endosantes.

#### Artículo veintiocho

El librado podrá pedir que se le presente por segunda vez la letra de cambio, al día siguiente de la primera presentación. Los obligados en vía de regreso no podrán alegar que tal petición quedó incumplida, salvo que hubiere constancia de la misma en el protesto o en la declaración equivalente del librado.

El portador no estará obligado a dejar en poder del librado la letra presentada a la aceptación.



### III. KAPITULUA

#### Onarpena

##### Hogeita bosgarren artikulua

Kanbio-letra baten edukitzaileak edo eramaile soilak igorpenduaren onarpenerako aurkezten ahalko du hura, beraren egoitzan eta muga-egunera arte.

##### Hogeita seigarren artikulua

Edozein kanbio-letratan, igorleak ezar dezake onarpenerako aurkeztu beharra dagoela, hartarako epe bat ezarrita edo ezarri gabe.

Letran, halaber, debekatu ahal izango du onarpenerako aurkeztea, ez bada hirugarren baten egoitzan edo igorpenduaren egoitza dagoenaz beste herri batean ordaintzekoa, edo ikustetik epe batera igorritako letra.

Ezar daiteke, era berean, onarpenerako aurkezpena ez dela egin behar data jakin bat baino lehen.

Endosatzaile orok ezar dezake letra onarpenera aurkeztu behar dela, horretarako epe bat jarrita edo jarri gabe, non eta igorleak ez duen onarpena debekatu.

##### Hogeita zazpigarren artikulua

Ikustetik epe baterako kanbio-letrak datatik urtebeteko epean aurkeztu beharko dira onarpenerako.

Igorleak aukera izango du azken epe hori laburtzeko edo epe luzeagoa jaritzeko. Endosatzaileek epe horiek laburtzen ahalko dituzte.

##### Hogeita zortzigarren artikulua

Igorpenduak eskatu ahal izango du kanbio-letra bigarren aldiz aurkeztu diezaioten, lehen aurkezpenaren biharamunean. Atzerabidean behartuta daudenek ezin izango dute alegatu eskaera hori bete gabe geratu zela, non eta ez den eskaera jasota gelditu protestoan edo igorpenduaren deklarazio baliokidean.

Eramailea ez dago behartua onarpenerako aurkeztutako letra igorpenduaren esku uztera.

### **Artículo veintinueve**

La aceptación se escribirá en la letra de cambio. Se expresará mediante la palabra «acepto» o cualquier otra equivalente, e irá firmada por el librado. La simple firma de éste puesta en el anverso de la letra equivale a la aceptación.

Cuando la letra sea pagadera a cierto plazo desde la vista, o cuando deba presentarse a la aceptación en un plazo fijado por una estipulación especial, la aceptación deberá llevar la fecha del día en que se haya dado, a no ser que el portador exija que se fije la fecha del día de la presentación. A falta de fecha, el portador, para conservar sus derechos contra los endosantes y contra el librador, hará constar esa omisión mediante protesto, levantado en tiempo hábil.

### **Artículo treinta**

La aceptación será pura y simple, pero el librado podrá limitarla a una parte de la cantidad.

Cualquier otra modificación introducida por la aceptación en el texto de la letra de cambio, equivaldrá a una negativa de aceptación. Esto no obstante, el aceptante quedará obligado con arreglo a los términos de su aceptación.

### **Artículo treinta y uno**

La letra girada contra dos o más librados podrá presentarse a cualquiera de ellos, a menos que indique claramente lo contrario. La negativa de la aceptación por uno de ellos permitirá al tenedor el ejercicio de su acción de regreso conforme a lo dispuesto en el artículo 50.

### **Artículo treinta y dos**

Cuando el librador hubiere indicado en la letra de cambio un lugar de pago distinto al del domicilio del librado, sin designar a un tercero a quien deba reclamarse el pago, el librado podrá hacerlo en el momento de la aceptación. A falta de tal designación, se entenderá que el aceptante se ha obligado a pagar por sí mismo en el lugar de pago.

Cuando la letra sea pagadera en el domicilio del librado, éste podrá indicar en la aceptación otro domicilio de pago en la misma localidad y, en su caso, la persona a quien haya de reclamarse dicho pago.

## Hogeita bederatzigarren artikulua

Onarpena kanbio-letran idatziko da. «Onartzen dut» hitzaren edo beste edozein baliokideren bidez adieraziko da, eta igorpenduak sinatuko du. Letraren aurrealdean jarritako sinadura soila, igorpenduarena, onarpenaren baliokoa da.

Letra ikustetik epe jakin batera ordaintzekoa denean, edo baldintza berezi batek jarritako epean aurkeztu behar denean onarpenerako, onarpenean adierazi beharko da zein egunetan eman den, non eta eramaileak ez duen eskatzen aurkezpenaren eguna jartzeko data gisa. Datarik ezean, eramaileak, endosatzaileen eta igorlearen aurka dituen eskubideei eusteko, omisio hori jasoaraziko du denbora baliodunean egindako protesto bidez.

## Hogeita hamargarren artikulua

Onarpena erabatekoa eta sinplea izango da, baina igorpenduak zenbatekoaren parte batera mugatu ahal izango du.

Kanbio-letra onartzean letraren testuan sartutako beste edozein aldaketak onarpenari uko egitearen balioa izango du. Hala ere, onartzailea bere onarpenaren arabera behartuta geratuko da.

## Hogeita hamaikagarren artikulua

Bi igorpenduren edo gehiagoren aurka igorritako letra haietako edozeini aurkezten ahalko zaio, ez badu argi eta garbi besterik adierazten. Haietako batek ez badu onartzen, edukitzaileak atzerabidezko akzioa baliatu ahal izango du, 50. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## Hogeita hamabigarren artikulua

Igorleak kanbio-letran igorpenduaren helbidez besteko ordainketa-leku bat adierazi badu, ordainketa erreklamatu behar zaion hirugarren bat izendatu gabe, igorpenduak onarpenaren unean izenda dezake. Izendapen hori egin ezean, ulertuko da onartzaileak obligazioa hartu duela ordainketa-lekuan berak ordaintzeko.

Letra igorpenduaren helbidean ordaintzekoa bada, hark onarpenean adierazi ahal izango du beste ordainketa-egoitza bat, herri berekoa, eta, hala bada-gokio, ordainketa erreklamatu behar zaion pertsona.

### **Artículo treinta y tres**

Por la aceptación, el librado se obliga a pagar la letra de cambio a su vencimiento.

### **Artículo treinta y cuatro**

Cuando el librado tuviere en su poder la letra para su aceptación, la aceptare y antes de devolverla tachare o cancelare la aceptación, se considerará que la letra no ha sido aceptada. Salvo prueba en contrario, la tachadura se considerará hecha por el librado y antes de la devolución del título.

Esto no obstante, si el librado hubiese notificado su aceptación por escrito al tenedor o a cualquier firmante de la letra quedará obligado frente a éstos en los términos de su aceptación.

## **CAPÍTULO IV**

### **Del aval**

#### **Artículo treinta y cinco**

El pago de una letra podrá garantizarse mediante aval, ya sea por la totalidad o por parte de su importe.

Esta garantía puede prestarla un tercero o también un firmante de la letra.

El aval podrá suscribirse incluso después del vencimiento y denegación de pago de la letra, siempre que al otorgarse no hubiere quedado liberado ya el avalado de su obligación cambiaria.

#### **Artículo treinta y seis**

El aval ha de ponerse en la letra o en su suplemento. Se expresará mediante las palabras «por aval» o cualquier otra fórmula equivalente, e irá firmado por el avalista.

La simple firma de una persona puesta en el anverso de la letra de cambio vale como aval, siempre que no se trate de la firma del librado o del librador.

El aval deberá indicar a quién se avala. A falta de esta indicación, se entenderá avalado el aceptante, y en defecto de éste, el librador.

No producirá efectos cambiarios el aval en documento separado.

## **Hogeita hamahirugarren artikulua**

Letra onartzearekin, igorpenduak obligazioa hartzen du muga-egunean kanbio-letra ordaintzeko.

## **Hogeita hamalagarren artikulua**

Igorpenduak letra bere esku badu onarpenerako, onartzen badu eta itzuli aurretik onarpena ezabatzen edo ezerezten badu, ulertuko da letra ez dela onartu. Kontrako frogarik ezean, ezabapena igorpenduak egindakotzat eta titulua itzuli aurretik egindakotzat joko da.

Hala ere, igorpenduak bere onarpena idatziz jakinarazi badio edukitzaileari edo letraren edozein sinatzaileari, haiekiko obligazioa hartuko du, onarpeneko terminoetan.

# **IV. KAPITULUA**

## **Abala**

### **Hogeita hamabosgarren artikulua**

Abal bidez bermatu ahal izango da letra baten ordainketa, zenbatekoaren guztizkoan edo partez.

Berme hori hirugarren batek eman dezake, edo letraren sinatzaile batek.

Letra ordaintzeko muga-eguna iritsi eta ordaintzeari uko egin ondoren ere sina daiteke abala, baldin eta, egilestean, ez bada abalatua kanbio-obligaziotik aske geratu.

### **Hogeita hamaseigarren artikulua**

